


Contrapas

Berceac oroc iñan dira

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 3. ZENBAKIA. URRIA. 1990

3



ANDOLIN EGUZKITZA / EDUARDO GIL BERA / PATRI URKIZU
BITORIANO GANDIAGA / AMAIA ITURBIDE / JUAN LUIS ZABALA
IÑAKI IRAZABALBEITIA / JON IRIBERRI / PAKO ARISTI / XABIER
MENDIGUREN / ANDREI PLATONOV / KONSTANTIN FEDIN
KARLOS SANTISTEBAN / JOSE LUIS OTAMENDI / JOSE ERZIBEN-
GOA / JUAN RAMON MADARIAGA / PAUL VALERY / MIGUEL
ANGEL UNANUA / CHARLES BAUDELAIRE / IOKIN ZAITEGI

Oray ezta erideyten
Heuscararen pareric.

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 3. ZENBAKIA. URRIA. 1990

3

A U R K I B I D E A

SAIOAK

ANDOLIN EGUZKIZA
Euskal tradizioaren asmaketa 5

EDUARDO GIL BERA
Montaigne,
gure brebiarioaren estiloa 9

PATRI URKIZU
Pierre Laffitte, Euskal Literaturaz 11

LIBURU ETA ARTIKULU KOMENTARIOAK

BITORIANO GANDIAGA
Ala-deltan olgetan 25

AMAIA ITURBIDE
Hiru poema liburu 29

JUAN LUIS ZABALA
Ezta nahita ere
(edota kritikaria eta idazlea) 31

NARRAZIOAK

IÑAKI IRAZABALBETIA
Ozeanoaren erdian 37

JON IRIBERRI
Adagio hautsia 43

PAKO ARISTI
Trinidadeta 47

XABIER MENDIGUREN
Oporretako koadernoak 51

NARRAZIO ITZULPENAK

ANDREI PLATONOV
Eguzkiaren sartalderantz 61
Itzultzailea: Karlos Santisteban

KONSTANTIN FEDIN
Neba-arreba 69
Itzultzailea: Karlos Santisteban

POEMAK

AMAIA ITURBIDE
Atoz nire etxera 75

JOSE LUIS OTAMENDI
Lau poema 76

JOSE ERZIBENGOA
Bortietan 79

KARLOS SANTISTEBAN
Eider eijerra 83

JUAN RAMON MADARIAGA
Iguriaren trilogia eta bat gehiago 88

POEMA ITZULPENAK

PAUL VALÉRY
Le cimetière marin 92
Itzultzailea: Migel Angel Unanua

CHARLES BAUDELAIRE
L'homme et la mer 102
Itzultzailea: Iokin Zaitegi

BOLETINA / SARIAK 105



Hegats
Literatur aldizkaria
3. zenb. 1990

ARGITARATZAILEA:
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

ALE HONETAKO KOORDINATZAILEAK:
PATRI URKIZU / MAITE GONZALEZ ESNAL

ERREDAKZIO BATZORDEA:
**MIKEL FERNÁNDEZ ABAITUA, XABIER AZURMENDI, RAMÓN
ETXEZARRETA, MAITE GONZÁLEZ, KOLDO IZAGIRRE,
MARIASUN LANDA, JOXAN MUÑOZ, PATRI URKIZU.**

PARTE HARTZAILEAK:
Andolin Eguzkitza, Eduardo Gil Bera,
Bitoriano Gandiaga, Amaia Iturbide, Juan Luis Zabala,
Iñaki Irazabalbeitia, Jon Iriberry, Pako Aristi,
Xabier Mendiguren, Karlos Santisteban,
Jose Luis Otamendi, Jose Erzibengoa,
Juan Ramón Madariaga, Miguel Angel Unanua,
Iokin Zaitegi.

MAKETAGILEA:
Lamla
Plazuela del Consejo, 3-4º
31001 Iruña

SUSKRIPZIOA:
BEGOÑA ANDONEGI
Euskal Idazleen Elkartea
Etxague Jeneralaren kalea, 6-behea-eskubia
20003 DONOSTIA
Tf.: (943) 420010
ISSN: 1130-2445
L.G.: SS- 359/90

ALDIZKARI HONEK EUSKO JAURLARITZAREN
LAGUNTZA JASO DU

SAIOAK

3 SAIO



ADOLIN EGUZKITZA

*Euskal tradizioaren
asmaketa*

EDUARDO GIL BERA

*Montaigne, gure
brebiarioaren estiloa*

PATRI URKIZU

*Pierre Lafitte, Euskal
Literaturaz*



Elevazione e progetto di un'altra persona curate nella pagina
di 1899 della Compagnia di Gesù e Castel Lendegh.

ANDOLIN EGUZKITZA

Euskal tradizioaren asmaketa

(Aita Santi Onaindiari egin omenaldiko mahaingururako prestatu zenbait gogoeta)

Nire eritziz gauden egoeraren giltza eta kako gerta daitezkeelako, eta hain segur neure artean aspalditik erabili izan dudalako, hona dakartzadan lerro hauetan, gaur egungo euskal literaturaren hiru premia nagusi aipatu gura nituzte, eta orobat literatura guztien historian guztiz garrantzitsu gertatu den baliapide bat, itzulpengintza, eta horren ingurukoak.

Lehenengo eta behin sarri askotan aipatu den eta nik neuk ere aipatu dudan arazo bat erabili nahiko nuke, literatur-hizkuntzaren problema. Eta berriro aipatu, susmatzen dudanez, ondo zer den ulertu ez delako, arazoa ez baita berez *batua* bai ala *batua* ez. Batasuna arazo politikoa da, (zalantzarik gabe literatur-hizkuntzaren oinarri, hori gabe ez baitago aurrera segitzerik: *Herri bat, hizkuntza bat*), baina ez da hala guztiz ere berezko literatur-hizkuntzaren arazoa.

Nire ustez, guztiz beharrezkoa da literatur-hizkuntzari buruzko burutapen argi bat edukitzea aurrera egingo badugu. Izan ere, eta zaharra eta askok esandakoa baino eztut nik hemen



berriztatzen (Pragako lagunarte linguistiko kideena esate baterako), literatur-hizkuntza *autonoma* da eta izan behar du, *beraren legeek arautua* eta *bere* dauzkan *funtzioak* betetzeko prest. Autonomoa, ez daukalako zerikusirik bat ere hizkuntza mintzatuagaz, guztiz delako beregain, hainbeste, non esan baitaiteke eguneroko hizkuntzatik begiratura guztiz artifiziale dela.


Eta halaxe da. Hori baina ez da, hainbestek uste duenaren kontra, baztertzeko akatsa, arras bertute ona baino, hain zuzen ere, bata eta besteak dauzkaten funtzionak, hizkuntza mintzatuak eta hizkuntza idatziak, oso direlako desberdinak. Bata aringa aringa egindako komunikazioaz arduratzen den bezala, bestea komunikazio formalaz arduratzen delako. Batak oroz lehen komunikazioaren bidez adierazi gura dena helburu daukan bitartean, hizkuntzatik kanpo beraz, besteak hizkuntzan bertan daukalako helburu nagusia, eta horregatik erregela eta araei tinko eta fidel jarraitzeko beharra. Bata, azkenez, nahikoa mugatu eta baliapidez laburreko den bezala, besteak ez daukalako inongo mugarik,

ezpadira adierazkortasunaren beharrak. Gaurko euskal literaturaren problema nagusietariko bat horixe da, izan ere. Ez ditzagun beraz gauzak nahas. Jendea alfabetatua ez egotea, nahiko ez irakurtzea eta horregatik testuok gaitz aurkitzea ez da idazlearen arazo, plangintzatzaile linguistikoarena baino.

Agian errusiar formalisten artean hitzez behintzat arradikalena izan zen Shklovskij-ren harako hura aipa genezake, eta berak *arte* dioen tokian, guk *literatura* ezar: "arteak beti izan delako bizitzetik aske eta beraren banderak ez dituelako inoiz hiriko gaztelukoaren kolore berak erakutsi."

Honek zuzen zuzenean bigarren premiatzat jo gurako nukēenera garoaz: euskal tradizioaren faltara. Zer esan gura dut honegaz? Ez jakina gure herriaz ezer ez dakitenek, eta gure herritar askok —baita direlako intelektual eta idazleen artean ere— gutiengotasun-konplexu ederrez hornituak, ulertzen dutena, hau da, euskal literaturarik ez dagoela. Jakina dagoena, eta apala izan arren, askotan ederra eta aspaldikoa, 1545.etikoa hain zuzen ere, eta Europako literatura batzu baino zaharragoa. Etxepare irakurtzea, edo Axular, edo Etxahun, edo Prai Bartolome eta Aita Añibarro ez da edozelakoa. Ez dugu zertan lotsatu behar. Esan gura dudana zera da, ez daukagula euskal tradizioarik, literatura bai, baina tradizioarik ez, edo eta oso laburra.

Euskal Herriaren azken mila urteko historia gertatu den lez gertatu delako, beraren klase nagusiek gehien bat erdaren alde egin dutelarik, eta azkenengo 500 urte honetan oso estatu boteretsu biren artean banandu gaituztela, berrabak laburrez, geure estatua eduki ez dugulako, ez dugu ezta ere eskolarik eduki eta euskara ez da Euskal Herriaren hizkuntza nagusia izan. Horrek erakarri duena argi dago. Alde batetik euskaldun gehienok ez dugula txikitan euskaraz



irakurtzen ikasi —askok eta askok ezta hizkuntza bere ere—, eta are gutxiago, idazten. Edo oraindik txarrago dena, anitzek sinetsi dugula euskarak ez duela ezertarako balio eta geure burua autogorrotatu eta autogorrotatzen dugula. Beste era batera esanda, ez dugu tradizioa era ohizkoan jaso, ez dugu era naturalez aurrekoek egindakoa ikasi, alegia, oroimen

historikoaz eta beronen ibilpide eta zirrikitu *tradizionalez*. Esate baterako, euskal prosa zientifikorako oinarri ederra Axularrengan daukagu. Bada, tradizio-falta horregatik hortxe gabiltza denok oraindino asmatzen. Ez esateko kondatzeko prosa, izugarritzko ahaleginak egin behar ditugula oraindik. Alegia, norbera aurrekoek egindakoa guztia ikasi beharrean dago, baina ez naturalki, ezpada ahalegin pertsonalez eta beraz ezin unibertsal izan daitezkeen moduez. Tradiziorako lehengaiak hor daude: idatzirika-ko testuak. Testu horiek lotuko litzuketena hariak dira ments.

Ene aburuz, orain bakarrik hasi gara tradizio hori zelanbait sortzen ikastoletan ikasten duten umeen bidez, salbuespen bakarrak ondoko bi hauek diratekeela segurutik: alde batetik *Es-kualduna* eta *Herria* aldizkariaren inguruan iparraldean azkenengo larogei-ehun urteotan sortu den tradizio laburra baina idazletan aberatsa (Hiriart Urruti, Etxepare medikua, Otsobi, Larzabal e.a.). Eta bestetik, gerrosteko hegoaldeko tradizioa, zelanbait esateko guri heldu zaiguna, baina batez ere ikastoletako ikasleek jasotzen daudena, hau da, Mirande, Etxaide, Aresti, Txillardegik eta abarrekoek sorturikoa. Gertatu diratekeen beste guztiak beti izan dira oso labur eta gerokoekin loturarik gabe, zorigaitzez.

Zer egin behar dugu? Zalantzarik bat ere gabe: Euskal tradizioa *asmatu*, anglosaxoitarren munduan esango litzatekeen bezala *to invent the Basque Tradition*. Lehenengo eta

behin tradizio hori gabe ezin dugulako aurrera egin, eta bigarrenez—zergatik ez dugu esan—gure artean hain naharoki betidanik gertatu eta oraino ere gertatzen diren mitogile eta mitologoek, gehienetan arrotzen mitoen zerbitzuko, lana eduki dezaten.

Lehena, tradizioa asmatu, lehenago aipaturiko arrazoiengatik lehendabizikoz, baina orobat, errusiar formalisten arauera osterera ere, literaturaren historia tradizioen apurturen historia delako. Edo eta Anjel Lertxundik zioen bezala, “geure aita hiltzeko aukera edukitzeko”. Izan ere, apertura horiek gertatu ez direlako gaude oraino gauden tokian eta gaudeneko arazoekin. Bigarrena, mitologo-kasta guztiei bazka eman, zalantzarik ez, azkenean aspertuko direlako eta hain segur baketan utziko. Are gehiago, esandako arrazoiengatik eta gure literaturaren ikuspegitik soilik, hots, literatur-erizpide hutsez, ene aurrean behin Bernardo Atxagak lagun bati ziotson bezala, gerta dakikegun gauzarik onena herri honen independentzia politikoa dugu. Ez da ezeren garantia izanen, baina bai behinik behin zeredozeren esperantza ona. Edo eta inork zalantzatan jartzen ote du literatura islandes, albaniar edo turkiarrik dagoela? Ordurarte idazleok daukagu erantzunkizuna, hau da, aurrekoek egindako guztia *buruz jakitea*, zelanbait tradizio-apertura horiek gudan gerta daitezkeen eta zer-edozer berri eta on egin dezakegun.

Hirugarren premia, azkenek, geure burua askatzea dugu nire ustez, Espaniagaz et Frantziagaz askatzea. Euskal Literaturak ez du ezer espainiarrengandik edo frantsesengandik jasoko edo ezer gutxi, alde batetik gaur egun ez batzu, ez bestek, ez direlako munduko herri dinamikoak eta kulturaren sortzaileak. Eta bestetik munduan badaudelako hainbeste herri eta literatura guretzat eredugarri eta hainbat jakituria-



ren iturri bihur dakizkikegunak. Gutxi batzu baino ez aipatzeko, mundu erromanikoan, Kataluña eta Italia. Mundu germanikoan, Alemania, Ingalaterra eta Estatu Batuak. Mundu eslabiarrean, eta ingurukoetan, Poloniako eta Ungariako literaturak. Eta bestetan, eman dezagun, japoniarra, txinarra, israeldarra eta arabiar zaharra. Ez dago esan beharrik ere espainiarren eta

frantsesen gauza onak, ondo ezagutzen ditugun neurrian, onartu behar ditugunik, ez baina ezelan ere beraien menpeko bihurtu. Direna eta diren neurrian, lehen aipatu dudana bezala, onartu. Besterik ez ordea. Eta den gutiena, beraien politikengatik beste herri eta kulturetatik urrundu eta alienatu. Geure kultura munduko herrien laguntzaz sor, horra hor programa.

Eta honegaz ukitu gura nukeen laugarren puntuan sartzen naiz, aipatu dudana baliapidea: itzulpena.

Mundu osotik itzuli behar dugu, besterenak jasotzeko dudarik gabe, baina ez gutxiago, guk geuk idazten ikasteko, itzulpena egiteko orduan ez ihirik ez aharik eztutelako deus balio, zehaztasuna eta itzultzen den testuak dioena baino, eta hor hizkuntzaren baliapideak eta adierazkerak ehuneko ehunetan erabili behar direlako. Horregatik, hain zuzen, ez dugu gaztelaniatik ezer itzuli behar, euskaldun gehienok gaztelaniaz irakurten dugulako, eta literaturazalea denak ez duelako, erdara hori ondo jakinda, ezertarako euskal itzulpena hartuko. Frantsesarekin ezin daiteke hainbeste esan, baina ia.

Hona beraz, laburbilduz, programa osterera ere: literatur-hizkuntzari ekinez euskal tradizioa sortu eta geure burua ondoko erdaretatik askatu, itzulpenaren bidez geure ondarea, bai pertsonala eta bai soziala aberasten dugula.

EDUARDO GIL BERA

Montaigne, gure brebiarioaren estiloa

“Kristoren 1571.ean, hoge eta hemezortzi urtetan, martxoko kalenden bezperan, bere urteurrenean, Michel de Montaigne, kargo publiko eta Parlamentuko zerbitzuari aspaldixko nekaturia, erretiratu da birjin jakintsuengana non, segurtasun eta pausaz, pasako dituen bizitzeko gelditzen zaizkion urteak...”. Halaxe, gogotik eta ponpox, inskribatu zuen bere dorreko bibliotekan. Segurtasun eta pausa eskas izan zuen, ordea, gero suertatu baitzitzaizkion gerretan aritu beharra, bidaia, Bordeleko alkatetza, izurriteak, handikiekiko harremanak, eta are Bastilla bera preso gisa ezagutzeko aukera; horrekin ere, duarik gabe, birjin jakintsuak, Musak, haren konpainian aritu ziren.

Bibliotekan markatu delibero horren ondorioz *Entseguak* hasi ziren moldatzen. “Jende plantakoen brebiarioa” deitu omen zien Perron kardinalak. Ez dakit nik baina, plantak planta, niketz, bertze askoren gisa berean, uste dut Entseguak neure brebiarioa direla. Liburu bakarreko izatea ez litzaidake sobera inport, bakar hura Montaigneren Entseguak balira. Eta zer da,



gero, liburu hori? “...hasieratik abertitzen dizut batere helbururik ez dudala, hau nere etxerako eta pribatua da; zure zerbitzu ezta nere loriari buruzko kontsideraziorik gabea...”. Hagitz ongi errana. Nola, bertzela, hasi nor bakoitzaren bila eta ezagutzen?

Hori bai, alafede, egiteko zabala, luzea, sakona, akigabea eta ezina. Bere baitan eta klasi-koetan betiko gizonaren bila, eta,

nola gizona, berez bere, ñabarra eta ondulatua baita oso, zernahi ikergai izaten zuen. Eta, erran gabe doa, beti ere plazentki aritu zen.

Montaigneren ama hizkuntza latina zen; sei urteak arte frantses ia ere ez zuen aditu. Hazi zen batere frantsesik ez zekien prezeptore aleman batekin eta etxekoek harekin frantsesa erabiltzeko debekua zuten; denek, amak eta neska-meek barne, hasi behar zuten latina murduskatzen Montaignerekin solastatzeko. Hortaz, eskolan hasi zenean, gramatikoko eta latinista sonatuek nahiago zuten harekin topo ez egitea. Haur koxkorra izanik, Virgilio eta Lukrezioaren izkribuetan ezinago trebatua zen; buruz buru zekizkien. Gizondu eta, ustegabeko trantzetan, ez-

painaratzen zitzaizkion lehendabiziko hitzak latinezkoak ziren.

Heldua izaiterakoan, gogo zolan bazuen mintzaira bat hila, baina prestigiorik handiena eta literaturarik gorena zeukana —gure kasua, kontrarioa denez, diferente da xoil-xoilik; hau diot zertaz, gauden honetan, izaten ahal da, arrats batez eta euskararen onerako, Lukrezio eta Virgilioarena egiteari lotuko den letratu pribilegiatua.

Frantses prosaren moldari nabarmenetarikoa izan eta ere, estiloa izan zen Montaigneri erantzun zitzaion akatsa. XVIII. mendean, Rambouillet-en eratzen ari zen manieraren apezgoak kondenatu zuen; Guez de Balzac-ek, haren aldekoa egon arren, zioen: “Montaignek badaki zer dioen; baina, ene iduriko, ez daki aldiro zen erran behar duen”. Prosa farfail, hanpatu, eta tatxarik gabeko satorrek zarpailtzat zeukaten Montaigne; *le style*-ren nazioan estilorik jatorrena eskas aurkitzen zen.

Seguru: kalitate bat apreziazteko izan behar da kalitate hori; guti edo aski, edota ez balitz ere zirta batez baizik, baina zerbait ere izan behar.

Abandonua. Bai. Abandonurik landuena bazuen Montaignek. Halako sen espezie bat da. Bere gogo usma espezialak erraten zion bere ideiak eta pentsamenduak hobeki adierazten zirela baldin eta ideia eta pentsamendu horiek beroriek manera asmatzen eta antolatzen zuten. Montaignek moldatzen eta oratzen du bere gogorako behar duen hizkuntza.

“Ez da estilista bat; baina bai gauzak erraten arrunt ongi dakien laguna” zioen Barojak. Estilista ez? Orduan, estiloa, zer da? “Estilora ez da ailegatzan baizik et lan ikaragarri baten ondoren” uste zuen Flaubert-ek; artisau baten ustea da, oiloa baino altuago hegaka ariko ez den bat: haren iduriko, Shakespeare, Cervantes, Balzac, Dickens, Montaigne, Dostoievski eta hainbat gehiago idazkera txarreko idazleak ziren. Ez zuen konprenitzen, kasko xabor gaixoak, nola irauten ahal zuten forma egoki baten sostengua

izan gabe. Madame de Sévigné-k errana ere ez zitzaion kaskoan hartzen ahal: “Erabat segurua naiz: gure gaitzetarik gehienak heldu dira ipurdia aulkiaren gainean izatetik.”

“Filosofia da poesia sofistikatu bat” zioen Montaignek. Estiloa, izatekotan, harena da. Bazuen, hain juxtu ere, mintzoarekiko izan behar den sena: juxtuki estiloaren iturburua. Bere gogoak, eta, beti ere, idazkaiaren arabera, berreixten ditu adierazpideak; horren ondorioz sortzen da itxura bat, berexia bera ere. “Gogakeriak agertu arauz: aldiz pilaka, aldiz lerroka. Agerrarazi nahi dut neure martxa, aski kordoka bada ere...”

Prosaren konposaketaz tratatzen duen artea eta honen arauak, hain interesgarriak eta sakratuak Flaubert batendako, ez zitzaizkion batere interesatzen Montaigneri. Hortaz, preseski, bazeukan bere manera; hortaz zen estiloko laguna eta ez estilista.

Joskerazko bihurkeriak are gutiago; nahiago ditut xuxen-xuxen dudaren erdian jotzen duten solasak: lehendabiziko kolpea, hantxe...”. Horretarako, arkaismoak, dialektalismoak, latinismoak eta ismo berexirik gabeko hainbat errekurso, denak zaizkio baliosoak.

Hizkuntza ezezik, aipua eta gertatuak ere itxuratzen ditu bere gisa, sueltoki hagitz. Haren testuetan dantzan ari da malezia graziosoa, batere apalkeriarik gabea. Apalkeria faltsua beti dabil besoz beso pretentzio espantontziarekin; azkeneko hau desgisatzeko asmotan. Hau non-nahi eta nolanahi ikusten dugu oraingo honetan. Orduan, ordea, apalkeria ez zen merito-duna.

Sekula baino gehiago, oraingo honetan apreziatzen dugu gizon berexi honek moldatu zigun brebiarioa. Hainbertze letra eta manera motelen erdian, suposatzen du adimendurako gozame-na eta gogorako besta.

Eta oraingo honetan ere gurea da zertaz juxtuki baitu arte lanaren kualitaterik gorena: denboragandik ihes egitea permititzen diona; estiloa.

PATRI URKIZU

Pierre Lafitte, Euskal Literaturaz

EUSKAL LITERATURAZ Piarres Lafitte luhusoarrak ondutako artikulu bilduma duzu hau. Aldizkaritan sakabanatuak, hantemenka barreiatuak, eta eskuragaitz gertatzen zitzaizkigun berrogeitahamar idazlan. Gehienak Iparraldeko astekari eta errebistetan, HERRIAN batipat, GURE HERRIAN eta GURE ALMANAKAN agertuak. Bidasoaz honunzkoak eskuratzeko erraxagoak izanik ere, aski ezezagunak eta erdigalduak bezala zeuden EUSKERA, JAKIN, EGAN eta AUSPOAko liburu xortan.

Histoire de la littérature basque delako bat behin eta berriro iragarri zigun PLk; egunoroko betebeharrekin, ordea, ez dirudi asti askirik utzi ziotenik egitasmoa buru zezan, ez baitugu horren aztarnik ediren Andiazabalek jasotako PLren paper zaharren artean. Bestalde, esan daiteke



1931ean jada iragarritako asmoa *Eskualdunen Loretegia*-n¹, burutu zuela idazle garrantzitsuenen edizio prestaketen bidez. Horien hitzaurreak, noski, ekarri ditugu hona, oro artean ikuspegi zehatz eta aski zabala lortzen dugularik. Ez ditugu bildu idatzi zituen guztiak, ez eta gutxiagorik ere, hirurogei urtetan idatzitakoak kontaezinak baitira, baina bai xorta eder bat. Gure

egitekoan Isabel Goikoetxeak lagundu digu PLri buruz osatu duen bibliografiarekin², denik zehatzena baita, bertan zenbait faltan izan arren.

Piarres ttikia, Eiherazaina, Filtate, Barrandaria, Berrizarte, Piarette Labbé, Zazi ez dira PLk erabili zituen izengoiti batzu besterik Oronosek salatzen digunez (HPL, 154), filosofiaz, politikaz, etnologiaz edo erlijioaz at hainbat gai trebeki tratatzen dituelarik bere idazlanetan. Emaizta

OHARRAK

1. Piarres Lafitte, *Eskualdunen Loretegia XVI garren mendetik bunateko liburuetarik bildua. Leben zatbia* (1645-1800) (sic). Baiona, Lasserre 1931. (Aurrezantzean EL).

2. Isabel Goikoetxea, "Bibliographie de Pierre Lafitte", *Hommage à Pierre Lafitte*, *Bulletin du Musée Basque* n° 113-114. Baiona 1986, 189-206. (Aurrezantzean HPL).

oparo honetatik, ordea, Euskal Literaturaz idatziak soilik dira hemengoak, eta esan bezala, ez denak.

Sail hau da, hain zuzen, ohi bezain trebeki Jean Haritschelharrek frantsesez aztertu diguna (HPL, 177-188) eta guk hemen euskaraz aurkeztuko, Euskaltzaindiko buruak egin oharrak errepikatuz eta eranskin zenbait gora-behera osatuz.

Testuak eman ondoren hiztegi eta PLk aipatzen dizkigun idazle eta idazlanen zerrenda erantsi dugu, irakurlearen eta euskal literaturaren ikaslearen lagungarri izango direlakoan.

Bi partetan zatitu ditugu lanok. Lehendabizikoa Herri Literaturari eskainiak ipini ditugu eta bigarrenean besteak, alegia, XV. mendetik XX. menderainoko idazleei buruzkoak. Hau da, gutxi gora behera, berak literatur kritika lanetan³ egiten zuen sailkapena errespetatu dugu.

Irakurlea, arian-arian, ohartuko da zein-nolako begirada zorrotzez baina era berean maitekorrez ikusten zuen PLk euskal literatur mundua, eta nola han-hemenka, tantoka, zein-nolako aholku benetan jakitsuak ematen dizkigun ongi idazteko moduz eta bertsoak ontzeko moldeez.

Hurbil nakion, bada, lehenik literaturaz di-tuen ideia orokorreari soalditxo bat ematera ohizko lelo, hots, betikoarekin.

Zer da literatura?

Ez da tinta gutxi isuri gai honen eztabaidan! Nork uka honetaz idatzi diren liburuekin liburutegi eder bat ez daitekeenik osa? Gusto eta iritzi guztietakoak badira, eta, nola ez, PLk ere berea ematen digu.



Hertsiki ezin muga daitekeen zerbait bezala jotzen du Literatura, argiaren fenomenoarekin gonbaratzen digularik. Hona bere hitzak zuzenean:

Funtsean, oroknoiz nahi argia aipatzen dugu, ez ginakikelarik zeazki azaltzen baren zer-izana. Aski zaiku jakitea ba dela eta gure begiak ederki laguntzen dituela.

zen dituela.

Berdin erran nezake literaturaz aski zaiku jakitea ba dela eta idazkien bidez gure gogobihotzak goxatzen dituela⁴.

Gogo-bihotzen goxatzea! Ez da, helburu edota ondorio txarra. Dena den, PLren irizpideak ez ziren beti berdinak izan, ikusiko dugunez. Lehenik, ez da ahanzi behar PL apeza zela, Ibaregarayk azpimarratu arren ez nolanahiko apeza, —un poisson rouge dans un bénitier— arrain gorri urpontean, alegia, gorri horietakoa, euskararen ikerketara eta lantzerari arimen zaintzeak bultzatu zuela. Adierazgarriak dira benetan bere hitzak honi dagokionez: *Ez banu gogoan ukan, euskararen bidez hobeki gure herritarren arimek begiratu zutela fedea, ez dut uste eskualtzale bilakatuko nintzen...*

PLk ez zigun euskal literaturaz lan orokorrik utzi euskaraz baina bai frantsesez bi alditan. Lehenik, B deitu dugun liburutxoan Iparraldekoaz bakarrik aritu zitzaigularik, bigarrenaz Ipar-Hegoaldekoa besarkaturik gaztetxoentzat idatzitako lantxo batean⁵.

“Gogoeta sakon eta sentimendu finik adieraz zezakeela euskarak luma zorrotzen esku-tan; ordea, gutitan gertatu zitzaiola horrelako-

3. Piarres Lafitte, *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona, Aitzina, 1941. (Aurrerantzean B).

4. Piarres Lafitte, “Gazte bati. Literaturaz”. Juan San Martin, Serafin Basauri, *Ilegatsez*. Kuliska sorta 71. Zarautz 1971, 197.

5. Piarres Lafitte, *La littérature basque*. Mende Berri. Baiona 1968. (Aurrerantzean LB).

rik". Honela hasten zuen PLk (B 19) bere ikuspegi orokorra. Hogei urte geroago, Mitxelenak iritzi berdintsu bat bota zuen bere euskal literaturaren historiaren sarreran. "*Beranta, eskasa eta oro harez kalitate handikoa*"⁶. Bat zetorren PL iritzi honekin Mitxelenaren historia argitaratu bezain laister egin zitzaion elkar-hizketa batean⁷, iritzi objetibo horiek, gogorrek direnean osasungarriagoak direla samurberatasunak edota pietateak eragindako gezurrak baino, adieraziz. Halere, zuzenketa batzuek egingen lizkioketela Mitxelenari Mendibururi buruz edota bere ustez aipatzen ez dituen Markiegi eta Eguzkitzak mereziko luketenez.

Guzti honekin, aldiz, ez dirudi bat datorrenik beste artikulua batean, Mitxelenaren lanak epaitzerakoan⁸ hain zuzen, esaten baitigu, alegia, euskal literatura oparoa dela eta interesa merezi duena.

Zenbaitek uste baino oparoagoa dela argi dago Juan San Martinen katalogoari begiradatxo bat ematen badiogu, zeini buruz idazten zuen PLk:

*Gure denboran eskuaraz izkiriatu duten lau ehun idazlariren berri [...] Haatik baditake liburuan eskas diren batzuek hartze zuketela aipatuek baino ohore gehiago*⁹.

Puntu jartze hauek alde batera utzirik, goazen, bada, taxutu dugun bilduma xeheago aztertzeraz.

Irakurlea nolako idazlana halako. Hau zen, noski, PLk ongi menderatzen zuen erretra. Batzuetan, gazeta lanetan, esate baterako, modu erraz eta arin batean aurkeztuko digu gaia,



emango liburu edo ospakizun baten berri. Bestetan irratirako prestatua izango da lana, ahozkotasunaren freskura mantentzen duelarik. Noski, halakoe-tan batipat entzule edo irakurle xumeak ditu gogoan. Zenbait aldiz, ordea, Donostiako entzulea, edo JAKIN, FLVeko irakurlearentzat ari denean, edota Euskaltzaindiko Sarrera-solasen batean ari zaigunean, bere ir-

kaitza, dotorea, erudizioa nabarmenak dira. Tokian tokikoa, beraz, gaiaren eta helburuaren arabera oratzen du solasa PLk. Nabari da orotan, halere, euskaltzale sutsu bat, ez bakarrik apez, ongiaski adierazten digun bezala kantu bilduma bati —eta hiru prestatu zizkigun— ezarritako hitzaurretxoak, liburuaren zergatikoa, *irakurleeri sar eta finka dakioten bihotzean Herriaren eta eskuararen amodioa*¹⁰, alegia, euskararenganako maitasuna, piztea zela azpimarratzen digunean, hain zuzen.

Herri Literaturaz

Bost artikulua bildu ditugu sail honetan. Lehen orokorra da eta sailari izena ematen diona. Ikuspegi orokor eta argi bat JAKINen 1974 urtean agertua. Bigarrena, *Pastoralez* idatzitako lanik osatuenetakoa, behin baino gehiagotan eman baitzigun bere iritzia teatro mota honetaz eta ez beti modu berean. Adibide bezala 1922 urtean, 52an eta 80an emanak aipatuko ditugu bere pentsatzeko eraren aldaketa nabarmena adierazten baitigute. Lehendabizikoan, pastoralen laburtzearen eta moral estu batek eraginik, sataneriak kentze aldeko agertzen zaigu, *Robert le Diable* zela eta. Honelaxe zioen:

6. Luis Michelena, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid, 1960, 11.

7. "C'est un travail objectif. Tout y est fondé sur documents". Basque-Eclair, 1960.

8. Piarres Lafitte, "La obra de Luis Michelena Elissalt". BRSVAP, Donostia 1965, 315-339.

9. Juan San Martín, *Escritores euskéricos*. Herria, 26-XII-1968.

10. Piarres Lafitte, Louis Dassance, *Kantu; kanta, khandore*. Baiona 1967, 3.

Labur bide bat litekela sataneria guziaren edekitzea, hori bai, Satanek denbora sobera baderamate jauzika eta ditxoka, dabil izan gertakariekin deus egitekorik ez duten dantza eta tortiko batzutan. Are berez, ezin aipatuzko harrokeria eta lizunkeria moltzo bat liteke gutiago. Ezen satanek darabiltzkiten solasakardura izigarriak dira likitsak. (HPL, 179).



Ez dela batere harritzen, dio, apezak pastoralen kontra agertzen badira askotan, hori dela eta. Areriotasun hori, jadanik Chahok XIX. mende erditsutan aipatzen zigun eta Larzabelek ere azpimarratzen, esanez, nola ezagutu zuen apezik ikuskizunak iraun bitartean elizdorreko kanpaiak jotajo aritzen zenik.

1952.an nazioarteko bigarren gerratearen ondoren berriro baratxe-baratxe pastoralak berpizten hasten direnean, aldiz, Juana Arekuarekin eta Marzelin Hegiaphal erreienta gisara, kexu izango da galdu egin delako lehen satanek zeukaten zentzua, dantzari huts bilakatu direlarik.

Azkenik, 1980.ean Etxahun-Irurikoak ohizko gaiak aldatuz Iparragirreraren bizitza antzokiratzen duenean, azpimarratuko du nola antzinarako ohitura berrartu den, eta nola pozik diren ikusliarrak iturburuetara jo delako, alegia, satanei hitza itzuli zaielako, eta ez direlako koreografiako elementu hutsak, baina, halere, erne behar dela egon solasak beren ausarkerietan urrunegi joan ez daitezen, eta likits bilaka. Bestalde, ez zen batere berritasunen kontrakoa, txalotzen baitu emakumeak agertu izana dagoz-

kien lanetan, maiteago baititu hauek andere bilakatutako gizonak baino.

Moral katolikoaren ikutua nabari bazaio zenbaitetan, horrek ez dio kamuzten bestetan duen iritzi zorrotza, Mañex Etxamendiren bertsoez honelaxe arituko baitzaigu: *Gaiak ardurenean funtsezkoak zituen, prediku-aireño batekin* (VII. 2).

Ipuinak direla eta hainbat biltzaileraren merituak goraiatu ondoren Azkueren sailkapena kritikatu egingen du, eta funtsezkoago den beste bat proposatzen, edukinaren eta ez luze-laburraren arabera, iritzi aski ilun den honekin amaitzeko: *Oro bar, ipuin xabarrak ibes-bide zirelarik, banago ustegabetarik ez zirenetz lo-belar!*

Hori da, hori, kritika egiteko modu dotorea!

Martin Irabolari eskainiko dio *Koblakariaren legea*¹¹. Bertsolari senperetar honek ez zekien irakurtzen beste hainbat bertsolarik bezala, baina gai zen Sarako plazan gonon luze-laburrez bertsoan aritzeko ordu t'erdi etengabe Larralde Luhusoarrarekin¹². Bertso onak moldatzeko araudia ematen digu bertan, laburbilduz hau litzatekeena:

—Ezin kanta daiteke “Ai, ei, ai, mutila” doinuan heriotzeaz.

—Puntua xuxen eman behar da eta ongi neurtua bertsoa. Gaia ederra izanik ere puntua eta neurria gaizki badoaz saririk ez dezake irabaz bertsolariak.

—Ez dira balio berdinekoak puntu guztiak. Ez da zilegi amaitzea, adibidez, honela: ...dire, ...dire, ...dire; ...aldu, ...hartu, ...makurtu;

11. Piarres Lafitte, *Koblakariaren legea*. Gure Herria. Baiona 1935.

12. René Lafon, “La littérature basque”. *Histoire des littératures III*. Encyclopédie de la Pléiade. Gallimard, Paris 1958, 1537.

...erraiteko, ...jakiteko, ...joaiteko.

—Onak dira, aldiz puntu hauek: ...eman, ...harrian, ...dezan; ... bethi, ...itzuli, ...sasi.

—Soinu bera maizegi edo hurbilegi agertzetik ihes egin behar da. Hala, ...a...a...a, ...e...e...e, ...ur...irr...er, ko...ko..., ...ko eta horrelakoak baztertzen saiatu behar da.

—Hitz apal, kaxkar eta zikinetik alden, eta aipatzekotan hobe poliki eta inguruka.


—Ez da erderara lerratu behar euskara garbian gauzak esan daitezkenean.

Bi hitzetan esatearren koblakariari baitezpadakoak zaizkiola bi dohai, alegia, jeinua eta jakituria. Lehena jitetik datorrena, omen, eta beraz Jainkoarengandik; bestea, aldiz, parte jitetik eta parte ikastetik. Beste moduan esanda, berezkoa ez duenari Salamankak ez diola prestatzen.

XV-XVIII. Mendeak

Irakurle-entzuleak beti gogoan, benetan ulerterraza XV. mendeko eresiez idazten duena. Ez da galtzen genealogia eta historia kontu zaharretan, ez zaio axola handirik garaiko hizkuntzaren egoera eta azterketa linguistiko sakona Mitxelenari bezala, Arakistainek asmatu istorioa oinarritzat hartuz zuzenean mamira, irakurlegoaren bihotza ukituko duena adieraztera iraganen baita.

Detxeparez duen iritzia urteekin aldatu, gozatu eta hobetsi egingo da, zeren eta 1931. urtean esaten bazigun *Zathi ederrak baditu;*



bainan —egia egiari zor— aphez batek segurik egin behar ez bezalako betarik ere parras-ta bat (EL, 7), 1967ean amodiozko kantuez beste hau adieraziko digu: *frango ausartak, denbora beietako moduan, jendea orduan orai baino arruntago baitzen, edo bederen solasetan egungo-egunean ez bezain kilika eta minbera. Haatik ez du den gutienik*

*emaztea erdainatzen, gora dauka haren obo-rea*¹³. Lehen idazlanetan laudoriak eta itzalak, alde onak eta txarrak batera badoaz¹⁴, nabari da poliki-poliki irizpidea aldatu zaiola eta gazte garaietako irkaitz latza ezitzen eta goxatzen, azkenean Detxeparearen obra "*un texte extraordinaire et de grande valeur*" (LB, 21), balio handiko eta testu aparta bezala kontsideratzeraino.

Hona hemen XVII. mendeko zenbait idazletaz ematen digun iritzia: *Materre* (*Dotrina Christiana*, 1617).

Katixima eder bat da (EL, 21).

Joanes Etxeberri Ziburukoa (*Manuel...*, 1627; *Noelak*, 1631; *Elizara...*, 1636).

Ithurriak ur hotsa bezala emaiten dautzu hunek neuthitza, bethi nasai, bethi garbi (EL, 22).

P. d'Argarignarats (*Avisu...*, 1641; *Devoten...*, 1665).

Bertzerik eztakigu erraiteko, eskuara ederki zerabilala baizik (EL, 30).

Harizmendi (*Ama Birjinaren Ofizioa*, 1658).

Lan maite bezain aipagarria (EL, 46).

Tartas (*Ontsa hiltzeko bidia*, 1666; *Arima...*, 1672).

13. Herria 1967, 23-X.

14. "Melange étonnant de piété et d'impudeur, pauvreté du vocabulaire, longueurs, souffle un peu court, tels sont les défauts de Dechepare. Louons, par contre, son esprit d'initiative, sa facilité, sa sinceri-

té, son patriotisme" (B, 35).

Lili arradoak dira (EL, 48).

Etabar. Hainbeste gutxiesten diren idazleei buruz aitortuko digu ez direla edonor, benetazko poetak baizik (LB, 24).

Axularren obrak, nola ez, besteenak baino arreta gehiago mereziko dio, eta mamiaz kritika zenbait egin ondoren hona zer dioen darabilen mintzaeraz:

*Solasa bizi-bizia doako, alde guzietako hitzez betherik, birazka edo hirunazka uztartzen dituela. Bethi xuxen doako, bethi argi, bethi gozo, gogo bihotzak atzemaiten dituelarik eta beharriak ere xoratzen. Ez du irakurlea den gutiena unhatzen, Alabainan ez derama urhatsa bethi berdin; batean hurritzen zaio lasterra, bertzean lehiatzen; hemen hatsa luzatzen zaio, bantxet laburtzen eta trenkatzen*¹⁵.

Goraipatzen digu, beraz, Axularren jakituria, itzultzeko trebetasuna, eta nola ez haren mintzaera *bizi, samur, nasai, gozo, xoragarria* (EL, 32).

XVII. mendeko poeten artean ez du ahanzteko Gazteluzar jesuita, urdazubiarraren parean jartzen baitigu. *Axular bezain miresgarria zai-ku, non ezten gorago ere ezarri behar, hain baitu eskuara laño, bakun, bero, jori eta gurbil* (EL, 51). Eta Joanes Etxeberri zubiburutarrarekin gonbaratzerakoan esango digu hau bezain ugari eta aberats ez izanikan, dotoreago, garbiago eta argiagoa dela, XVII. mendeko poetarik finena (B, 39).

Aldiz, mendeko poeta profanoaz, alegia, Oihenartez dioskuna da, izugarritzko lana egin



zuela Tibulo, Katulo eta Marot batipat gureganatzen baina artifizial kutsua nabari zaiola (B, 25). Honek idatzitako gutun batek mereziko dio mirespenik haundiena, hots, lapurtar apez bati 1665. urtean idatzitakoak, lehen euskal poetika denak eta L'ART POÉTIQUE BASQUE¹⁶ bezala izendatu zuenak.

Berri on bat zen, noski, Euskal Literatura maite zutenentzat

Michel Barbaste jaun medikuak egin zuen aurkikundea, eta berehala PLk ohar jakintsuz horniturik prestatu zigun haren edizioa. Jean d'Etchegaray, eta Arnaud de Logras poeta ezezagunen berri ematen zigun gutunak ohar jakingarri anitzen artean. Ez da aldi bakarra, PL beste okasioetan ere ikerle zorrotz bezala agertu baitzaigu, eta berak egin ez balitu hainbat edizio euskal literaturaz izango genukeen ikuspegia murriztagoa litzateke, dudarik batere gabe. Oraindik hor daude agertzeke Bertrand Zalgizeko, euskaldun poeten artean erramu boneta merezi zuena Oihenarteren hitzak erabiltzeko, edota Joanes Larrumbide oiartzuarraren bertsoak, eta PLk beste artikulu batean¹⁷ aipatzen dizkigun XVII mendeko beste bi poeta: Golar basanafartarra, eta Simon de Linçoin gainafartarra.

XVIII. mendea euskal literaturan eta bestee-tan aurre-iritziz eta mespretxuz ikusia izan da. Ez bide zuen ezagutzen, noski, XVIII mendeko bertso bilduma¹⁸ Lasagabaster irakasleak idazten zuenean itzulpena besterik ez zegoela mende honetan, edo aurreko idazlanen bermoldaketak soilik¹⁹. Arrazoi faltarik ez du, beraz, Patxi Altunak Axularren eta Sarako Etxeberriren hizkeren gonbaraketa egiten hasten denean, ohi duen

15. Piarres Lafitte, "Axular'en liburuaz", *Gure Herria*, 1956, 341-344.

16. *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenart* (1665) avec une introduction de Pierre Lafitte. Gure Herria, Baiona, 1967.

17. Piarres Lafitte, "Deux chansons de Beñat Mardo découvertes par le Révérend Père Lhande", *Gure Herria*, 1950, 294.

18. Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798). Durangoko

Udala 1987.

19. Jesús M. Lasagabaster, "La literatura vasca entre 1700 y 1876", *Noveno Congreso de estudios Vascos*. Eusko Ikaskuntza 1988, 253.

zehaztasunez dioenean: *Gure arteko zenbait lagunek uste baino emankorrago diren euskal literaturaren eremuetan —eremuetan diot, ez mortuetan²⁰—*.

Urkixok 1907 urtean argitaratu zituen Etxeberri Sarakoaren liburu ezberdinen aurkezpena egin ondoren PLk, medikuak ondo htzegiteko ematen zituen aholkuei erreparatzen die. Laburbilduz, hitzek ez dutela izan behar ez luzeegi, ez laburregi, irakurlea ez dadin fastika edota hits; eta naturalki mintzatu behar dela, alegia, lainoki, inongo apaindurarik gabe. Eta hona hemen Etxeberri beraz esaten diguna:

Baina, gazte ala adineko, deneri emaiten dauku jastatzerat eskuara gozo ospetsu bat; eta nahiz eta borrogei-ta hamar urte iragan diren Etcheberri liburu hoik izkiriatur geroztik, ez dute hain zahar ez eta hain arrotz emaiten eta mila plazerekin irakur ditazke²¹.

Ematen dizkigu XVII. mendeko idazleei buruz bezala XVIII. mendeko idazleen idaztanceraz ohar jakingarriak PLk. Mihura, Maister, Larregi, Baratzart, Robin²² (noizko donibandarrak itzuli zuen *Birjina*—roman d'édification—, alegia, euskaratutako lehen elaberriaren argitalpena?), Lopez, M.G., Haraneder, Cardaberaz, Mendiburu eta Larramendiz. Baina, azterketarik sakone-na mende hondarrean, Iraultza frantsesaren garaian bizi izan zen Salvat Monhori eskainitako liburua dugu²³. Honen "Pièces fugitives", bertso iheskorak, Haritschelharren hitz berak erabiltzearen, irakurlearentzat opari eder dira, benetazko erregaloa (HPL, 186). PLk honen azterke-



tan erakusten digun ezagutza Iraultzaz, Kontsulatuaz, Errestaurazioko giroaz eta Monhoren bizitzaz, ematen digun itzulpenak eta hizkuntza oharrak liburua eredugarri bilakatzeko dute.

XIX-XX. Mendekoak

Idazleen egutera eta ospelak adierazteko irudi bizi eta irudimen pitzzailez baliatzen

zaigu PL. Hala, supazter-xokoak eta ostatuak ipuin akademiatoak izango dira, ipuinak gehienetan lobelar, Axularren itzulketak soineko berri, eta Piarres Etxahunen bertsoak... tiroen antzeko. Hona irudia: *Aizinaxka preparaturik, aise dira haren bertsoak bain bildu, tinko eta beteak; hitz alfer guti, luzagai gutiago; eta ateraldia tiroa bezala heltzen jo bururat²⁴.*

Etxahunen bertso kaldatsuari Ibarrarten bertso baketsua kontrajarriko dio, eta ohizko koblakariei Camoussarry bezalako poeta erromantikoa. Ezagunak ditugu, gainera, Haritschelhar jaunari esker olerkari honek koblakarien aurka moldatu zituen bertso-ahapaldiak²⁵.

Ez da batere berekoi agertzen PL bere iritzietan, eta beste norbaitena egokia iruditzen zaionean inongo ezpairik gabe azaltzen digu, hala nola Etcheparek bere *Buruchkak* liburuan Ibarrarti buruz ezarritakoak:

Ezagun da zer koblari den; erran nahi dut hoberenatarik dela, ez baita orobat Eskual-herrian nehor nausitzen zakonik, non ez diren Elissamburu eta Zalduby. Gozoak dira haren bertsoak; asetzen daukute beharria; ez datxikite elhe alferrik; baditeke ez duten bihotzari min egi-

20. Patxi Altuna, "Axularren eta Sarako Etxeberriaren hizketa", *II. Euskal Mundu-Biltzarra*. Gasteiz 1987, 285.

21. Herria 1965, 7-VIII. Radioan emandako hitzaldia.

22. Honen poema batez haxe dio J.A. Chahok: "véritable chef-d'oeuvre du genre gai et caustique, dont il serait difficile de trouver l'équivalent dans la littérature populaire d'aucune autre nation de l'Euro-

pe" (*Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan*). Baiona 1855, 170).

23. Piarres Lafitte, *Poèmes basques de Salvat Monho* (1749-1821). Ikas, Baiona, 1972.


*ten atseginarekin edo beren argiaz lilluraturik uzten izpiritua; bainan hunkitzen gituzte gure gizontasunean*²⁶.

Francisque Michelen obra-
ren berrargitarapenaren hitzau-
rrean²⁷ egilearen beste zenbait
idazlan komentatzen dizkigu,
eta bidenabar hark antolatuta-
ko poesia bilduma, esanez,
beste herrialdetako literatur
emaitzekin konparatzen dituenean euskaraz-
koak, artifizial samarrak diruditela gonbarake-
tak, haatik mereziko lukeela bide urratze horri,
exenplua ona denez gero, jarraitzerik.

Baditu PLk frantsesez soilik idatzitako zen-
bait literatur kritikan, hemen aipatu beharrak,
gehienetan euskaraz eta frantsesez ematen ohi
zituen arren albisteak, irakurlegoaren arabera,
noski. Horien artean bat Hiribarreni buruzkoa²⁸,
non idazle eta euskalari hau aukezten digun,
areago bertsogile poeta baino, baina erritmoa-
ren zentzu handi eta hiztegi aberats baten jabe
bezala. Bestea, B. Bordaren hexametroei eskai-
nitakoa, euskarak dituen bokalek kantitaterik ez
ukan arren, honen erregelak esplikatzuz²⁹.

Dena den, ezin uka PLk gazetaritzarako jai-
dura berezia izan zuenik, eta lan hau zein gogo-
rra den ongi jakinik egin nahi izan zien bere
aitzaindariei omenaldirik. Hala, J.B. Etcheberri
Almanakaren aita (1806-1898) deitu artikulua
eskainiz, eta Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) bere
maisutzat zeukanaren idazlan mordoak zenbait
liburutan bilduz. Honen idaztanceraz komenta-
rio haxe egiten digu:

*...eta hari baizik ezagutu ez diogun
harrigarriko elasturian bazeraman bere*



*solasa: batean motz eta idor,
bertzean luze eta guri; han
bil, hemen harro; beti airos,
beti bizi; gatz, biper, ozpinak
merke; basarre-bultza gehie-
nen artetik ere irria eta zir-
toa iturriaren pare punttala-
kotik bazarizkola* (HPL, 185).

Beraz, Lafittek gehien esti-
matzen duena idazleengan za-
lutasuna eta arintasuna, ahalmen
guztien erabilera da, eta gaitzes-

ten ditu hizkuntza molde hertsu batzuetan estu-
tu nahi dutenak, mugarriak ezarri nahi dizkiote-
nak hesparuari, halaxekoa baitzen Hiriart-
Urrutyren idazmoldea, arin eta jauzikaria. On-
dorengo PLren komentarioak ere ez du ezer
galtzekorik:

*Hastiago zituen erdaratik hurbilegi
zauden hitzarrimuak, nabiz huntan ere
ez zen Azkue edo Altube batzu bezain
hertsu: euskara ez zuen preso atxiki gogo,
ez populuak ez izkiriant zaharrek nehoiz
ezagutu lege tinko batzuen gatetan.
Fantasia poxi bat ba ahal doako Eskaldu-
nari ere eleka ari denean: batean hitz-er-
dika, bertzean hitza doblatuz, aditza noiz
ken eta noiz ezar, hitz batzuen lekuan
hemen behin antola, gero han. Hiriart-
Urrutyk zumea bezala bazerabilkan es-
kuara, gogo-bibotzak eta aldarteak gida-
ri* (HPL, 185).

Bada, bai, hor, ondo idazteko aholku
ederrik!

XX. mendekoez dioenaren aurkezpena egin-
go dugu orain. Hogeitabi artikulua bildu ditugu
sail honetan, eta ororen artean ematen den
ikuspegia aski zabala eta osoa dela uste dugu,

24. Piarres Lafitte, "Pierre Topet Etxahun (1786-1862)", *Gure Almanaka*, Baiona 1970, 56.

25. Jean Haritschelhar, "L'anti-bertso-
larisme dans *Basa Koplarari* (1838) de

Jean Baptiste Camoussarry" (1815-1842).
Donnés sur l'étude des mentalités au XIX-
siècle", RIEV, Donostia 1986, 97-112.

26. Piarres Lafitte, *Piarres Ibarrart-en
Koblak*, Herria, Baiona 1948, iv.

27. Francisque Michel, *Le Pays Basque,
sa population, sa langue, ses mœurs, sa
littérature et sa musique*. Paris 1857, 2, edi-
zioa, Elkar, Donostia, 1981, XI.

28. Piarres Lafitte, "Jean-Martin de Hiri-

bertsolariak, saioak, elaberriak, antzerkiak, itzulpenak baititu aztergai.

Jean Etxepare jaun medikua joko du mende honetako maisurik handiena bezala. Ez bada-go batere pozik haren gazteta-ko ausarteriekin Haeckel eta Nietzsche-ren liburu "kiretsak" zirela tarteko, estilista paregabeak bereganatuko du eta adieraziko maisuaren lumak ez duela batere ikuilu usairik eta saloietan ibiltzeko gai eta duin dela:

Etxepare mirikuaren eskuara segurik burua gora badaguke nun nabi; ez dio frantsesari berari deus zorrik ez soinez ez soinu: jaun emaiten du; usaian baino jaunago menturaz; ez ordean behin ere jaunegi, aberastu berri ergelaren pare[...] Errana dugu lehenago, eskualdun izkiriartzaleen nausitzat baginaukala. Hitz hortan gaude... (HPL, 184-185).

PLk hegoaldeko bi idazle handirekin izan zituen eztabaidak ekarriko ditugu orain hona. Nikolas Ormaetxea "Orixe"rekin eta Jokin Zaitegirekin izandako sesioak, hain zuzen 1931 urtean Mistralen Mireio "Orixe" itzuli zuenean honela komentatzen zuen *Gure Herria*-n:

*Mistral baten asmu, olde eta gogoetak, diren bezain gora, sakon eta biguin izana gatik, eskuarak hain ontsa jaunzten ahal dituenaz geroz ez othe liteke ordu, guri ere sor dakigun lehen-bai-lehen Mireio bezalako irakurgai berri, maite, aipbagarri bat?*²⁹

Aitzolen iritziko agertzen zaigu hemen. Baina urteak pasa eta "Orixe" *Grammaire*



Basque... delakoari egin zion kritikak hainbeste mindu zuen, 1947 urtean Gernika aldizkarian honela erantzuten ziola:

Haatik ez dut onhartzen sartu nabi dautazun ziri hau; "itsasoan dugu igeri egin beharra, eta gaizki ari danari erraitea merke da", Jaun olerkaria, gramera erdaraz ager-arazi dut, bala da; bainan eskuaraz ere

*badut zebaitchka eginik orai artean. Eskualdunean zazpi urthez izkiriatu dut aste guziez; Gure herrian bamar urtez segurik athertu gabe; Almenaketan, urthe oroz hogoi urthe huntan, hirurez salbu. Herrian, badakikazu, pochi bat bederen ari nizela. Liburu zenbait ere argitaratu ditut eskuaraz; eneetarik hamar bat; bertzenetarik zortzi, nibauk eginikako aintzin-solas batzuekin*³¹.

Minbera nabari zaio, eta ez zen gutxiagorako, Orixek bota baitzion besteei erakusten hasi aurretik zerbait idatzi beharko zuela euskaraz. Erantsiko dio, beraz, ez dela batere harritzen Orixek ez ezagutzea bere lanak, oso balio guti dutelako eta, noski, Parnasoko hedoietaraino higitzeko ez direlako gai. Baina, ez zen horretan gelditu auzia. Orixek argitaratu zuen *Euskaldunak* eta honen komentarioa egingo du orduan PLk³². Hiribarrenen *Eskaldunac* (1853) poemarekin eta Barbierren *Piarres* (1926) elaberriarekin gonbaratuko du, itzalen artean aurkitzen dizkiolarik: batasun eza, zati prosaikoak, lehorra, eta hieratismo arnas gabea. Halere, balio anitz ere baduela aitortzen du: aberatsa, oso ondo dokumentatua, eritmoen ugaria, folklore

barren (1810-1866)", *Euskal-Herria* (1789-1850). Société des amis du Musée Basque, Baiona 1978, 181-198.

29. Piarres Lafitte, "Les hexamètres de B. Borda (1854)", *Fontes linguae Vasco-*

num, Iruñea, 1978, 493-523.

30. Piarres Lafitte, "Mistral'en 'Mireio' Eskuaraz", *Gure Herria* 1931, 30.

31. Piarres Lafitte, "N. Ormaetxea jaun olerkariari ihardespena", *Gernika, Eusko*

Jakintza, V-VI, Baiona 1917, 705.

32. Piarres Lafitte, "Nicolas Ormaetxea (Orixe) *Euskaldunak*", *Ikuska*, 1-3, vol. 4, Sara 1950, 73-74.

album jigantea, laborantzako kalenderra jeniala, Hesiodo eta Birjilioren adiskide handi batek soilik eta Euskal Herria benetan oso ondo ezagutzen zuen batek idatz zezakeen obra ederra. Beraz, itzal zenbait kenduz euskaldun batek sor zezakeen poemarik handiena.

Itzulpenak direla eta izango du zeresanik. Zaitegi, Ibiñagabeitia, eta Onaindiaren lana goraipatuko du, baina beste lan batzuek premiazkoagotzat jotzen ditu. Zaitegiren teatro itzulpenaz hau esango du, hain zuzen: *Zerpentsa Sopokeleren trajeriez? Errazago direla grekeraz euskeraz baino*. Platonen itzulpenari hitzaurrea ezarri zion, baina pentsatuz talentu bat galtzen ari zela, ez baitzuen uste horrelako lan itzel eta gaitzak izango zuenik irakurlerik. Halere txalotuko du idatziz: *Gora zu, adixkidea, eta denen partez, eskerrak milaka*³³.

Birjilioren obra osoa itzulita argitaratu zutenean Onaindiak eta Ibiñagabeitiak haxe idazten zuen Herrian: *Euskal-unibertzitate edo Ikas-tegi goien bat eraik baladi egun batez jalgi berria daukuten itzulpena arras baliosa litake, goreneko mailean litazken ikaslentzat. Anartean badut beldurra irakurle gutti izanen duen, zeren holako lan batek ez baitu oraikotasunik*³⁴.

Gaur eguneko oraikotasunak eta premiek kezkatzen zuten PL. Irakurlego xumearekiko harremanak, ondoaski ezagutzen baitzuen nolakoa zen horixe astekarian hainbeste izerdi, buruhauste eta gogo-bihotz eman ondoren, XX. mendean barrena euskal literaturan ematen ari ziren aldaketa batzuek ez zituelarik oso gogoko.



Hona hemen saio, antzerki, elaberri eta olerkiaz pentsatzen zuena labur-labur bildua:

Euskarazko entsegu egile guti. Aipa ditzazkegu halere Etchepare medikua, Jon Echaide, Luis Michelena, Etienne Salaberry, Txillardegi, Iñurritza, Villasante, Azurmendi, Aita Zabala, Aita Inchausti, eta Kardaberraz, Jakin, Ipar, Etor, Gero,

Auñamendi edo Itxaropena bildumak hazten dituzten haimbertze idazle!

Laurogei urtetik barne eskuarazko teatroak atera ditu 540 bat antzerki, betan konda baititazke hogoi bat opera. Ikus Labayen jaunaren Teatro euskaro. Antzerki hoietarik askok indar guti dute: alabainan luzaz abamen ttipiko, aditza-leak izaki! Bainan, egia egia zor, urrats handiak egin dira aintzina, Labayen, Monzon, Larzabal, Zubicaray, Aresti eta traka hortako jauneri eskerrak, nahiz zonbait lasterregi abiatu diren, Camusen "Les Justes" bezalako berrikeriak euskaraz emanaz.

Euskarazko ele-berria nekez abiatu zen Piarres Adame eta Atheka luburuxkekin hemeretzigarren mendean: ipui batzu baizik ez ziren. Domingo Aguirreraren Garoa eta Kresala xutik daude, nabiz-ele-berriak egin duen bide 1912tik hunat. Opa ginezake maisu xaharra bainoa-goak balira geroztikako idazlariak: pondu batzuetan gainditu dute Anabitarte, Erkiaga, Echaide, Pellen, eta bertze batzuek. Bizkitartean ez zaigu iduri Txillar-

33. José M. Velez de Mendizabal, *Iokin Zaitegi*. Arrasate 1981, 148.

34. Herria 1967, 9-III.

35. Piarres Lafitte, *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*, Gure Herria, Baiona 1974, 19-21.

degi bera ere bete-beterat heldua den. Halare zuzengabeki arbuia litazke Barbier, Irazusta, Eizaguirre, Gereño, Mirande, Zarate eta balakoak.

Olerkia, edo bederen bertsoa, beti danik estimatua izan da Euskaldunen artean. Hor dira lekuko milaka Manterolak, Azkuek, Donostiak, Zavalaketa bertze bilketari batzuek argitaratu kantuak. Lekuko bertzalde Santi Onaindiak bere loretegian ezarri dituen 1013 olerkiak eta aipatu 280 olerkariak. Berriki arte teknika xabarri atxikiak ziren olerkari eskolatuak ere eta erromantiko kutsuak jotzen zituen gehienak. Egungo egunean, gai ala molde, oro berritu dira olerki lantuetan. Olerki agerkaria irakurtzen duenak edo so bat egiten Oxobi, Iratzeder, Lizardi, Lauaxeta, Jauregi, Zaitegi, Aresti, Amilaitz, Lete, Mirande, Erkiaga eta bertze batzuen bertsueri, ezin uka dezake aldakuntza. Denak ez badira ere "Surrealismoari" bat-miñot lotuak, aspaldiko modatik arras urrun daude³⁵.

Aipamen luzea izanik uste dugu izen zerrenda horretan bilduak daudela mende honetako idazle garrantzitsuenak, norbaitek esango badu ere, ez direla dauden guztiak eta diren guztiak ez daudela! Noski.

Nabarmena da PLrengan Herri Literatura baten aldeko jaidura eta joera, uste baitu euskal idazleak irakurlerik nahi badu bere marfilezko dorretik jaitsi behar duela eta herriaren hizkera



arruntean mintzatu. Hauexek ziren bere hitzak 1971. urtean: Iduri zait gure literaturak ba duela herritartzearen beharra. Jauts bedi ixtant bat ilargi hedoiatarik lurrerat, baserrietarat, karrika edo kaletarat, gero emeki-emeki, goratuko digu berriz ere, herriaren kultura aberats arau³⁶.

Ilargiaren hedoietatik eta adarretarik jaitsi behar dela, egunoroko jende arruntari hitz behar zaiola uler dezan moduan aitortzeak ez zion PLri haatik, euskara ez landu batetarantz lerratu, alderantziz baizik. Bere gramatikan proposatzen zuen naparlapurtera hautatu zuen horretarako lapurtera klasikoa pixkat baztertuz, kostaldeko jendea erdaltzen ari zela eta, euskal jende kopuru gehiena barnealdeko zenez³⁷.

Batasunaren, beharra ikusiko du eta gora behin baino gehiagotan aldarrikatuko, halere kontu handiz burutzeko omen egitekoa adibide hau ematen digularik, maionesa: ...*maionesa badakizue nola egiten den: ezartzen da ontzi batean, ta gatzta ta piper beltza, ta horiek oro, ta, azkenean, ezartzen da arrautza bat ere, gorringoa; ta gero, —horiek oro behar dira jo eta jo, baina gero olioia ezarri behar da, bere olioia tantaka isurtzen da; sobera ezartzen baldin badugu, huts egiten duzu zure maionesa. Eta, ene ustez, behar dugu bolako gauza bat egin eskuararekin*³⁸.

Ez dakit oso gogoko izango zuen egungo maionesa!

36. Piarres Lafitte, "Gazte bati Literaturaz", aip. art., 1971, 199-200.

37. "En beneficio de un navarro o navarro-labortano, nueva koiné escrita que fue desplazando a la anterior. Como codificador mayor

de esta tendencia triunfante aparece Pierre Lafitte" (Luis Michelena, "La norma escrita de una lengua: el caso vasco", *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madrid 1985, 222).

38. Piarres Lafitte, "Batasunaren Bideak", *Jakin*, 31-32 zb., Oñate 1968, 65.

LIBURU KOMENTARIOAK

3

KOMENTARIOGILE



AMAIA ITURBIDE

*Pinturaren eta poesiaren
arteko ortzadarra*

BITORIANO GANDIAGA

Ala-deltan olgetan

JUAN LUIS ZABALA

*Ezta nahita ere
(edota kritikaria eta idazlea)*



BITORIANO GANDIAGA

Ala-Deltan olgetan



Urtarrilaren lauko bazkalosteko paseoan nintzen. Berez bururatu zitzaidan eguerdi aurrean irakurri nuen Patziku Perurenaren IRUDIMENAREN LABERINTOA HUTSIK DAUKAGU ORAINDIK. Bitxia komentario-arenga Perurenarena. Arratsalde argiaren eta garbiaren barruz-barru nindoan Urbiara bidez, neure buru errota-txoari libre utziz, Patzikuren aleak bere gogara eiho zitzan. Patzikuk damaizkigun poesiari buruzko sententziez aparte, dudarik ez dago poesia zer-zer den sobera ere gauza handirik ez dakigula. Esate bat da.

Dafneak loretan zeudela iruditu zitzaidan, baina ezin sinestuz, makurtu egin nintzen hurbi-

lagotik begiratzeko eta, bai, loretan zeuden eta ezti usain gozoz. Aspelar edo sasi-nartzisoren bat ere ikusi nuen bere kukulu horia zabalik, eguzkitara.

Poesiari buruzko edozein *zirtzilkeria* gustatzen zaidala esango nioke Patzikuri. Noski, Aristotelesen logikaz gaindi edo kanpo dagoela poesia. Beno, niri neuri ere hala iruditzen zait eta iruditu izan zait. Zenbat aldiz eraso ote nion Villasanteri, Aristotelesen logikaz landa dagoen edo usmatzen, edo usmatu uste dudan beste erakarpen edo ondoriobide ederrik badagoela ekinez. Lehen-argitalpeneko ELORRI-ren atari-hitzetan aipatu ere egiten du Villasantek Aristotelesen logikaren arauetz bestelako jokabide hau 12, 13, eta 14. orrialdeetan. Bestalde, Aristotelesen berak ere, oso azkarra bide zenez eta ia tajuzko gauza guztiak esan bide zituenez, arteari buruz —poesia arte ote da?— zera esan omen zuen: “Artearen xedea ez da antzirudiak kopiatzea, gauzen esentzia sekretuari gorputz ematea baino”.

Baina hau egunaren argia! Urbiako ataka Elola-buruan geldi geratu naiz Gorbearantz begira. Zeruko anilaren anilak irrist egin du eta mendien laiotzeko aspilduretan kokatu da. “Poesiak ez du deus ikustekorik *jakitatearekin* eta *pentsamenduarekin*” dio Patzikuk. Ongi esana deritzat (!). Poesiak pertsonarekin eta haren ahalmen ohartzaile edo pertzeptiboekin bait dauka bere ikusteko guztia, eta *jakitatea* eta *pentsamendua*, gizabanakoaren gaitasun eta dohain pare *ez berezko* eta *kasual* baizik ez dira. Besterik litzateke pertsonaren eta haren fakultate eta lorpenen artean *jakitatea* eta *pentsamendua* ere aurkituko bagenu. Alegia, personak ez lukeela zergatik alderat utzi *jakitatea* eta *pentsamendua*, poesia egiteko, irakurtzeko, dastatzeko, aintzat hartu, estimatu eta balioztatzeko. Pertsonari gehiegi eskatzea litzateke hainbat ahaleginez inguratutako ondarea une labur batez izanda ere enoratu, lekoratu eta astandu dezan erregutzea.

Zabalaitzpeko iturria itsu eta mutu aurkitu dut, ez uraren faltagatik, hodian zerbait trabatzaile sartu bide zaiolako baino. Aldamenetik darion jario ugari berritsutik edan behar izan dut. Bai gardena eta jostaria ura! Hona, Patzikuk aintzinako amonez dioenaz hementxe oroitu: "onomatopeia xarmagarritz, erritmo liluragarritz, musikaltasun xoragarritz kantatzen zituzten haur kantez geroztik, apenas egin dugun poesiarik, *poematto* bakanen batzu salbu". Tamalgarria. Zenbat hodi butxatu, opilatu! Besteak beste, etxeetaraino, kiroldegietako igerilekuetaraino, parkeetako iturrietaraino, plazetako urmael ur zutidunetaraino uraren grazia eramateko bestetarako ez diren hodi dohakabeak! Handia badi-rudi ere, amona haien *jakitateaz* Patzikuk ez dio deusik —ez ote zekiten ezer? ez ote zuten bizitzako gorabeheren, ikusien, esperimentatuen eta ezagutzarik?—; alabaina berehalaxe aipatzen du *pentsamendua* bere ihardunean: "poesiaren ganbara zaharreraino heltzeko sakon eta luze pentsatu behar dela" dionean. "Asko pentsatu behar dela" gehitzen du, "non pentsamendua gainditu egin behar den" —zer gauza polita! — "atzeratzen haur baten inozentziaraino bihurtzeko". Hunkitu egin nau.

Urbiako kapera atarian ohizko agurmariak erreztatu ondoren, etxerantz itzuli naiz. Ea lauterdiak baino lehen gelaratzen naizen. Maldan behera iada, neure haurtzarora begira jarri naiz. Zenbat ume-zaintze aita basoetan eta ama so-roetan ziren ia gehienetan. Nire adinekoak eskolara zebiltzan, baina ni sasi ertzetan lotzen nituen ahuntzak baino eskolatu gabeagoa nintzen. Artean ere kantatu egiten nuen behintzat, aitari eta amari jasotako kantazaharrak, elizan ikasitakoak, artzaiei entzundakoak, eta neuk asmatzen nituenak. Etxeko abere, basapizti eta hegazti ahotsen imitazioez gainera, haizearen, euriaren, iturrien, erreken, kateen, plateren eta beste soinu askoren antzekoak egiten ikasi nuen anai-arreba txikien entretenigarri. Berriz ere ELORRI liburu iada zaharra aipatu behar dut.

Han bada honako bat:

"Ota-txoria:
trik, trak, trak...
Ota-txoria:
ma-sus-trak."

194. orrialdea edizio zaharrean

Aitortuko al dut? Basarteko jaiotetxe hartatik noizik noizera eskolara joaten nintzen, eta behin eskolaurreko arkupetan pelotan genbiltzala, huts egin eta nesken aldera joan zen gure harizko miseria borobil hura. Han Sabinak atzeman zuen eta ez zigun itzuli nahi. Orduan harengana joan nintzen, harrapatu nuen, eta ia lurrera bota nuenean, maistra oilaloka etorri zen, heldu zidan belarrietatik eta, ikaragarritzko erretolika zioen bitartean, nesken komunera eramanez ninduen preso. Beno. Han nengoen ni komunean eta lehen onduta nuenari zera erantsi nion:

"neskek txix eitten
daben lekuen
preso sartu nau
ma-is-trak!"

Hau da baina! Jesus, bidea galdu dut, ez etxerakoa, Patzikurenganakoa baizik. Zera esatera nindoakion Patzikuri, alegia: a) haurtzaroko inozentziarik ez duela pertsonak galtzen adimenaren garapen intelektualarengatik, eta b) *jakitatea* eta *pentsamendua* berebiziko mirabe, lagun edo urgazle izan dakizkiokeela poesiari, beharrezko ere ez bazaizkio behintzat. Poesia ez da hutsetik sortzen, ezin daiteke. Poesiak eraikuntza elementuak behar ditu: euskarriak. Amonek, zekitenaz, ezagutzen zutenaz, pentsatzen zutenaz baliatu ziren beren kantuak sortzeko eta ontzeko. Ezagutzen zuten sehaska, ezagutzen zuten sehaskaren hotsa, ezagutzen zuten sehaskan zetzan haurra eta, sukaldeko argitzalean, erdi-ilunean, altzarien ingurua ezbaikoa zen hartan, erraz pasatzen ziren zurezko sehaskaren hotsetik *kunkunera*, *kunkunetik kuttunera*, lurrunera urrunera,

begitazio, aierupen, oroitzapen, irudipen, fantasia eta pentsamendu edotariko berealdikotara.

Amonek *haur kanteak, lo kanteak* edo *jolas kanteak*, kantagaien eta kantu horiek gauzatzen dituzten elementu eta euskarrien ezagupen ondo begiratu, ohartu, hausnartu, egosi eta berengantua agertzen digute. Nola eman bestela *onomatopeiak, erritmoak, musikaltasuna*, xarma, lilura, xoradura?

Ezagutzen nuen otaxoria, ezagutzen sasía, ezagutzen mazustak eta, tak, aldegin zidan triktrak. Barka biezat otaxoriak, Montserrat Caballé bururatu zaidalako. Patzikuk du errua. Ixo! Eskerrik asko, Patziku. Zuk badakizu kantagai dela Montserrat, agertokirik galantena beteko kantari miwesgarri sekulakoa. Ez naiz luzatuko ez haren deskribapenean, ez haren kantuak eskaintzen duen gozamenen. Zera nahi dizut gaztigatu, hots, barreak aparte, hari jasotako poemak, otaxoriari jasotakoak ez bezalako elementuak eta euskarriak beharko lituzkeela: hasteko beste planteiamendu bat, eta jarraitzeko beste garapen bat eta beste lengoaia bat. Lengoaia birkalkatuko nuke, batez ere. Lengoiak ederra beharko luke izan, irudietan ugaria, egokia eta adierazgarria, Montserrat eta haren kantua-ren neurrikoa; eskola, eskala eta dirdira handikoa; *jakitategia* eta *pentsamenduz* aukeratu, landu eta emana. Baina emateko moduak ere badaude eta zenbat! Ur guztiak ez dira *xirripa* bezala ateratzen; zirrizta bezala, zarrasta bezala, zurrutza bezala eta abar ere azaltzen dira; "erritmo bixi arin xarmagarria"z gainera, hotsen, soinuen bolumen eta konpas ezberdin asko eta askotarikotan; eta "xarmagarri" ez ezik, atsegin diren beste agerbide ikusgarri, miragarri, txundigarri hamaikatzotan.

Ibiltaldiaz gustatua ailegatu nintzen Seminaria. Gezurra ematen du Urtarril hasi berrian horrelako egun argi eta ederrak. Nik ez daukat Yon Kortazarren LABERINTOAREN OROIMENA, eta ez dut irakurri ere egin. Urbiara joan-etorrian buru-entreenigarri erabili nuen Patziku

Perurenak LABERINTOAREN OROIMENA liburuari egindako iruzkina berrirakurtzeari lotu nintzaion. Oporretan geunden eta oporren atsegina bizi nahi nuen eta ni Patzikuren iruzkinera. Gazte-bulkadaz beterik dago, zerbitzari berri gartsuen lehia berroz, maite duen poesiaren —ur garbi eta inozenteen— ezkutari fier; baina ezpata ez darabil oraindik guztizko trebetasunez. Kolpeak bai, kolpeak banatzen ditu, baieztape-nak diot, "*arrazoi handiak, egia biribilak*", eskua baino handiagoak, eta ez die behar bezain ondo heltzen, irrist egiten diote.

Ez dio axola. Ikasiko du harri handiegiak baino eskuan erraz kabitzen diren harrikoskorak manaiagarriagoak direla eta efikazagoak. Dena ikasten da ibiliz. "Poesia kasik ezagutzen ez dugun *laberintoa* da oraindik guretzako; etab.." *Laberintoa*, definizioz, artifizioz edo arterioz egindako ibilbide nahastu eta irtenbide oso zaileko eraikuntza da. *Artifizioa*, berriz, artezko, agudeziazko eta trebetasunezko ariketa edo iharduna. Nora goaz, adiskide? Poesia laberinto bezala ideiatzen baduzu, ez ote diozu poesia artifizioz egindako eraikuntza dela? Baina gaizki ulertu ez badizut, ez da hori poesiari buruz eman nahi diguzun zure ikuspegia. Orduan poesia ez da laberintoa. Zer ote da?

Terrazara irtetzeko tenta-tenta eginda nago, obserbatorioa dagoen terrazara. Noan. Zoardia tipil dago. Jakitunek eta pentsamendu-gizonek, zerutar ganga itzel hori, ageri zaizkidan halako beste milioika astroz eta astroz infinitoan barrena loretua dagoela diote. Jakitunek eta pentsamendu-gizonek diotenez lagundurik, hau irudi-menaren txangoa!

"Y más allá de todo lo visible,
qué es lo que hay del otro lado del espacio?
Allende el infinito,
di, Aldebarán, qué resta?
Dónde acaban los mundos?"

(Unamuno, RIMAS DE DENTRO)

Intzentsuaren kea katedral handi bateko
argiontzi piztuetan zehar bezala dabilkit irudi-
mena goietatik goietara,

“De vosotros, celestes jeroglíficos
en que el enigma universal se encierra,
cuelgan por siglos
los sueños seculares;
de vosotros descenden las leyendas
brumosas...”.

(Unamuno, Id.)

eta hainbeste izarren argi ederrek zorabio
gozoz mozkortu nau eta esertzera noa, begita-
zioaren gozotan murgiltzera. Zein erreinu eta
errainu zoragarritara garamatzaten jakituriak eta
pentsamenduak. Eurei eskerrak mia eta dasta
genitzake bestela ez ezagutu ez gozatu ezingo
genituzkeen eremu aberats, jori eta gozoak.
Zein ongi, “mila irudipen lilurak ehundutako”
“ala delta”z, “irudimenaren erresuma” librean
ikusten, sentitzen eta amets egiten duguna ahal
dugun baliabide guztiez kantatuz.

Dakidantxo dastatuz,
pentsamendua haztatuz,
irudimena sustatuz,
arnasa edo lurrin argi bat
sortu zait hitza eskatuz
z z z z z z z z z z z z z z z z

z z z halabeharrez
oroimenaren zeharrez,
gustoa bide meharrez,
txispa bizia limur dezakeen
hots juxtuaren beharrez
z z z z z z z z z z z z z z z z


z z z asko ibiliz
galerietan irrikiz
tresnak hartu eta itzuliz,
zer lanak, koño, nahi bezain laster
nahiena ezin atxekiz
z z z z z z z z z z z z z z z z

z z z ahalegin osoz,
behin eta berriz erasoz,
bide bihurri nekoso,
arnasa eta eskatzen zuen
hitza, elkargana datoz
z z z z z z z z z z z z z z z z


z z z lehendanik kirikaz,
gero elkarren irrikaz,
batzandu dira kilikaz
beti guztiko ballet iaioan
erritmoz eta musikaz
z z z z z z z z z z z z z z z z

OHARRA

“Liburu komentarioak” deitu atalean ageri
den Patziku Perurenarenak irakurri eta idatzia
da horrako hori. Gero jakin nuen nor den Patzi-
ku Perurena. Arraio Patziku! Patxi Perurena zen
nik ezagutzen nuena, ez aurpegiz aurpegi, bai-
na bai hain gustora irakurria nuen EMILY libu-
ruaren bidez. Geroztik KANTUTEGI ZAHARRA
ere gozamen handiz irakurri dut. Hau berau bai,
hau Patzikurena da. Nik ez daukat liburu bikain
eta onargarri horien egileari zer tronpa jorik;
mirespena, atsegin agurra eta esker ona besterik
ez diot eta zor.



AMAIA ITURBIDE
*Pinturaren eta poesiaren
 arteko ortzadarra*



Pintura eta poesiaren arteko lokarriak nabari ageri dira, Eusko Jaurlaritzaren 1988.eko "Lizar-di Saria" lortu zuen *Argiaren barne-distantziak* liburuan. Etengabeko paisaiaren barneratze-bidaia da pintura, poesia bezalaxe. Pintorea den poetaren begiak sakonera lerratzen diren begiak dira. Eta badago argia baino paisaia sakonagorik? Izate, tonu eta ñarbardura anitzetako argiaren, eta honen ahizpa bikia den ilunaren eskutik, bizitzari buruzko filosofia oso bat eskeintzen du Imanol Irigoienek, konfigurazio sendo eta nortasun haundiko poemario kontzeptual honen bidez.

Ikustekoa da, baita ere, liburuaren azala, egileak berak margoztutako koadro bat erakusten duena. Erdi zabalik, zeharkatuta izateko gonbidapen-keinuaz agertzen den ate hori iragan ondoren honako inpresioak jaso ditut pintzelada solte-tinkoak diruditen poemetatik: unearen gorespina, zenbait zertzelada inpresionista, espazio geometrikoak, simetria ikasiak, kolorearen izaera eta hizkera joria eta, azkenez, irudien arteko irisazio-jokoak.

Jasotako inpresiook margoaren aldare den udazkeneko pago baten ostoetan bezala agertzen dira. Osto baten pleguan, Imanol Irigoienek Argia benetako izaeraz janzten edo biluzten jakin duela irakurtzen dut (zenbat adjetibo desberdinez lagundurik doan argi hitza liburuan gaindi!); beste osto batean, argia dela medio, halako zilarrezko zantzua uzten duen atmosfera opa diela poemei; hirugarren batean estetika erlijiosoak, argi-itzal luze-meheaz osatutako katedrala, beti zerbaiten bila doan eta joate horretan egiten den gizakiaren sinbolo; laugarren batean, zitak erreferentzia argitsuak direla, egileak zein poeta eta filosofotatik edan duen antzemateko; eta bostgarren batean gizonarenganako sinismena.

Lizardiren irakurle fidela den poeta honek osotasunaren kontzeptua gogoratu egin digu. Azken aldian eta zenbait poema-libururen kasuan, munduaren ikuskera zatitua eman zaigu, oraingo honetan, oster, batasunarena. Poema luzetxoen ondoan laburragoak tartekatzen dira, baina ez dago batzuen eta besteen arteko zatiketarik, forma desberdin bati badagokie ere. Guztiak, kolore umotuaren tenperaturaren legepean bilduta, filosofia baten pentsamenduhari ordenatuak dira.

Neu ere pinturaren eta poesiaren arteko ortzadarraren paisaian bizi izan naizelako eta beste batzuk bizikide ditudala konturatzean, atsegin haundiz hartu dut *Argiaren barne-distantziak*, irakurri bakoitzean kristalezko poliedro bat bezala mugitzen zaidan liburu hau.

Poesia objektu maitagarria denean

Ízatea oroimenean daukan Iñigo Aranbarriren *Dordokak eta elurrak* izenburuko liburuak denbora zaharrarekin, iraupenarekin eta haurtzaroarekin konektatzen gaitu, euskera bezalako hizkuntza zahar batekin, afektua bezalako sentimendu zahar batekin. Egileak berak adierazi zuen Europako tradizio aberatsaren ibilbideak errekorritu zituela sinboloen klabeak erabiliz eta horrela dordokak eta elurrak euskerari zegozkion pista eman zuen. Dibujatzen duen maparen leku batzuk hauexek dira: Grezia, Aldude, Biarno, Nurenberg, Zuberoa, Nafarroa, Venezia... eta kanpo bidaia honekin batera bere baitarakoa ere, gogoratzea itzultzea bait da.

Epilogo Koldo Izagirrek egin dion liburu honetan, *Jonas Poisson* bataiatu zuen hartan bezalaxe, nekez aurkitzen da erreferentzia zuzenik, zehar bideetan barreneko idazkeraren alde jokatzeko du, mimetismoagaitik, agian, Bilbon zazpi urte eman bait du. Izan ere, Bilbo den laberintoak bakoitzari modu desberdinez eragiten digu.

Serbilleta mutur batean idatzi edo sakelari eramaten direnetakoen arima dute poemok: aztarna ñimiñoen kadentzia, finezia, poetari maiteenak zaizkion gauzen bilduma (koadroak, grabatuak, apoarmatuak, irakurketak...) exotismoarenganako lilura...

Batetik mina, gordintasuna, hotza eta, bestetik, maitasuna, lagunak, beroa; bi mutur hauen arteko mugan zirkulazioak marrazten ditu, marginaioaren kutsuzkoak edo askatasunaren lurraldeak izan daitezkeenak. Batzutan, urgen tziaz idatziriko apunteen antza hartzen diet esaldiei, bestetan, aire barearena. Bi tentsio hauen artean gauzatzen da bizitza, poema. Adjetiboek indarra dute: ez zaio apaindurari gelditzea laket,

esan egiten du eta mezua zama sinbolikoz kukutua egongo da.

Eritziak eritzi, goazen irakurtzera Iñigo Aranbarri berak zer zioen urtarileko *Egin* batean, Bilbo-Hego Uribeko edizioan (1990/01/24) agertutako elkarrizketa batean: "Lotsatu egiten gara, beldurtu, Bilbao honen hizkuntzan mintzatzen, hain kobardeak gara. Beldur gara ez ote digun Bilbao madarikatu honek arima ohostuko..." Eta geroxeago: "Kobardea naiz, pentsatzen dut. Ihesian nabil agian. Ez naiz kale hauek hizkuntzan mintzatu, eta begiak zabalik izan. Baina beharrezkoa al da hizkuntza zail horretan mintzatzea? Horrela mintzatu al zen benetan Gabriel Aresti Segurola? Eta Estepan Urkiaga hura? Eta asteasuarra?" Aitorpen zalan-tzakorren estazioetik, eskuraezina den hizkuntza batez mintzo zaigu Iñigo Aranbarri, hizkuntza poetiko batez, *Dordokak eta elurrak* irakurtzerakoan kontutan hartzeko den datua.

Belauntziaren bidaia-hasiera

Rafael Argullol-ek *El Héroe y el Único: el espíritu trágico del Romanticismo* liburu interesgarrian honako ideia hau aurkezten du: "Uno de los errores más vulgares, pero, más comunes, es decir "romántico" y pensar "pasado", cuando en realidad el movimiento romántico es una contundente diagnosis de futuro. En la insuperable combinación de desencanto y energía, de destrucción y de innovación, de patetismo y heroicidad, en la profunda percepción de lo limitado de la condición humana y el imposible titanismo hacia lo infinito, se puede reconocer que el movimiento romántico es la auténtica raíz de todo el pensamiento trágico moderno."

Erromantizismoa gizakiari dagokion izateko era bat denez, etengabe eraberritzen da; ez da harritzekoa, beraz, erromantizismo mota anitz egotea. Juan Ramón Madariagak, bere hitzak musikaz jantzita ikusteak erabat poztuko bait luke, idatzitako *Imentzioaren pergamuak*-en erditsuan (1988.an Bizkaiko Foru Aldundiaren olerki saileko literatur saria eskuratu zuen liburu honekin) "J. Sarrionaindiaren epigrama baten bariazioa" izenburuko poema dago, "belauntzi" hitzarekin ezkondua. Esandakoa lematzat harturik eta aurrekoarekin bat eginik, poeta gazte honen erromantizismoa, tradizionala ez delako ondoriora ailegatuko nintzateke, ez bait da gainezkako pasioan onarritzen, gehiegizko edo alferreko negarretan, baizik eta XXgarren mende amaierari dagokion erromantizismoan: erromantizismo neurtua, etorkizunean proiektzioa daukana, puntu argitsuek duten energiakoa.

Juan Ramón Madariagaren beste ezaugarri bat lexikoaren ardura da: idazleak hitzak asmatzen ditu, hitz herrikoi-preziosistak biltzen saiatzen da, bizkaiera eta zuberuera, gure geografia-aren bi herrialde urrunak bezain antzekotsuen mintzairak maite dituela (honetan ere erromantikoa) eta klasikoengandik, hala nola, Etxepare eta Leizarragarengandik ikasi beharra ikusten duela nabari da.

Askotan esana da, euskaraz poesia ona eta asko idazten dela tradizio oparoa izan duelako eta hori egia da, baina egia da, baita ere, egina dagoenaren gainean bide berriak urratzea ez dela horren erreza. Eta poesia zerbait bizia bada, aldatu egin behar da eta hau lortzeko modu bat, zalantzarik gabe, poesiaren iturrira itzultzea da, hitzetara.

Nire irudiko poema batzuk gazteegiak izan arren, hasiera disdiratsu bati bide oparo batek itxaroten diola esan ahal dugu obra honen aurrean.

JUAN LUIS ZABALA
Ezta nahita ere
 (edota kritikaria eta idazlea)



Nolatan ez hau lotsak jan. Martin?
 (Martin Zabala-ri gutun irekia bere azken liburua dela eta)

Nolatan ez hau lotsak jan, Martin? Nolatan ez haiz konturatu erridikulua egiten ari haizela? Hire azken elaberriak ez duela argitaratzerik merezi, ezta inori irakurtzeko ematerik ere? Sutara bota eta ameskaitz baten moduan ahazten saiatzea, horixe huen hik elaberri zakar, trakets eta zipotz hori idatzi ondoan egin beharreko lehe-

nengo gauza; eta azkena ere, bakarra, alegia. Ez al hintzen konturatu horretaz? Ezta nahita ere ez likek inork idatziko hain elaberri txarrik. Bazirudik alde zuretik ezer pentsatu gabe, bi ideia ziztrin ere lotzeko lanik hartu gabe, hitzaren atzetik hitza idazten hasi haizela eta halaxe segi ere harik eta ehungarren orrialdean nahikoa eritzi dioan arte. Bejondaiala, txo! Hara, edozeinek konta lezakek hirea baino istorio ederragorik, biziagorik, adierazkorragorik; idazten has-tea asko likek edonork, ondo esan diat, edonork, analfabetoa ez den edonork behintzat. Adarra jo nahi al izan diguk? Ergelak ote gara ba? Zer uste duk hik: sinistu egingo dugula bi urte luzetako lan neketsuaren ondorena dela hire kaka mokordo kiratsu hau? Ederki jaioak gintuz-kek, alajaina! Oraindik horrelakorik! Baina, baina, baina... nola daiteke, ordea, nola? Tira, tira, Martin, ez gaituk hi bezain lerdoak, eta hik baino askoz gehiago zekiagu literaturaz, motel, ez duk batere zaila eta. Benetan, neure onetik aterata naukak hire elaberri delako horrekin eta prentsako deklarazio harroputz lotsagabe horiekin. Zein arraia uste duk haizela ba? Eta ze tonto klase uste duk garelako gu?

Hara, elaberri gisa aurkeztu (eta argitaratu, alajaina!) duan testu puska ustel horrek ez dik ez hanka ez buru ez bihotz ez ezer. Kaka zahar hutsa! Kontatzen dituan istorioak sekulako tentelkeria, txaldankeria eta lerdokeria sinistezinak dituk, eta istorio ziztrin horiek "biltzen" dituen "elaberria" azkenean loturarik batere gabeko gertaera txepel zenbaiten pilaketa axolagabea besterik ez duk. Ez dik ezer iradokitzen, ez dik erreferentzia metaliterarioik batere, ez dik inolako teknika literario berezirik, ez dik gure ingurune errealitatea isladatzen, eta gure ingurune-koa ez denik ere ez, ez dik batasunik ere, ez dik ezer... Tira, ezer izatez gerotan ere, ondoriozko ikasbide edo moraleja merke bat dik, guztiz erreakzionarioa gainera bera, atzeratua, atzerakoia, lerdoa eta ustela hori ere: pertsona normal eta esanekoak behar dugula izan gure

gaurko gizarte nahasi honi mesede egiteko prest ahal dugun neurrian. Horixe duk behintzat irakurleari hain aspergarri, gogaikarri eta gorrotagarri egiten zaion kontalariak tarteka, bere burua hala pertsonaien nola irakurlearen gaindi jarritz, adierazten duena. Zintzoak izan eskubide guztiak zapaltzen dizkigun Estatu hurrupatzaile baten aurrean? Zintzoak izan gutxi batzu aberats eta ondo bizitzeko muntatutako sistema oligarkiko tirano honen aurrean? Zintzoak izan eta kanpoko herri txiroen goseak eta bertako langile zapalduen lanak elikatutako sistema "demokratiko" itxurako honi gure onespina eskaini? Zintzoak izan, beraz, eta gizarteak markatutako bideak segi gainerakoak galerazita daudela onartuz? Zintzoak izan, alegia, eta gogoz kontra egin lana, gogoz kontra soldaduska, gogoz kontra errespetatu handi-mandiak eta beren gehiegikeriak, gogoz kontra ezkondu, gogoz kontra ekarri haurrak mundura? Non uste duk bizi garelako, Martin? Konturatzen al haiz nola funtzionatzen duen mundu honek? Ez. Ez haiz konturatzen, ezta hurrik eman ere. Eta ezta konturatu nahi ere, noski, horixe duk okerrena.

Hizkeraren aldetik ere, guztiz pobrea duk hire "elaberri" delako hau, gramatika eta ortografiatzko akats ugari izateaz gain. Era berberean —gaizki alegia, bata bezain gaizki besteak— mintzo dituk pertsonaia guztiak eta kontalaria bera, eta edozein egoeratan gainera. Ulertu ere nekez ulertzen duk askotan adierazi nahi dena, edota ezta nekez ere: ezin inondik inora ulertu. Batzutan kontu sinpleak adierazteko bortxaren bortxaz luzatutako esaldi amaiezinak ageri dituk, irakurleari haria galdu erazteko primera-koak. Beste batzutan, berriz, kontalaria motz geratzen dela zirudik, adierazi behar duena aiderazteko ezgauza sentituz antzeko beste zerbait adieraztearekin etsitzera behartua bezala. Beste batzutan irakurlearekiko kidetasun erridikulu baten bila saio ergel eta inozoak egiten hasten duk... Penagarria benetan!

Esan bezala, ez hanka ez buru ez bihotz ez

ezer. Ez elaberri ez ezer. Baliorik batere gabeko testu puska luzea, ezin hutsalagoa. Alferrikako lana duk hire elaberri delako hau irakurtzea. Neuk irakurri egin diat (oso-osorik, Martin, ez diat meritu makala horratik!) eta irakurketa amaitu bezain laster sentitu diat artikulugutun hau idazteko gogo, edo premia, elaberri irakurleen on beharrez, gaztigua izan dezaten — hire deklarazio hantusteez eta heure lagunek idatzitako aldeko kritika salduak atzipetua — horrelako liburu hutsal eta lerdoa erosten dirua eta irakurtzen denbora galdu baino lehen. Eta heuri ere, Martin, emango nitek pozik aholku bat, kasurik egingo ote duaneko itxaropenik batere banu: utzi ezak literatura, ez dakik eta hitz horrek zer esan nahi duen ere, utzi itzak behingoz idazteko konfu hauek, eta joan hadi Benidorm aldera eguzki pixka bat —edo puska bat— hartzera, bazeudek eta ondo antolatutako bidaia merkeak, hiretzako proposak.


JON KOLDO LIZARRALDE

Jon Koldo Lizarralde-ri erantzunez

Nire ustez zuk artikulugutun deitzen duzun nire —eta nire elaberriaren— aurkako testuak ez du erantzun luzerik merezi; berez laburrik ere ez, baina ixilik gelditu ezinak erantzutera behartu nau. Zeuk bertan idatzitako hitz gutxi batzuek gogora erazi besterik ez dizut egingo, apur batean gogoeta egin dezazun, horretarako gauza baldin bazara: *“Ezta nabita ere ez likek inork idatziko hain elaberri txarrik.” “Baliorik batere gabeko testu puska luzea, ezin hutsalagoa.”* Pista bat emango dizut zure gogoeta bideratzeko: neu ere horretan nago.

MARTIN ZABALA

Apailatzailearen oharra: Asmatutako bi testu hauek errealitate deitzen denarekiko batere antzik somatuko balite, kasualitate hutsa litzateke, asmaketa soil besterik ez bait dira.



NARRAZIOAK

4

KONDAKETA



IÑAKI IRAZABALBEITIA

Ozeanoaren erdian

JON IRIBERRI


Adagio hautsia

PAKO ARISTI

Trinidaddea

XABIER MENDIGUREN

Oporretako koaderno



IÑAKI IRAZABALBEITIA



Ozeanoaren erdian

Gabardinaren botoiak nituen eta lepoak ondo tente jarririk abiatu nintzen itsasaldetik zetorren xirimirian murgildurik. Bixerarik ez nuen jarri, haizearen freskura eta euriaren hezetasuna buruan sentitu nahi nituelako.

Itsasaldeko pasealekuan ibilaldia egitearen ideia ez zen nerea izan. Koadrilako baten batek proposatu zuen. Inork beste plan hobeagorik ez zuenez bertarantz zuzendu genituen gure urratsak. Urteberriko arratsaldea nola bete arazoa izaten

da normalean eta itsasertzetik eginiko ibilaldia eguerdiko otoruntz handiaren astuntasuna arintzen lagungarri izan daiteke.

Pasealekura iritsi ginen orduko hasi zen euria. Aterkirik ez izateak eta busti nahi ez izateak, ibilaldiak zentzurik ez zuela errotu zuten bes-teen gogotan. Lanbroa itsasaldean paseatzeako eguraldirik egokiena zela esan nuen nik. Bes-teek atzera egin zuten eta batek baino gehiagok, nere irteera bitxi horietako beste bat zela, pentsatu zuela ziur nago. Egia esanbakarrik egon nahi nuen, beharra nuen, eta itsasaldetik zetorren xirimiria aitzakia egokia suertatu zitzaidan.

Haize leuna zetorren itsasotik, baina nahikoa malekoia babesten duten harritzarren kontra hausten ziren bagei tanta zurizko adatsa sortezteko. Olatuen orroa zen soinu bakarra. Ez zebilen ez kotxerik ezta lagunik ere. Farolen inguruko argitasunean jausten ari ziren euritanta mehe eta finak ikusten ziren. Aurpegian ordea, euri xeha ez nuen sentitzen, noizean behin hezetasunezko laztan bat izan ezik. Kaleko asfaltoa distiratsu zegoen farola lerrokatuek emandako hori koloreko argipean.

Hauste-puntuan aparraren zurtasunaz jantzita zegoen itsasoa. Urrutira ilun eta beltz zegoen. Olatuek maldaren goi-puntuan utzitako apar zuriak behera egiten zuen harkaitz laun zehiarretan zeuden hamaika bide eta arrakalduretatik, lehertzen ari zen olatuak zekarrenarekin bat egiteko berriro.

Bakardadearen premia nuen arrats hartan. Nire burua hutsaz beteak sentitzearen beharra nuen. Olatuen burrunba eta haizearen abotsa besterik ez nituen entzun nahi eta euriaren bustidura azalean sentitu. Hustasunean beteta sentitzen nuen nere burua, ez bait dago bilatutako bakardadea baino asegarriagorik. Oineta-koak blai egiten ari ziren, neure ibilera axolagabea oinak non jartzen nituen kontutan hartzen ez nuelako.

Itsasoari begira jarri nintzen. Arnasa sakon hartu nuen. Aire freskoaren zitzada biriketan

sentitu nuen eta gau zaharrear erretako tabakoak itxitako birikak apur bat ireki ziren. Aizebolada batek adatsa harrotu zidan. Ahoa zabaldu euriak eta olatu-tantek osatutako nahastearen kresala dastatu nuen.

Tarte luzez egon nintzen itsasoari so eta hausten ari ziren bagen burrunbaren artean harekin bat izan nintzen. Barnean mantentzen eta elikatzen duen bizi jori ugariaren taupada nabaritu nuen. Azalean dabilkion hamaika untzien motoreen hotsa aditu nuen. Harrapakariari ihes egiteko anemonaren beso ugari erresumin-garren artean izkutatzen diren arrainño kolore txuri-laranjazkoak ikusi nituen. Artikoko izotz lautadetan errege den hartz zuriaren atzaparretan eroritako itsas zakurraren azken arnasa entzun nuen. Xibartek Mexikoko kostaldean amodio-jokoetan egiten dituzten jauzien lekuko izan nintzen. Arrantzaleak eguneroko lanean laztasun eta gogortasunaren sareetatik tiratzen ari zirela somatu nuen. Madagaskarreko ur sakonetan dabilzan azken zelakantoengan, eoietako nekea eta irauteko grina nahasirik igerri nituen.

Urrutiko farodorre baten argiaren kolpeak nere ametsetatik atera ninduen bapatean. Ibiltzeari ekin nion berriro, mingostasun apur bat gelditzen zitzaidalarik itsasoaren erritmoa galdu nuelako edo. Paseori, aurreko gozamina ez nion jada hartzen. Hustasuna, benetako hustasuna zen eta ez lehenagoko betetasuna. Urratsak azkartu nituen. Portu aldera iritsi nintzenean *Izar Beltzarantz* zuzendu nituen pausoak, presaka. Jendearen laguntasuna behar nuen berriro.

Tabernaren atea zabaldu nuenean, ohizko ke-boladak astindu ninduen. Huts hutsik zegoen. Antza, urte zaharreko parranden ondoren urteberri arratsean taberna-zuloan sartzeak ez du jendeak oso gogoko. Hondoko nere betiko mahaitxorantz joan orde, barraraino iritsi eta han egoten diren hanka luzezko aulkietako batean jarri nintzen. Pello zaharrak harriduraz begiratu ninduen.

—Gabon —esan nion.

—Baita zuri ere —arrapostu zuen. Hizketareko gogoz zebilen nonbait. Eskuarki, buruaz eginiko keinu modukoa izaten zen bere erantzuna. Pitarñoa garagardo beltzez betetzen hasi zen. Ni bederen, hizketarako gogoz nenbilen edota entzuteko besteren ezean. Ibilaldiak lagatako kezka garratza goxatzeko sartu nintzen tabernan eta. Horren esperoan eseria nintzen barrako aulki deseroso horietako batean.

—Mugimendu gutxi gaur, ezta? —esan nion, nolabait hasi behar eta...

—Bai... —erantzun zidan astiro.

—Ez dirudi gaurko eguna taberna zabaltzeko egokiena denik —erantsi nuen.

—Horrela da, bai.

Elkarrizketak ez zuen gehiagorako ematen eta horretan hil zen. Garagardoari zurrupada laburrak ematen hasi nintzaion. Pellok bitartean, betiko moduan, distiratsu zeuden edalontziak, oihalezko zapi batez, lehortzen ziharduen.

Halako batean, ontzi-lehorketari utzi zion eta barraren atzekaldetik irtenik tabernaren aterantz jo zuen. Krisketa jarri eta garagardo-marka eza-gun baten logotipoaren azpian "**Itxita**" zioen txarteltxo, kalera begira ipini zuen. Portaera guztiz harrigarria hura Pelloengan. *Izar Beltza* zarraturik ikusi dudana aldi bakarra izango zen hura. Nahiz eta goizeko ordu txikietako ohizko bezeroa izan, garagardo-markapeto "**Itxita**" esaldia kalera begira inoiz ikusi gabe nengoan. Nere irudimenerako, *Izar Beltza* inoiz ateak ixten ez dituzten horietako taberna bat zen, goiz-goizetako orujo-kopak eta gau bukaerako azken garagardoak bat egiten dituzten horietakoa.

—Ez da gaur negozioarako egunik onena! —bota zidan azalpen moduan, harridurazko ene keinu somaturik edo— Tira egon lasai! Bukatu zure garagardoa eta erronda bat egingo dugu elkarrekin.

Solasaldia piztuko zelaren esperantza galdua

nuen jada eta Pelloren jarrera berri hark poztu egin ninduen, ohizkanpokoa izan arren. Pello ez zen bezeroekin hizketan iharduten duen nagusien kastakoa.

Barraren atzekaldera zuzendu zen. Presio-makinaren kirtenari eutsi zion eta mantsuki, zeremoniaz eta jakituriaz, isuri zuen garagardoa landutako beirazko pitarñoan, kafesne koloreko apar trinkoak ertzak hartu zituen arte: *Guinnessa* zerbitzearen artea gutxi bezala menperatzen zuela frogatu zidan. Neri pitarñoa luzatu ondoren, barraren atzekaldeko paretan zegoen apaletako batetik botela bat *Negrita* hartu eta aho zabala eta ipurdi lodiko ontzi batean isuri zuen rum beltzak. Ontzi bameko likido ilunari jira-bira batzuk eragin ondoren, trago luze patxadotsua eman zion.

—Bai ederra! —bota zuen— gauza txiki hauek balio dutenaz ez gara normalean ohartzen.

—Ados. Gauza txikiez osatuta dago bizia —Fernandoren egiak ziren baina...

Begira gelditu zitzaidan baina begirada ez zegoen bertan urrun baizik eta une batez malenkoli printzak igerrri nizkien bere begiei.

—Zein zuzen ari zaren ez dakizu. Kontatuko banizu...

Interesgarria izan zitekeen istorio baten aurrean egon nintekeelaren zirrarak somatu nuen. Marinela izandakoek makina kontakizun liluragarri dakitela gauza jakina da eta Pellok beste edonork baino gehiago zekizkiela seguru nengoan. Berari gertatua ez bazen ere, barraren atzekaldetik entzundakoa bederen.

—Ea ba, konta —bultzatu nuen— Aditzeko prest naukazu.

—Ez dakit kontu zaharrak harrotzerik merezi duen...

—Berdin zait zaharra ala berria den. Tira ba, ez orain atzera egin.

Ililik gelditu zen istant batez pentsakor. Istoria haren ezpainetik ez zela aterako beldur egon nintzen baina kontakizuna taxuz nola zirikatu

ez nekien. Azkenik ixiltasuna hautsi eta ontzi barneko pattar ilunari begiratzuz mintzatzeari ekin zion.

—“Duela berrogei urte jazo zen guztia. Garai hartan, Karibe aldean nenbilen ni marinel-lanetan. Egia aitortu behar badut, nere aferak ez ziren oso garbiak. Tenorea nahasia zen eta ni nahastean murgildurik nenbilen. Gaztea nintzen artean eta arriskuak eta legearen pisuak ez ninduten izutzen. Txanponen txintxinak bortizki erakartzen ninduen eta horrexegatik gaueko lanetan zebiltzan untzietan egiten nuen lan batez ere.”

—Gaueko zertan? —eten egin nion, espresioaren esanahia ezagutzen ez nuelako.

—“Kontrabandoan motel! —erantzun zidan irripartsu— Cuban tabakoa hartu eta Jamaikara eramaten genuen, bertan ruma kargatu eta Floridako kostaldeko *cayo* izkututan dolar beroen edota harmen truk aldatzen genuen. Harmak, Ertameriketako errepublika bananeroetako jeneral intsurjente baten bati saltzen genizkion. Han bertan batzutan, paradisu amerikarraren bila zebiltzan gizaraxo batzuk sotoan sartu eta ondo kobratu ondoren, Mexikoko kostaldean uzten genituen Texasen zeudelakoan. Kafea generamalaren itxura eginez kokaina sarten genuen EEBBtan. Lana ondo pagaturik egonez gero untiaren sotoan zer zegoen ez zitzaidan askorik axola.

Ni egoskor xamarra nintzen orduan eta ondorioz iskanbila ugari izaten nituen kapitana eta patroiekin. Untziz maiz aldatu behar izaten nuen hasarraldiren baten kausaz. Baina lanpostu berria topatzeko arazorik ez nuen izaten lan-gile fina, sutsua eta mutua nintzelako.

Duela berrogei urteko abenduaren erdialdean, New Orleansen nengoen. Nere azkeneko ugazabarekin desadostasun serioak izan eta gero, lehorrean nengoen lanik gabe. Patrikan diru freskoa nuen ordea, eta Gabonak Luisianako hiri paregabe horren giro ederrean pasatzea erabakia neukan.

Patuak beste ideia batzuk zituen aldiz. Arrat-salde batez ibai aldean, *Vieux Carré* ingurutan nenbilela euri-zaparrada bortitz batek ustegabeen harrapatu ninduen. Bustitzeko asmorik ez nuenez, topatu nuen lehenengo tabernara sartu nintzen. “*L'Etoile Noire*” zuen izena... Zaparrada hark nere bizia aldatu zuen...”

“*L'Etoile Noire*”, izar beltza alegia, hara non dagoen taberna-izen harrigarri honen jatorria! —pentsatu nuen nik.

“Bertan Wölher kapitaina topatu nuen. Aleman hau gizaseme itzela zen, ia bi metro luze eta bizkar zabalez hornitua. Aurpegi karratuan bi bekain beltzak ziren deigarrienak. Ilea motz-motza eramaten zuen, ia zeroan mozturik. Untziaren zubian jarririk bere irudiak beldurraren errespetoa ezartzen zuen marinelen artean. Mexikoko portuetan “Bocatrueño” Wölher esaten zioten. Zubitik aginduak ematen zituenean, bere abotsa, untiaren bazter guztietaraino iristen zen ekaitzik gogorrean ere.

Bere tamainak bestela aditzera ematen bazuen ere, urpekuntzi alemanetan egin zuen lehenengo Mundu-Gerra. Mihi-gaiztoek esaten zuten, eta horrelako asko egoten da nonahi, berak zuzendutako urpekuntzia kortsario moduan ibili zen eta jaramon handirik ez omen zion egin Itsas Aginte alemanak agindutakoari. Edonola ere, unti berri moderno baten jabe zen gerra bukatu orduko.

Hori zen Wölher, Karibe aldeko afera ez oso garbi eta ezkutu gehienen protagonista nagusienetako bat.

Aspaldiko ezaguna nuen bera izan bait zen ur haietako nere lehenengo kapitaina.

Untzirik ote nuen galdetu zidan. Libre nengoa aipatu nionean, interesa lekidakeen lana zuela esan zidan. Lanak diskreziorik handiena behar zuenez zer xehetasunik ezin zidala eman esan zidan. Segidan, ordain gisa berak eskaini zidan zifrak afera handia zela adierazi zidan.

Duda-izpirik gabe eman nion baietza. Diru

freskoa nuen poltsikoan gabonak erregeen modura igarotzeko lain, baina Wölherrengan konfidantza osoa nuen eta proposatutako zaldia, ezezaguna izanik ere, irabazlea zela banenkien.

Eguberri egunez eguraldia eguzkitsu eta itsasoa bare zeudelarik *Rheinek*, Wölherren untziak, Mississippiren bokalera utzi eta Mexikoko Golkoaren ur urdinetan barneratu zen.

Oso lagun gutxi ginen untzian, Wölherekin sei besterik ez. Alemanak bere tripulazioa kontu handiz aukeratu zuela garbi zegoen. Beste marinela aleman jatorrikoak ziren: isilak, diskretoak eta langileak. Ez nituen ez bidaiaren helburua ezta ibilbidea ere ezagutzen baina Bocanegrak egindako prestakuntza kutunak zerbait oso handiren atzetik genbiltzala nabarmentzen zuen.

Nere harri durarako, afera Mexiko aldean zegoelaren susmoa bait nuen, hegoekialderantz abiatu ginen. Floridako itsasarte igaro ondoren Bahamak atzean utzirik Atlantikoan barneratu ginen. Sari handiaren arrazoiak konturatu nintzela uste izan nuen orduan!

Bigarren Mundu-Gerran ginen eta Ipar-Atlantikoa urpekuntzi alemanez josirik zegoen, Europarantz harmak eta ekipamenduak zermatzaten untziak hondoratu asmoz zelatan zebiltzan untziak. Gutxi ziren, gure moduan, armadaren eskoltarik gabe Atlantikoan nabigatzen ausartzen zirenak. Urpekuntzi aleman bat topatuz gero, mastan generaman Argentina oraindik neutralaren banderak baliagarria izan zitekeenik ez nuen uste nik.

Nere bizian lehenengo aldiz akaso, beldur nintzen. Nere ordurarteko bizia ez zen arriskurik gabea izan. Behin baino gehiagotan kostazainen tiropean ihesean ibilita nengoen, kontrabando-negozioren bat tartean zegolarik. Taberna-zulotako borroka zikin eta traidoreak ezagutzen nituen. Kasu horietan, hitzearen posibilitateari ez nion beldurrik, heriotzaren mugak ezagutzen nituelako. Aurretik letorkidakeen

herioa bizitzeagatik ordaindu beharreko zergatza hartzen nuen eta ez ninduen izutzen. Baina, ur azpian zelatan egon zitekeen alu batek traizioz eta ezkutuan botatako torpedoak aurretik eraman nintzakeela pentsatze soilarekin dardarean jartzen nintzen.

Heriotza tokatzen zaidanean, aurretik, aurpegia erakusten duelarik, etortzen ikusi nahi dut.

Egun haietan, behin baino gehiagotan damutu nintzen lan hura hartu izanaz.

Zenbait egunez Hegoalderantz abiatu ginen. Europarako hornikuntza untzien bide arruntetik urruntzen ari baginen ere, ez nengoen batere lasai. Ozeanoaren gainazalari begira pasatzen nuen denbora guztia, ezkutaturik zai genuen urpekuntziaren periskopia noiz ikusi. Birritan baino gehiagotan irudimenak eta sujestioak engainatu egin ninduten eta herioaren heraldo zen periskopia, benetakoa bailitzan, ikusi nuen.

Urte zaharreko gauan, Ilargi bete ederra zegoen ekuatorearen gainean, ohean etzanda, lo egin ezinean nengoelarik, alarma-seinaleak astindu ninduten. "Urpekuntzia!" pentsatu nuen ikaraz eta laster batean zubira igo nintzen. Arrazoi neukan, okasio hartan neure begiek ez ninduten engainatzen. Horizonte izartsuan urpekuntziaren ziluetan argi eta garbi ikusten zen Ilargiaren argipean. "Gureak egin dik" oihukatu nuen baina inortxok ez zidan jaramonik egin.

Kapitaina seinale-argiaren aldamenean zegoen kokaturik. Zezentxakur aurpegiko pilotu alemanari zerbait transmiti zezan agindu zion. Argizko flashek urpekuntziaren bidea hartu zuten eta haren erantzuna berehalakoa izan zen. Gertatzen ari zena ez nuen konprenitzen. Urpekuntziak bidaltzen ari zitzaizkigun seinaleak ulertzen saiatu nintzen baina alemanez edo kodeturik zeudenez ez nuen piperrik ere ulertu.

Kapitainak, txalupa bat uretara bota genezan eta urpekuntziarantz abia gintezen agindu zuen. Motorezko txaluparen leinari heltzen niolarik, untzirantz zuzendu nuen. Zubiko dorrean pin-

tatutako gurutz gamatuaren irudia gero eta definituagoa ikusten nuen. Urpekuntziaren zubian hiru lagun zeuden gure hurbilketari begira eta bitartean mugimendu handia zegoen kubiartan. Marinel batzuk maleta eta kutxa itxurako farde-lak pilatzen ari ziren.

Parera iritsi eta soka-mutur bat botata harekin lerrokatu ginen. Marinel alemanak maletak eta kutxak gure txalupan sartzen hasi ziren.

Halako batean ume-abotsa entzutea iruditu zitzaidan. Burua altxatu eta hantxe zegoen sei bat urteko umemokoa dorrearen kanpo-eskailerak jaisten. Bere atzetik, emakumezko gazte bat, beraren ama seguru asko, jarraitu zitzaion. Umeak, urpekuntziaren kubiartatik txalupa barrura salto egin zuen algara artean. Emakumeari jauzian laguntzeko eskua luzatu nionean "Danke" esan zidan, bere aurpegi borobiltzuan irripar bat markatu zelarik.

Sokak askatu, urpekuntzitik urrundu eta gure untzira itzuli ondoren, laster baino azkarrago martxan jarri ginen berriro. Hegomendealdeko bidea hartu genuen orduan. Hego Ameriketara gindoazen itxuraz. Emakumea eta umea kapitainaren ondoko kabina batean jarri zituzten. Bidaian zehar oso gutxitan atera ziren kubiartara eta bizia beren kaxa egin zuten.

Ozeanoaren erdian izandako topaketa haren ondoren, urpekuntzi alemanei buruzko nituen kezkek alde batera utzi nituen. Kezka berriak nituen. Zein demontre ote ziren emakumea eta umea, horrelako lanak hartuak izateko? Galderarik ez nuen egin noski, tiburioien jatena ez bait nuen izan nahi. Galderarik ez egiteko ordaintzen zidaten gainera.

Egun batzuk geroago, Brasilgo kostaldera iritsi ginen, Sao Francisco ibaiaren bokalearen ingurua. Brasilgo eskumeneko uretan sartu baino lehenago pairuan jarri ginen. Kostaldea, horizonte urdinean marraztutako lerro ilun moduan ikusten genuen.

Arratsean, lehorretik zetorren haizeak bul-

tzaturik belazko arrantzuntzi bat hurbildu zitzaigun. Kode-seinaleak trukatu ondoren, Wölherrek txalupa uretara botatzeko agindu zuen. Ondoren, emakumezkoa, umea eta beren ekipajea arrantzuntzira transferitu genituen.

Arrantzuntzia azkar urrundu zen. Guk aingurak bildu eta iparraldeko bidea hartu genuen kostaldetik urrundu gabe Rezifeko porturaino. Portuan ez genuen denbora luzerik egin, erregaandelak bete eta, bidaia justifikatzeko edo, sotoa zur tropikalez kargatu.

New Orleanserako itzulerak ez zuen aparteko gertakizunik izan. Lasaia eta normala izan zen.

Agindu bezala, lehorreratzean Wölherrek ederki baino hobeto ordaindu zidan eta istorio guztia ahaztea erabaki nuen. Gainera, bidaian zehar erreflexiorako izandako denbora luze ordurarteko bizia bizkar uztearen asmo irmoa hartu nuen. Pilatuta nuen diruarekin nahikoa nuen etxera etorri eta negozioren bat zabaltzeko... Baina istorioa ez zitzaidan horren erraz ahaztuko.

Hilabete gutxitara European gerra bukatu zeneko berri pozgarriarekin batera beste berri kezkakarriago bat jaso nuen nik, Berlingo bunkerrean hilik topatutako Eva Braun izeneko emakumearen argazkia ikusi nuenean..."



JON IRIBERRI



Adagio hautsia

*...aldaka sendoet tinko eutsi, behatz jolas zaleak
egur— dizdiradun azal leunaren gainetik laban-
du, bere erraten dardara esku aburretan sentitu,
gorputz bizi batek beste gorputz baten besartean
eman dezakeen guztia deskubritu...*

Bera etxean utzi eta neu denboraldi batez alde zaharreko pentsio merke honetara etortzea erabaki nuenean, Prudenek (eta garbi gera dadila bere eritzia inporta zaizkidan bakaneta-rikoa dela) zorotzat hartu ninduen. Erokeria hutsa zela eta

inolako beharrik gabeko neurria iruditzen zitaiola esan zidan. Kale gorrira botatzea, edozein izkinatan lagatzea, hitz batez esatearren: ahaztea, irtenbide sinple eta merkeago zela. Eta berau ere, halako tonu susmagarriz esaten zuen, errukiak sortuko lukeen tonu samur eta lagakorrez.

(Zelabait ulertzen haut, Pruden, eta barkatzen dizkiat hire hitz gogor horiek, hire-hireak ez bait dira, epaitzeko apenas daturik ez daukaalako. Ze bitxia, hik, nere adiskide ia bakarrik, ez ezagutzea! Oker ez banago, behin bakarrik ikusi duk eta berak, hain lotsati eta hain zintzo, ez zuan aditzera eman gau osoan, eta nere lagunen bat aurkezten diodan bakoitzean izan ohi duen isiltasun herabea mantendu zian hire aurrean ere. Ez, Pruden, berriz ikusiz gero bere irudia ezagutzeko ere ez hintzateke kapaz izango; nekezago, beraz, ahotsa, bere ahots goxoa. Begibistakoa duk ez huela susmatu ere egin osatzen dugun bikotearen perfekzioa eta bere edertasunak ez hinduela hunkitu.)

Izan ere, ez nabil diru soberan eta ez da batere eroso pentsio kaskar honetan bizitzea, negozioa gobernatzen duen andratzar jasanezina agoantatzen, eta are gutxiago nere etxea (urte eta ahalegin askorekin gordeleku goxo bihurtu dudana pisu txiki antigualekoa) hortxe bertan dagoenean. Baina behin behineko banaketa honi beharrezkoa eta ia derrigorrezkoa deritzat: azken bolada honetan, elkarbizitza pairaezina gertatzen zitzaigun bioi eta joan den asteko iskanbilak zeharo hondatu zuen. Hone-la, ba, etxean utzi eta ekaitzaren osteko bareari itxoitea erabaki nuen (“unilateralki” esango huke heuk, Pruden). Orain nere burua lasaitu, ideiak ordenean jarri eta oreka berreskuratzen ahalegintzen naiz Aste Santuko oporraldia aprobeztatuz: euskal literatura irakastea instituto publiko batean ez bait da —ezta gutxiago ere— nerbioak euren lekuan mantentzeko ogibiderik onena.

Esan beharra daukat ez ditudala ezelan ere

onartzen nerekin ateratzen zen jendearen eritzi kaskalak (atera, bera ezagutu arte, ezen orduan etxekoi bilakatu nintzen erabat). Gure harremanak nere zentzunaren gaineko zenbait duda sortu zuen eurengan (kontzeptu definigaitza, zinez, eta zeinari buruz nik ez diedan inoiz ere inolako garantiak eman) eta bereziki Karmele-
rangan, jelsiak, neu zerbait bere joteko tententzia edo auskalo zer zela medio, halako pataleta bortitz iskanbilatsua. Baina banaketak —edo, hobeto esanda, banaketa gertatzen zen moduak— argitu egin zituen zalantza horiek emaitza argi eta garbi baten aldera: nere buruak, berez nahiko bigundurik, literatur mito eta munstroak tartean, zeharo galduta zuen bere behinolako irmotasuna.

Pentsioko telefonoa emateko Mikeli deitu eta Paseo Berrian gelditzea proposatu zidanean, solasaldi atsegin bat eduki asmotan (garbi hitz egiteko, esan zuen), hitz bakan batzu esan ahal izan nizekion soilik, ezen bapatean geratu egin zen, ero bati bezala begiratu (penaz eta beldurrez, esan nahi dut) eta korrika jo zuen kaia aldera, neu berriro ere bakarrik eta hain garbi ez genuela berba egin pentsatuz gelditu nintzelarik. Hauxe da nere sasiadiskideen jarreraz esan dezakedan guztia; hemen Donostian, nere iza-kera aldakorrek lortzen utzi zidan harreman egonkor bakarrek, bestalde.

Hala eta guztiz ere, neu ziur nintzen —eta oraindik ere banaiz— ondo aukeratu izanaz (agian bihotzez buruaz baino gehiago, baina ondo). Izan ere, elkarrekin daukagun hartue-mana zeharo bestelakoa da orain arte zelabait eta nekez aurrera eramane ditudan beste guztien parean. Nere ikasleen erara esateko, “roilo txarrik gabeko roiloa” da; zintzotasuna eta zurikeria koordinadaz kanpo gelditzen zaizkigu, beste dimentsio batean.

Azaldu beharko nuke, behar bada, azken bolada honetan era beldurgarrian ari zaizkidala gutxitzen mintzatzeko gogo eta ahalmena: hitzak gero eta urriago, esaldiak gero eta motza-

go. Lan itzela gertatzen zait orain lehen maiteen nuen denborapasa: berriketan ihardutea. Eta klaseak gero eta zigor handiagoa dira neretzat. Segurasko beronegatik, gure harremanaren alderik onena (“maitasuna”, “amodioa”, jokuz kanpoko hitzak dira) elkarrizketaren lekua **uki-menak** (bere zentzurik estuenean) hartu duela izan daiteke. Hots, gure harremanaren oinarri haztamua dugula. Ikutzea, haztatzea, beraz, berbak eurak baino hizkera aberats eta sakonagoa gertatzen zaigu. Ez dago horrekin antzik ere eduki dezakeen elkarrizketarik, ahalik lizunen, erakargarrien, jantziena izanda ere. Ezer ez da aldaka sendoei eutsi, behatz jolas zaleak egurdiztiradun azal leunaren gainean labandu, bere erraien dardara esku ahurretan sentitu, gorputz bizi batek beste gorputz baten besartean eman dezakeen guztia deskubritzea bezalakorik.

“Sexu” berbak ez du lekurik darabilgun arlo semantikoan, baina gure kontaktuetan hartzen gaituen zorabioa eta pasioa oso hurbil dira hitz horrek adierazten duenatik. Eta honela, pittinka-pittinka eratuz joan gara enkontru horiekien elkarbizitza emankor eta patxadatsua.

Hala ere, arazoak gertu ziren. Dela inguruarekiko nere isolamendu gero eta handiagoa, dela nere klaseak hitzez betetzeko zailtasun areagotuak edota irteera bakanetan topo egiten nuen ezagunen jarrera xeblearengatik, ondoezak eta egonezinak lekua irabaziz joan dira nere baitan. Eta, ondorioz, gure erlazioak txarrerera jo du, egungo banaketara bultzatu ninduen joan den asteko iskanbila zoritxarrekoa gertatu zeneko egoera larrita heltzeraino.

Hamaika aldiz damutu zait egun hauetan larregi pentsatu barik egindako txorakeria hura. Bapatean bururatu zitzaidan: liburudentatik bueltan nentorrela, eskaparateei —argazki album dizdiratsua bailiren— so iheskorra luzatuz beti bezala, haretxen parean geratualdi luzeegia egin nuen. Ez dakit nola ausartu nintzen ideia ona izan zitekeela pentsatzera, berak ez zuela inolako arazorik izango jazkeraz aldatzeko. Ez

dakit zerk bultzatu ninduen dendara sartu eta opari hura erostera; bere itxuran ikutu berria sartu nahi nuen —gogoratzen dut— burdin dizdiraren bat edo eman nahi nion, ah zein txepela naizen!, konturatu barik bere jazkera ez zela zeozter aldakor eta azalekoa, bere izaerari estuki loturik zegoen zerbait baino.


Honela, ume baten ilusio eta oharkabetasunaz, etxean ageri nintzaion gero hainbestetan madarikatuko nuen opariaz. Ze barau eskeini eta nere txepelkeriaz konturatu bai izan ziren. Baina, hala eta guztiz ere, kaskagorra neu nonbait, jarri ere jarri egin nion, zeharo harrituturik konprobatuz bera ez zitzaidala orduan zorion itxura berri bategi agertzen (neuk espero bezala) baizik eta beste barik, ezezagun baten aurrean nengoela: bere gorputz eta ahotsa desagertuak ziren, euren orde zere laztanei kasurik ere egiten ez zieten beste batzu sortuz. Hain izan ziren handiak harridura eta frustazioa ezen, metamorfosiaren iturburu zen jazkera hura ken niezaiokeela pentsatu ere egin barik, korrika batean atera nintzen etxetik eta noraezean pasiatuz ibili nintzen, behin-behineko banaketarena erabaki artean.

Gaur, hemen, orain, pentsioko ohe estu honetan etzanik, honez gero banaketa bukatutzat emateko garaia badelako ideia biraka dabilkit buruan. Itzultzeko pronto nago, errua aitortu eta birrindutako harremana berreraikitzen has-teko (nahiz eta hortzen tirri-tarra entzuten hasi naizen). Egia esan, azken aste honetan nola eta noiz bueltatu behar nuen pentsatzea eta etxearen inguruak miatzen ibiltzea besterik ez dut egin.


Eskilerak igotzerakoan, kilikadurak gogor bihurtzera behartzen nau nere behatz urduriak, euren gaineko boterea berreskuratu eta giltzei eusteko agindua bete dezaten. Atea zabaltzerakoan zirrara ikaragarri batek hartzen nau eta berehala aienatzen da, sabela dardar atsegin batean utziz, sudurra itxi-usainean murgilduaz batera. Oinkada bakoitza urreratze-pausu izutu

bezala sentituz, egongelaruntz abiatzen naiz pasilotik eta gortina alboratzen dut eskuaz, ahur izerditsuaren gainean tolesduren dildira nabarrituz.

Eta hara hemen bera, geldi eta hits, utzitako modu eta lekuan, sofaren ertzean etzanda, nere zai duda barik. (Zinez, oraindik ez da guztiz bera eta ez da bera izango nik zoritxarreko oparia erantzi; honez gero herdoildurik dauden lehen-go soka zaharrak zolutik jaso, banan bana; barru-barruko birsortze sentipen batez jantzi eta arreta guztiaz, tonu altu, alai, jostari batez afinatu arte; berriro ere jakin dezagun zer den aldaka sendoei tinko eutsi, behatz jolas zaleak egurdizdiradun azal leunaren gainetik labandu, bere erraien dardara esku ahurretan sentitu, gorputz bizi batek beste gorputz baten besartean eman dezakeen guztia deskubritzea; eta berpizten somatzea geure haztamu miragarria eta bere haragi eta egurrezko ahots sakona)



PAKO ARISTI



Trinidaddea

€gun hartan ez zegoen klaserik. Ikasurtearen estraineko eguna zen, eta irakasle bakoitzak ordu laurden bateko aurkezpena egin ondoren aldegitzen zuen. BUP-eko bigarren mailan geunden, eta gu, hogeita hamalau ikasle, aulkietan eseririk geunden, maisu maistra bakoitzaren sartu irtena ikusten. Kulturaren desfile bata zirudien. Gu, besoak gurutzaturik, epaileak ginen. Atean sartzen ikusten genituen, zer pausokera

zeukaten, gorputza nola mugitzen zuten, silloian nola eseritzen ziren. Ezpainak mugitzen ikusten genituen, bekainak jasotzen, behera tzen eta okertzen, eskuak aidean ibiltzen, belarri atzea haztakatzen. Jaikitzen ikusten genituen, oinez ibiltzen berriro, eta atzetik ikusten genituen irteeran, ipurdien forma, bizkarraren zabalera, kokoteko ile galduen marrazkiak. Ordurarte ez zen nobedade handirik izan. Literaturakoa Madrileko neska argal bat zen, lenteja baten moduko aurpegia zeukan. Ipurdiek babarrun handi bana ziruditen. Libidorik ez genion aurkitu. Historiakoa burusoil bat zen, betaurrekoak etaabar. Matematikaseko neskak ekarri zuen interese pitting bat kulturaren desfile hartara. Galtza bakeroak zeuzkan. Estuak. Jertse gorria. Ez zen estua baina titi handi haiek infinitora joan nahi zuten eta jertsearen kontra jotzen zuten. Aurpegi borobila zeukan, matrail irtenak, katu begiak, azal beltza. Peruko altiplanoei buruzko erreportaietan agertzen diren emakume bat izan zitekeen, aurpegiz. Gorputzez, ordurartekoetan infinitoa zer zen esplikatu ziezagukeen bakarra zirudien. Mutilei asko gustatu zitzaigun. Neskei ez.

—Horrek eman behar al digu kasea? —esaten zuten.

Eta klasea ematen hasi zitzaigun hurrengo egunetik. Beti jertsei handiak ekartzen zituen, baina inoiz ez zuen titi haien gorpuzkera eta edertasuna disimulatzerik lortzen. Ipurdi besteak zeuzkan, eta pottorak zoratzekoa zirudien, fraketan markaturiko arrastoen arabera. Granoak zeuzkan aurpegian, baina nik asko maite nuen. Marta deitzen zen.

Klase amaieretan beti gelditzen ginen mutil batzuek gauzak galdetzen, ni ere askotan. Neskari ez zen gelditzen.

Haseran ez, baina gero eta gehiago hurbiltzen ginen beregana. Beti bi edo hirurek ixtarrak jartzen zituzten bere ixtarren kontra, eta Martak argitasunak ematen jarraitzen zuen itaundutakoaz. Ni behin atzetik jarri nintzaion, albotan

mutil asko zeuzkan aitzakiaz, eta asko pegatu nintzen bere bizkarrera, bere ipurdira. Zakila gogortu zitzaidan baina hantxe jarraitu nuen. Une hartan dardara ttiki bat somatu nuen Martaren aurpegian, baina berak esplikazioetan jarraitu zuen.

Behin, klaseak amaitu eta ordu erdi batera edo gelara itzuli nintzen, zerbait ahazturik, eta Marta han zegoen artean. Bere atzean Mariano zegoen. Jertsearen azpian zeuzkan eskuak, eta titiak ikutzen ari zitzaion. Hura gozada. Martak ipurdia mugitzen zuen eta ipurdiaz idiarena jotzen ari zitzaion Marianori. Halere mahaiak gerriz behekoa estaltzen zion Martari. Bapatean buru bat sortu zen mahai azpitik. Bitortxo zen. Arnasa hartu eta behera sartu zen berriro. Alua mihazten edo ari zitzaion, pentsatu nuen. Martak begiak itxirik zeuzkan, eta oso ozen egiten zuen oihu. Mariano korritu egin zen. Marta oihu erdiragarri bat bota zuen, eta Bitortxo mahai azpitik atera zen arnasa buelta ezinik. Lasterka aldegin nuen.

Biharamunean Bitortxorekin hitzegin nuen. Bitortxo oso altua zen, begi orlegiak, guapoa. Nahi adina neska zeukan, eta Marta ere bai. Nik Marta nahi nuen. Nola lor nezakeen galdetu nion Bitortxori.

—Bera egoten duk egunero amorratzen motel. Bakarrik harrapatzen baduk, galdetu iezaiok edozer gauza, eta esplikatzen ari dela eskua sartu, bizkarrera, jertse barrutik. Eta segi, heorrek ikusiko duk zer gertatzen den.

Hala egin nuen, eta arratsalde batean, Marta eta biok bakarrik, bere mahai aurrean zutik geundela, eskua sartzeko hasi nintzaion bizkarrean. Esplikazioan jarraitu zuen. Nik gora jarraitu nuen. Berak ekuazioekin. Sostena eskatu nion eta eskubiko titi ederra hartu nuen eskuetan. Arnasa sakondu egin zitzaion. Esplikazioak utzi eta begietara begiratu zidan. Nik bere begien barrura begiratu nion.

—Maldito! —esan zidan.

Eta ondoren musuka eraso zidan. Jertsea jaso zuen.

—Chúpame las tetas, por favor!

Ahoan hartu nituen, txandaka. Gozoak ziren, jaikiak, ondo eginak, eta titi puntak hortzetan ibili nituen. Belauniko jarri zen eta zakila sartu zuen ahoan. Ni zoratuta nengoen, eta berehala bota nuen hazia Martaren ahora.

—Malditos —esan zuen— me volvéis local!

Eta klasetik aldegin zuen ni arnas estuka eta galtzak lurrean nituela utzirik.

Behin, klase amaieran, gelditzeko agindu zigun Mariano, Bitortxo eta niri. Gorputz guzia musukatzeko eskatu zigun, txupatzeko zati guziak, botatzeko gure haziak erraiteraino. Mariano sendoa zen. Jertsea kendu zion, mahai gainean etzan zuen eta hirurok titiak txupatzen hasi genizaioan. Zoratzeko bidean sartu zen Marta. Trinidad Santua ginen gu, Amabirjin inka hura txupatzen, maitatzen, jaten. Bitortxok frakak kendu zizkion, eta ordurarte inoiz ikusi nuen zakilik luze eta iharrena sartu zion.

Han galdu zuen, oso osorik, bizar beltz haien artean. Eta izugarri iraun zuen. Mariano eta biok aho zabalka bana bota genuen. Baina amaitu zuen, eta orduan Marianok aurea hartu zidan. Zakil ederra atera zuen, beltzarana eta sendoa, eta han joan zen hura ere oso osorik Martaren barrura. Nik benga titiei, heldu eta heldu. Marianok bere gainera jaso zuen Marta. Ez dakit nola hartzen zuen arnasa. Ordu erdia zeraman oihu eta oihu. Mariano ustu zenean mahai gainera bota zuen berriro Marta eta nik sartu nion orduan. Burua atzera zeukan. Ez nuen begirik irekitzen, eta nere ustez, izugarri ari zen gozatzeko gure matematikasetako irakaslea.

Nik ere sartu nion neurea, baina lagunak baino azkarrago atera zitzaidan. Martaren gainera etzan nintzen ustutzerakoan, eta musu eman nion, mingaina sartu nion ia eztarriraino. Hortzetan hartu zidan. Begiak zabaltu zituen.

—Te quiero, maldito! —esan zuen.

Tximetatik heldu nion eta burua astindu.

—Te queremos, maldita! —esan nion.

Eta Bitortxo berriro hasi zitzaion. Marianok berriro egin zion.

Nik berriro jo nizkion erraiak eta titietan hortzaka ttikiak egin nizkion.

Mahai gainean gelditu zen amabirjin inka hura, sei larruren ondoren akiturik eta gustora, arnasa normaldu artean.

Trinidad Santua institutotik kanpora atera ginen, txorizo ogitarteko bana jatara. Bost sagardo botila ustu genituen.

Baina ez genuen gehiago maitatu Marta. Institutotik bidali zuten laster, ninfomana bat zela eta. Eta itxuraz perbertituak izan ziren hiru ikasleei expedientea zabaltu zieten. Guk normal jarraitu genuen klasera. Trinidadearen bedeinkapena eta babesa geneukan. Baina Marta bidali ondoren ikasurte hura izugarri luzea eta gogaikarria izan zen Mariano, Bitortxo eta neretzat.



XABIER MENDIGUREN



Oporretako koaderno

*Là, tout n'est qu'ordre et beauté,
Luxe, calme et volupté.*

C. BAUDELAIRE

Abuztuak 4

Gaur nere urtebetetzea da, eta oporlekura iritsi ginenetik hirugarren eguna. Egunsentian itzarri naiz. Harritzekoa da: berandu arte gustatzen zait ohean egotea. Baina gaur egun berezia izan da neretzat. Aurrena ikusi ditudan arropak hartu

ditut. Poliki jantzi naiz, Josu esnatu bildurrez, eta hotsik egin gabe atera naiz kalera.

Kalean fresko xamar zegoen eta txaketa baten bila apartamentura itzultzekotan egon naiz; ez dut egin, berehalaxe berotuko zuelako. Laster batean atera da eguzkia. Hondartzaraino joan naiz eta itsasertzean paseatzen ibili. Ez zegoen ia inor. Bikote bat txandalez korrika eta emakume bat txakurrarekin. Oso goxo zegoen. Hondartzaren beste puntaraino joan naiz.

Aurrena kostaldetik joan gara baina gero lehorrean sartu gara. Ni leihotik begira. Ezagutzen ez ditudan landareak soroetan eta ezagutzen ez ditudan txoriak hegaka. Ondo noa. Autobusez gehienetan mareatu egiten naiz baina gaur ez.

Herri batean gelditu gara. Gero beste batean eta beste behin. Batetik bestera tarte haundixeagoa. Laugarrenean ikusi dut nola jaisten zen nere aurretik igotako andrea, eta ni ere atzetik joan naiz. Plaza erdi hustu batean geratu naiz autobusa joandakoan. Andreak errezeloz bezala begiratzen zidan eta nik herrian hotelik edo ba ote den galdetu diot. Fondaren berri eman dit.

Harritu egin dira fondan ekipaiarik ez daramadalko. Zenbat egunetarako geratu behar dudan galdetu dit etxekoandreak, eta pare bat egunez edo esan diot, senarraren zain nagoela. Lasaitu egin da nonbait baina bi egun aldeztu aurretik kobratu dizkit. Ia dirurik gabe geratu zait kartera.

Kalera atera naiz, gela geroxeago ikustekotan. Herria ez da haundia. Azkar ikus daiteke. Paperdenda baten aurrean begira nengoela dendaria atera zait, ezer nahi ote nuen galdezka. Zerbait esatekoan koaderno bat eskatu diot, eta ondorenean boligrafo bat. Dituen mota guztietatik erakutsi dit. Arruntenetatik aukeratu ditut. Dendaria ordea sinpatiko horietakoa tokatu zait, berrietsuegia: herriaren historia eta txoko aipagarrienak kontatu dizkit, eta bere izena Antonio dela.

Fondara itzuli naiz eta neure gelara igo. Ohe haundi bat, bi mesanotxe, armairua eta bi aulki. Eta balkoia. Etxekoandreak zabaldu dit, bertako ikusmira erakusteko. Alde batera plaza mutur bat ikusten da, eta kalea luzetara. Urrunean soroak eta ordokia. Urrunago zerua, baina hori ez dit etxekoandreak erakutsi. Plazan jolasean dabilzan mutil koxkorrei erreparatzean konturatu naiz betaurrekoak apartamentuan utzi ditudala.

Bakarrik geratu naiz. Ohean etzan eta astiroago begiratu diet altzariei. Antigual samarrekoak. Paretetan noizbait kolore biziagoak izandako paper horixka. Sapai zuritik zintzilik hiru beso triste luzatzen dituen lanpara: tren txutxuan bildurra eman nahi eta ezinean dabilen mamua ematen du.

Koaderno hartu eta idazten hasi naiz handik puska batera. Gaur zer gertatu den eta. Ez dakit zergatik ari naizen ere guzti hau idazten. Utzi egin behar dudala uste dut. Kalera noa.

Tabernaren aurretik igaro eta bi agure ikusi ditut, porroi ardoa eta txorixo muturra eskuan, espaloian jarritako aulkietan. Orduantxe gogoratu zait mokaurik jan gabe nengoela. Tabernan sartu naiz. Otartekorik egiten duten galdetu dut. Aukera osoaren berri eman dit gizonak. Xolomozkoa eta garagardoa eskatu ditut. Telebista piztuari begira egon naiz. Gero jende gehiago sartu da, gazte batzuk eta. Batek zerbait hartzera gonbidatu nahi izan nau. Neurea ordaindu eta atera egin naiz. Kartieran txanpon pareta besterik ez zait geratu. Zerbait pentsatu beharko dut.

Herrian zehar ibili naiz berriro ere. Paperdendaren aurrean pasatzean Antonio atean, markoaren kontra jarrita. Hizketan hasteko gogoia zuen. Fondara itzuli naiz.

Ilunabarrari begira egon naiz. Ni ez naiz pintorea, ez poeta, baina kolore asko zituen, polita deitzen duguna. Gero ohean etzan naiz berriro. Ilunpetan geratu arte kaleko hotsak bereizten saiatu naiz. Ezezagunak zitzaizkidan

gehienak. Argia piztu dut, koaderno hartu eta idatzi. Orain erantzi, arropak aulkian ipini, itzali eta ohean sartuko naiz.

Gaur hogeitamar urte bete ditut.

Abuztuak 5

Karteran begira hasi eta kutxazainetarako txartela dudala konturatu naiz. Kutxazain automatikoa non dagoen galdetu behar diot etxeko andrearari. Ez dut ikusi irtetea. Dena dela, aurrezki kutxa bakarra dagoela uste dut, plazan bertan. Sartu naizenean nor egongo eta Antonio. Bulegari bakarra dagoenez dendariak bukatu arte itxoin nahi nuen, baina haiek ezetz, ez zutela presarik eta azaltzeko nik zer behar nuen.

Kutxazain automatiko hurbilena sei kilometrotara dagoen herri batean omen dago. Autobusik ba ote den galdetu aurretik ere, Antoniok kotxez eramango nauela esan dit. Nik ezetz, ez nukeela molestatu nahi. Berak baietz, bestela ere joan beharra zuela eta. Onartu egin behar.

Galdezka aritu zait bide osoan. Hitz laburrez erantzun diot. Bazekien ordea senarraren zain nagoela. Bere buruaz ere hitz egin dit; batez ere bere buruaz. Herri txiki horietan ez dagoela kulturarik baina berak hor geratu beharra duela, alargunaren seme bakarra delako eta ez dakit zer. Diru pixka bat bildutakoan kapitalera joango dela, eta ezkontzeko neska bat bilatu eta abar.

Irratia piztuta zegoen. Albisteen ondoren galdutako jendearen berri eman dute. Horien artean nere itxura, arropa, adina eta ilea zuen bat. Ni aurrera begira nengoen, ixilik, baina konturatu naiz nola begiratu didan zeharka, distira makurra begietan.

Aurrezki Kutxaren aurrean gelditu gara. Gosaltzera gonbidatu nau kotxetik jaistean. Erosketa batzuk egin nahi nituela esan diot, arropak eta. Bai noski, ulertzekoa da, esan du, eta ordubete beranduago geratu gara, leku berean.

Kutxazainetik dirua ateratakoan jantzidenda batean sartu naiz. Ez zegoen aukera haundirik baina beste kolore bateko prakak eta alkondara erosi ditut. Barne-arropa ere bai. Arropa berriak jantzi eta zaharrak xorroan sartuta irten naiz. Arropaz bezala larruz aldatzea banu! Ihes egin nahi nuen, noranahi ihes. Taxiaren berri galdetu diot gizon bati, baina harako bidean Antoniorenkin egin dut topo.

Oso polita zaude, esan eta neure izenez deitu dit, irratian entzundakoaz, ez nik herrian esandakoaz. Zurbildu egin naizela uste dut. Lasai, hau gu bion artean geratuko da, erantsi du, hortz guztiak eta dentistaren zubi-lana erakusten zituen irribarre maltzur-zuriaz.

Kafetegian eta itzultzerakoan bere buruaz segitu du hizketan. Kasik nahiago. Horrela ez nuen hitzik egin behar. Bakarrik begiratu, eta buruaz baiezkota egin hala behar zenean, edo bestela ezezkoa. Berriz ere nahi izanez gero, edonora eramateko eskaini dizkit gero bere burua eta kotxea.

Gelara etzuli naiz. Atzazalei hozka aritu naiz ia urratu arte. Arropa zaharrak, koaderno eta kartera jantzidendako xorroan sartu eta kalera jaitsi naiz. Tabernan sartu eta lehenbiziko autobusa noiz pasatzen den galdetu dut. Bihar goizean pasatuko omen dira biak, kostakoa eta lehorrekota. Bitartean bat ere ez. Hantxe eseri eta bazkaria eskatu dut.

Koaderno zirraborratzen aritu naiz, telebistari begira, alboko musularien hitz errepikatuak entzuten nituela. Atera naiz eta plazan haurrak jolasean. Ez dakit beti haur berak jolas berean ote diren. Herriak ez du zeharkatzeko bide askorik. Paperdendatik ez pasatzearen herri inguruko soroetan barrena abiatu naiz. Laborari baten diosalari erantzun eta berak eskainitako zahatotik edan dut. Lasaia etzuli naiz.

Fondan sartzean etxekoandreak sobre bat luzatu dit. Nere izena azalean. Ez seilurik ez igorlerik. Ezer esan gabe gelara igo eta ertza

puskatuz zabaldu dut:

“Joateko asmotan zarela entzun dut. Ez al zenion zure senarrari itxoin behar? Joaten bazara zure bila ibiliko da, eta zure berri eman beharko genieke galdutako pertsonen atzetik ibiltzen diren agintariei. Ez duzu uste? Antonio”

Sinestu ezinik, behin eta berriz, lau, zortzi, hogei aldiz irakurri dut paperekoa. Txiki txiki egin dut ondoren: bi zati aurrena, gero lau, zortzi, hamasei... Ohe gainean ezin konta ahala paper puxka geratu arte.

Negar egin dut. Aspaldiko partez. Negarretan ito nahi izan dut amorrazioa. Koadernoan jaso dut gero guzti honen berri. Zertarako ordea?

Abuztuak 6

Esnatu naizenean erlojua geldituta neukan; ez nekien ze ordu zen. Balkoian geratu naiz puska luze batean, ea plazan haurrak jolasean sumatzen nituen edo. Ez dira azaldu. Autobus bat ikusi dut; gelditu eta kale kantoitik desagertu da berriro. Lehorrekia ala kostakoa?

Atea jo dute. Etxekoandrea zelakoan zabaltera joan eta Antonio ikusi dut aurrez aurre. Dotore jantzita zetorren igandea izan behar zuela pentsatu dut. Gaur arratsaldean alboko herrira, edo bestela kapitalera edo joateko asmoa zuela eta ea lagundu nahi nion; bestela herrian ez nuela denborapasa haundirik izango eta... Neure gelan bakar-bakarrik oso gustora nagoela esan diot eta atea itxi, badaezpada.

Beste egun pare batez geratuko naizela esan diot etxekoandreari eta tabernara jaitsi, gosaldut, bazkaldu edo zerbait jatera. Animazio gehiegi zegoen gauza onerako: gizonen begiratuak neure gorputzean itsatsita, aditu gabe sumatzen nituen marmarrak... Berehala itzuli naiz, eta ordua galdetzea ahaztu zait.

Ohe gainean egon naiz, sapaiko lanparari begira. Armiarma bat etorri zait burura, hankak banan banan erauzi eta hiru bakarrik utzi dizkionena. Atea jo dute. Nor den galdetu dut. Etxe-

koandrea. Zabaldu eta pakete haundi bat eman dit, erregalozko paperetan bildua. Nere urtebetetzea etorri zait burura.

Papera puskatu gabe askatzen hasi naiz. Zaila zen, atzamarrak artaga nituen. Burua jaso eta nere aurrean ikusi dut etxekoandrea, zelatan. Arratsaldean esanda itxi diot atera eta ohe gainean jarrita papera askatzen bukatu. Kaja bat zegoen barruan ohar batekin. Irakurri egin dut: “Zeure gelan bakar-bakarrik zaudenean aspertu ez eta nitaz gogora zaitezen, Antonio”. Kajari begiratu diot: puzzle haundi bat, mila piezatatik gorakoa, Veneziako irudi batekin.

Zer egin hoberik ez eta puzzlearekin hasi naiz. Beste lekurik ez dagoenez lurrean zabaldu ditut fitxak. Ertzetako fitxak bilatzen hasi naiz. Ilun zegoela eta argia piztera jaiki naizenean perimetrotako hiru alde osatuta neuzkan. Laugarrena osatu arte jarraitu dut horretan.

Abuztuak 7

Jaikitakoan puzzleari ekin diot. Hemendik aurrerakoa askoz zailagoa da. Zeru zati haundiak daude, inolako bereizgarriarik gabeak. Kanaletako ura eta gondolak ere, denak kolore urdin beltz ia berekoak. Betaurrekorik ez dudanez fitxak hartu eta irudia sudurraren parean jartzen dut, non kokatu asmatu ezinik. Nekatzen naizenean ohe gainean etzaten naiz sapaia begira, baina luzaro gabe itzultzen naiz nere irudira. Eta bizpahiru fitxa behar den lekuan jartzen ditudanean indarberriturik segitzen dut ahaleginean.

Balkoira ateratzen naiz halako batean. Eguzkiak bete-betea jotzen du. Flakiak jota nago eta zerbait jan beharko dudala pentsatu dut. Beherakoan etxekoandrea topatu dut. Bere agurrari irri arrasto bat antzeman diot. Hala iruditu zait behinipehin.

Entsalada jaten ari nintzela Antonio agertu da. Ezuste itxurak egin ditu neregana zetorrela, baina seguru jakinaren gainean zegoela. Eser-

tzeko baimena eskatu eta nik ezer esaterako parean jarri zait.

Puzzlearekin zer moduz galdetu dit. Ondo. Gero berriz atera egin beharko nukeela, ni bezalako neska gazte batek ez lukeela neskazarra bezala egon behar eta abar. Ni ixilik. Ahapeka hasi zait ondoren, inor ez dela enteratuko, berarekin ondo pasatuko dudala, hango baserritar artaburu guztiak baino hobea zela eta hala. Altxatu eta ordaintzera joan naiz. Eginda zegoela esan dit tabernariak.

Egun osoan ez naiz berriro atera. Puzzlearen gainean egon naiz, begiak erretzen sumatu arte. Gautu eta gero ere denbora luzean egon naiz, armiarma herrenaren pean. Oheratutakoan fitxak nituen gogoan; irudi oso bat eratzearen elkarrekin josi beharreko fitxa haiek.

Abuztuak 8

Atzo erdi eginda utzi nuen gondola bat ia ia bukatu dut. Urrunean ageri diren palazioetan ere dexente aurreratu dut. Argazkian ageri ez den gondolazain ttiki bat ere azaldu zait, izkina batean, erdi gordeta.

Kalera atera naiz, baina tabernara jo beharrean herriko dendan sartu naiz. Esnea, gailetak eta holakoak erosi ditut eta nere gelara itzuli.

Jakiak zoru gainean utzi ditut; ni ere bertan eseri eta jaten hasi naiz puzzlearekin ari nintzen bitartean. Piskanaka piskanaka guzti hau itxura pixka bat hartzen ari da.

Atea jo dute. Nor den galdetu dut. Etxekoandrea. Kezkatu itxurak egiten zituen, bi eskuak elkarrekin bihurritzen zituen bitartean. Nola nere senarra bi egun lehenago etortzekoa zen eta zerbait gertatu ote zaiola. Laneko kontuak izango dituela esan diot, ez estutzeko. Begirada bere oinetatik nere aurpegira eramaten du aldizka eta bide erdian zoru gaineko fitxa sakabanatuei erreparatzen. Telefonoz deitu nahi banuen bere etxekoa... Ez, ez, lasai egoteko. Ahotsa apaldu eta senarra etorritakoan edo noiz ordaindu behar

diodan galdetu dit. Bihar bertan, esan diot.

Handik pixka batera berriro jo dute. Etxekoandrea gaizki esaka ate aldera jo eta Antonio. Sar naiteke, galdetu eta nik erantzuterako barruan zen. Hara, hara, hasi da, puzzleari begira. Oso ondo ari naizela eta. Makurtu et fitxa batzuk erabili ditu haztaka, kokaera asmatu ezinik. Ez da erraza, ez, esan du altxatuz. Ezagun dudala azkarra naizena. Orduak ere ematen ditudala, noski, esana diotela gauean berandu arte aritu nintzela. Horrela gehiago gogoratuko zinen nerekin, ezta?, erantsi du ohe banatuan eseriz.

Zer behar duen galdetu diot zakar. Ezer ez, ezer ez. Lurreko esnari eta gailetei begira geratu zaie. Ez du bat ere onik egiten horrela jateak, esan dit. Eta zuri zer?, nik. Ezertxo ere ez, baina ahalik ondoena ikusi nahi nauela, turistak kariñoz zaindu behar direla, hortz-zubia erakutsiz.

Badakidala neure burua zaintzen esan diodanarekin balkoira joan da. Plazara hegira, neri bizkar emanda, nahi al duzu nerekin afaltzera etorri?, galdetu dit. Alde hemendik, esan diot, atea zabalduz. Zure bila dabilzanek aurkitu egingo zaituzte azkenean. Aldegiteko esan ditut. Ea hurrengo batean umore hobez aurkitzen nauen esanez atera da.

Bizkarra atearen kontra geratu naiz, bihotz taupadak baretu arte. Eskailerak jaisten sumatu dut, eta etxekoandreakin marmarrean gero.

Nere puzzlera itzuli naiz. Veneziak lasaitu nau. Itsaso zatitxoak elkarren artean ezkontzen hasi dira, poliki-poliki, mareak gora egiten duen bezala. Gondola bakoitza bere lekuan, kanal arrearen erdian kulunka ibili gabe. Kaiaren oholek bere euskarria eskaintzen zuten, eta gondolazain ttikiak bere txoko izkaturik zaintzen zuen dena.

Fitxak bata bestearen atzetik ipintzen jardun dut. Nekerik gabe ia. Orduak bata bestearen atzetik joan dira. Bizkarreko minez nengoen, eta burua altxatu dudanean gauaren beltza zertxo-

bait argitzen hasia zen. Ohera sartu eta lotara jarri aurretik ez dakit nongo betebeharrari erantzunez egunaren kronika jaso dut koaderno honetan. Bukatu dudanean balkoia ixtera altxatu naiz, egun argiak gela betetzen zuelako. Begiak biltzean goizeko mezako ezkilak aditu ditut.

Abuztuak 9

Balkoia zabaldu dudanean, gaileta apurrekin batera zeruaren urdina osatu behar zuten fitxak ikusi ditut zoruan. Ehundaka batzuk. Zerua aspergarriegia dela pentsatu eta bere horretan utzi dut.

Etzekoandreari ordaintzera jaitsi naiz. Esandakoa eman ondoren, begirada lurrerantz zuela eta ahots apalez hasi zait kexaka, gau osoan argia piztuta edukitzearen gastua dela, otorduak gelan bertan eginez hondatzen den zorua dela. Beste bilete bat utzi diot eta banoala esan.

Gora igo naiz. Zerua falta zaion Veneziari azken begiratua eman diot. Etorri nintzeneko arropak jantzi ditut, besteak xorroan sartuta. Koaderno eta boligrafoa ere hartu eta taberna joan naiz.

Oraindik ere geldituta neukan erlojua. Arratseko hirurak direla esan didate. Autobusik ez. Eramango nauenik? Tabernaria bakarrik dago, eta andrea sukaldean. Edozeinek, esaten dit, zoaz karreterara eta pasatzen den lehenbizikoak hartuko zaitu. Oso ezaguna zara, erantsi du, herri honetan gorrotagarri egin zaidan irribarre zuri herabe batez.

Karreterara joan naiz. Taxia etorrerazteko dirurik ere ez zitzaidan geratzen. Kostara edo lehorrera, nora joan pentsaka egon naiz. Hobe kosta aldera, beti ere kotxe gehiago. Auto-stop egiten hasi naiz. Jendez gainezka zihoazen bi kotxe pasatu dira, atzerritarrak. Begirada miopez ere ezaguna egin zait hurrena neregana zetorren kotxea. Parean gelditu zaidanean konturatu naiz Antoniorena zela.

Igo nahi al duzu?, esan dit atea zabalduz. Ez

nuen beste erremediorik. Eta: ez zara senarraren zain geratzen? Oraindik ere dendan jazten duen bata zuriarekin zihoan. Nora nahi duzu eramatea? Itsasora. Zer: bainatzeko asmotan ala?, eta entzun diodan barre lasa bakarra egin du. Hau kasualitatea, ni ere haruntza noa ba.

Kamioi bat eta atzetik kotxe batzuk zetozen kontrako aldetik eta une batez karreterari adi joan da. Bolanteari eusteko era ere lirdinga zuen, nazkagarria.

Bazkaldu al duzu? Nik erantzunik ez. Nonbait geldituko gara orduan, zerbait hartzera. Bailarako zenbait herri aipatu dizkit gero, ba-koitzeko edari eta janari berezitasunekin. Nik ezer esaten ez nuenez paisaiarekin hasi zait, behatza hona eta hara mugituz.

Ez dakit nongo sakanara eramango nauela esan dit orduan. Munduan ez da ezer politagorik, azpimarratu du bide nagusitik bazterreko batera joaz; oso gertu dago gainera.

Bost minutu egin ditugu gora eta gora, ahuntzentzako ematen zuen bide batetik. Gelditu denean atea zabaldu eta atera egin da. Hau da aire garbia, esan du, hemen bai hartzen dela lasai arnasa. Neri anuntzioak gogorarazi dizkit.

Ez al da ederra?, galdetu dit. Baietz eta bueltatzeko nik. Baina atera, atera, atera, esan dit eta nere atea zabaldu. Atera egin naiz. Bailara zabal bat ikusten zen, herri txikiak han hemenka, gure oinetan. Begira, begira. Bere herria erakutsi dit, eta ondoren izenez ere ezagutzen ez ditudan beste batzuk.

Itzuliko gara?, esan diot zakar antzean. Atseginago izan behar zenuke, berak, jatorrago, ez ahaztu nik bakarrik dakidala zure berri; nere eskuetan zaude nolabait ere, eta hori esateaz batera nere gerrira ekarri ditu bere bi eskuak.

Askatu egin naiz baina berriro heldu dit, indar haundiagoz, bertako gizonak gustatzen ez zitzaizkidan esanez, ea zergatik ihes egin nion bestela senarrari, lerdea zeriola. Indarrez eraitsi nau. Gainean neukan. Bizkar azpian harri kos-

korrak nabaritzen nituen; min egiten zidaten. Errenditu egin ditut besoak, alferrik nenbilelakoan. Alkondara azpian sartu dizkit orduan eskuak. Bere aurpegia nerearen parean neukan, muxukatu nahian.

Goian, bere buru atzean, oskarbi ikusten nuen zerua, Veneziakoa bezalako urdina. Bizkar azpitik harri kozkor haundi bat hartu dut eta garondoan eman diot Antoniori. Lehenengoan izu aurpegia jarri du. Bigarreanean krak hots bat aditu da. Hiru, lau, bost aldiz jo dut eta eskuan odola nabaritu dudanean nere gainetik kendu dut. Ez nuen zerri horren odolaz zikindu nahi.

Ez dakit guzti honetaz idatzi behar nukeen. Behin hasiz gero segitu egin behar; gero botako dut. Nere oinetan zegoen, eta ezpain ertzetik odol hari mehe bat ikusi dut irristatzen zitzaiola baina ez nekien bizirik zegoen. Guzti horrek ez zuen egiazkoa ematen; pelikula bat ematen zuen eta pelikuletako burutazioak besterik ez zaizkit etorri. Kotxera eraman dut arrastaka. Gidariaren jarlekuan utzi dut. Eskuak bolantean ipini dizkiot. Nere gauzak atera egin ditut kotxetik.

Talaia hartako ertzeraino gorako aldapa izango zen bildurrez nengoen. Baina ez: kotxetik aurreraxeago maldan behera leun bat hasten zen, amildegiraino. Esku frenoak kendu dut, atea itxi, kotxeari indarrez bultzaka hasi. Kostatu zaio baina laster batean aurrera egin du, poliki poliki, eta gero ertzerantz jaitsi da, mantso baina bakarrik. Zulotik behera erortzen ikusteko korrika joan naiz ertzeraino.

Oso erraza izan da. Errazegia. Veneziako zeru gorrotagarria beste lekukorik ez. Oinez jaitsi naiz bidera. Luze gabe kotxe bat gelditu zait alboan. Lau mutil ziren, baina neska baten tzat beti omen dago lekua, hori esan didate.

Iritsi naiz gure oporlekura. Apartamentu aurreko snack-bar batean sartu naiz; ea guzti hau idatziz gertatutakoa hobeto ulertzen dudan. Josuri deitu behar diot orain. Agian etxera itzuli da, ni hara joan naizelakoan. Josu gaixoa; segu-

ru estu eta larri ibili dela. Esplikazioak eta guzti eskatuko dizkit. Baina zer esango diot nik? Puzzle bat erosteko esango diot. Eta koadernoak utziko diot, agian, bertan dena argi eta garbi azaltzen saiatu bainaiz. Baina ez dakit ezer ulertuko duen.



IT'ZULPENAK

NARRAZIOAK

2

KONDAKETA



ANDREI PLATONOV

Eguzkiaren sartalderantz

Itzultzailea:

KARLOS SANTISTEBAN

CONSTANTIN FEDIN

Neba-arreba

Itzultzailea:

KARLOS SANTISTEBAN



ANDREI PLATONOV



Eguzkiaren sartalderantz

Itzulpena:
KARLOS SANTISTEBAN

I

Lo egiten zuen bitartean, lurrari itsasirik geratu zen. "Gorputzak atsedena hartu du eta izerdia bota, longaina berotu da eta gero lurraren hotzak gogortu du", pentsatu zuen Ivan Semionobitx Tolokno zulatzaileak esnatu zenean.

—Jaiki zaitez, anaia! —esan zuen Toloknok bere baitan—. Lurrak beti atxikitzen du: odol bilduaz edo izerdiaz itsasten zara, baina gero ez zaitu joaten uzten.

Ahalegin batez haizeek aurreko urteko belar hila aurkitu arte garbitu zuten lur jelatutik banandu zen.

Tolokno zegoen taldean zulatzaileei, begirune osoz, "gameluak" zeritzeten. Zulatzaile bakoitzak, fusil automatikoaz gain —ohizko horniduraz eta eskuzko granada pare batez—, para bat, burdinagatxo bat, aizkora bat, 'zakuto bat, metxa bilgu bat, bere jantziak eta beste zeozer zeramatzan, pelotoiaren berezitasunaren arabera. Aldean zeramatzatzen beti gauza guztiauek: aurrera egiten zuten, lasterka narraz ibili, suaren azpian lan egin, lan egitea galerazten zieten etsaiei aurre egin, elurrean edo zuloren batetan lo egiten zuten, jan eta etxera gutunak bidali, betirako zoriontsua izango zen bizitza baten esperoan.

Tolokno arratsaldean esnatu zen, eguzkia sartaldean zegoenean. Pelotoiaren buruzagiak, Smirnov kapitainak, bere jendea bildu zuen ataka batetan, ikuskatu zuen, ekipamendua aztertu zuen eta bakoitzari bere gogoaz galdetu zion.

—Ondo nago beti, erkide kapitaina —erantzun zion Toloknok buruzagiari.

—Eta zergatik beti? —gaineratu zuen kapitainak.

—Halabeharrez! —azaldu zuen Toloknok.

Kapitainak eskuaz seinalatu zuen sartzen ari zen eguzki eskergarantz. Gudukariek zain zeukaten toki izugarria begiratu zuten: kolore ezberdineko argizpiek orain gizakiaren bihotza hunkitzen duen musika solemnearen antza zuten.

Jarraian, kapitainak bere gizonak gauean zuten betekizuna azaldu zuen. Zulatzaileen pelotoiari elkartutako aztertzaile talde batekin irten behar zuten ibaibidean tankeak igaro ahal

izateko leku bat bilatzeko eta ibaiertz latzean ike arin batez irteera bat egiteko, etsaienganantz; eta ondoren, lan hau bukatu eta gero, tankeekin joan beharko zuten, infanteriako laguntaldearekin batera, eta egingo zieten seinale bati jarraiki, luebaki, aterpe eta blindai sistema bat burutu beharko zuten lurrean.

Burrukalari eta erkideok! —esan zuen buruzagiak—. Eguzkiaren sartaldeantze goaz. Gu, soldadu gorriok, etsaiantze makina baten balbula bezala gara, zeina bakarrik alde batetarantz irekitzen baita, horretarantz hain zuen, eta atzerantz ez dabil, guztiz hilik dago. Nire ustez gerraren burdin gorria aski ibili da gure lurretik: orain lurrak garia erditu behar du!

—Garaia da! —esan zuten gudulariek, eta oinazeak eta oroitzapenak haien armak dardarazi zituzten.

Eta eguzkia sartutakoan, ibiltzeari ekin zioten iluntasunpean, lan egiteko tresnez heriotzaren aurkako armez zaturik.

II

Oraindik ilun zegoen aztertzaileek zulatzaileak ibaiko urlasterrera bideratu zituztenean. Ivan Tolokno eta Piotr Rastorgiev zulatzailea, ibaian behera ibiliko ziren, arretaz, tokia azterkatzeko.

Tolokno izotz mehera irten zen eta azpian urlastera oso hurbil entzuten zen.

Etsaien bengalak oso hurbil ohartzen ziren. Dir-dir egiten zuten ortzean, eta ibai guztia iluminatu zen gizakiaren ametsak iluminatzen dituen argi huts eta geldo berberaz. Ivan Tolokno sabelaren gainean etzan zen eta aurrerantz herrestan ibili. Harantzagoxe uraren kantu etengabea aditzen zen izotzaren azpian.

Aztertzaileak ibaiaren bestaldean zeuden janarik eta ixilik mugitu ziren aurrerantz,

etsaiak zelatatu eta behar izanez gero arriskua-
ren kasuan zulatzaileak laguntzeko prest.

Tolokno urtzen zen izotzerantz ibili zen herrestan eta aurreragoxe ura izotzaren gainetik irten eta aske zeriola ikusi zuen, harkaitz uharka geldigaitzaren gainean zarata eginez. Tolokno uretarantz ibili zen herrestan, beraren azpian jaitsi zen izotzaren gainetik. Ura ukitu zuen eskuaz eta jasan ahal zela erabaki zuen.

Tolokno eta Rastorgiev ur aske eta izotz gabetik mugitu ziren. Sakonera txikia zen, batzutan orkatiletara ere ez zen heltzen. Hala ere, gizabanako baten neurriko harri zaharrek gaindiezinezko oztopoak eratzen zituzten makinetarako.

Tolokno eta Rastorgiev txundituta gelditu ziren: bertan eroso zen dena, baina harriak iladan zeutzan ubide guztian, alde batetik bestera, eta harrimetaren gainetik edo azpitik ibaia-
ren sakonera handia zen eta ezin zen gainditu.

Smirnov kapitaina uretan sartu zen, bere borrokalariengana hurbildu zen eta berandutu orduko bertantxe egin behar zutela ibia esan zien.

—Harkaitz handiak dinamitaz puxkatuko ditugu? —galdetu zuen Rastorgievek.

—Ezta pentsatu ere! —esan zuen Toloknok—. Nola egingo dugu zarata hemen, hor hurbil alemaniarrek zelatan daudelarik?

—Eskuz egingo diegu bultz harriei! —esan zuen buruzagiak.

—Eta adinako indarrik izango al dugu? —galdetu zuen ezbaian Rastorgievek—. Hemen harriak lurrean sartuta daude, ez da inor altxatzeko gauza. Eta ezin dira lasatu, altzairu landua bezala izozten eta bustintzen dira.

—Ez du axola, gizakia indartsuagoa da heriotza ondoan badauka —esan zuen Toloknok.

Mina bi lehertu ziren hurbil eta puxketak ortzean iltzatu ziren.

III

Kapitainak agindu bat bidali zion azterkuntza taldeko buruzagiari mezulari baten bidez: harrimetatik pixkat beherago nahasmenduko borrokaldi luze bati hasiera ematea. Zulatzaile guztiak batu zituen harrimetan lan egiteko. Baina alemaniarrek, zehazki ezer ez zekiten arren, errusiarren asmoak igartzen zituzten eta beren mortairuen desarrez harrimetaren tokia kurritzen zuten. Ostera zulatzaileek ezin zioten erantzun etsaien suari, non zeuden iragarriko ez bazuten; itzalpean ezkutatzen ziren, harkaitz handien atzetan, bihotzean bertan mina sentitzeraino gorputza hozten zien ur astunean.

Guda aurretik Uraletako lantegien eraikuntzan lan egin zegoen Ivan Toloknok, edozein lan ulertzen zuen. Edozein zeregini bere trebetasuna erabiliz ematen zion hasiera, bururatze-
ko beharrezkoa zen egitasmoaz hausnartuz.

Sei zulatzailek harkaitz bat lasatu nahi zuten betiko eran, denek batera erritmoz bultz eginez, errepikaren baten laguntzaz, baina harkaitzak ez zion men egin jendearen indarrari eta ez zen mugitu.

Tolokno uretan eseri zen, eskuak sartu zituen eta harkaitzaren oinarria eskuztatu zuen; ondoren ibai hondoan harri txiki batzu bilatu zituen bere eskuez eta atera ondoren etsaien bengalen argiaz begiratu zituen. Bilatzen zuena aurkitu zuenean —harri luze bat, ziri baten modukoa— Toloknok busti behar ez zen guztia erantzi zuen, uretatik urrun jarri zuen, izotzaren gainean, eta ibai hondoan eseri zen. Ura orain eztarriraino heltzen zitzaion.

Aizkoraren gibelaldeaz ziria harkaitz esker-garen uharkan iltzatzen hasi zen, ubidetik aldentzeko asmoaz. Toloknok haztaka zerabilen aizkora uraren azpian, eta eskuek dorpeki obeditzen zioten ur jelatuan eta berehala nekatzen zitzaizkion. Baina Toloknok ohitura zuen lanean eta bere pairamenaz gorputza erretzen zion hotza eta harkaitz handiaren gogortasuna

eta zama menperatu zituen. Zaintzuriak nabarmentzen ziren haren esku handietan. Esquak haizeak eta hotzak erreta zituen, aspalditik larru lodi batek, herdoildua bezala, estalia, zeinak eskuetako zaintzuri eta muskuluetan lanaren bero pizkarria gordetzen baitzuen. Noizbehinka, Ivan Toloknok aizkorari eutsitako esquak jasotzen zituen, ainerantz, lipar batez atsedenezitezen, eta berriro harrian ziria ezartzen ahalegintzen zen leku hartatik mugierazteko.

Han urrutian, ibaiaz behera, aztertzaileak tiroka hasi ziren etsaien aurka, harrimetari arre-tarik eskain ez diezaieten. Hala ere, alemaniarrek ere su egin zieten aztertzaileei, badaezpada harrimeta mortero-suaz zeharkatuz.

Netxaev zulatzailea hilik suertatu zen buruan jo zion metraila-puxka baten ondorioz, ez zegoen haren gorpua inora eramaterik eta izotza-ren gainean ezarri zuten.

Rastorgiev bere ondoan eserita zegoen Toloknoren harkaitz berbera ziriztatzen ari zen. Urlastera ziriek askatutako gunean sartu zen xurgatze hotsez eta ibai hondoari atxekitako harriaren oinarria ahuldu zuen. Orduan, Toloknok lau zulatzaileari harria bere indar guztiez mugi zezaten kulunkatu arte agindu zien; bitartean, Toloknok berak inguruan ibaiaren ondoan aurkitzen zuen guztia sartzen zuen harkaitzaren azpian.

Smirnov kapitainak, Ivan Toloknoren adibideari jarraiki, launa eta seinako taldetan banatu zituen zulatzaileak harkaitz astun bakoitzeko, beren besoen eta ibaiaren indarrak mugitu ahal izateko ziriak sartzeko xedeaz.

Ivan Toloknoren harria izan zen amore eman zuen lehena eta sei bat metro alboratu zuten ibaian behera.

—Nahikoa da! —esan zuen kapitainak.

Alemaniarren bengalak goian itzali ziren, Kapitaina harrimetan ibili zen.

—Arinago, ea, arinago mutilok! —esan zien zulatzaileei.

Toloknok kikilduta zegoen Trofin Pozhidaev zulatzailea ordeztu zuen, eta haren lekua betez uretan sartu zen eztarriraino, astirik galdu barik ziriak sartu eta harkaitza mugierazteko.

—Arinago! —premiatzen zuen buruzagiak—. Laster tankeek bide askea eskatuko dute.

Iluntasuna zela eta, hotza handiagoa zela zirudien. Etsaien ibaialdeko gailurretik metrailagailu bat tiroka hasi zen etengabe eta balek harrimetako toki ezberdinetan jo zuten.

—Ez dute etsaiek pixka bat gehiago jasateko eroapenik izan —esan zuen haserre Toloknok ur barnean eserita, gorputza dardarek zirgitaraginda.

—Guda da, erkide Tolokno! —esan zuen kapitainak.

—Noski, erkide kapitaina! —erantzun zuen Toloknok—. Eta hementxe daude Armada Gorriaren zulatzaileak, eta zulatzaileek bi eskuin esku dauzkate: batak harria puxkatzen du, besteak disparatu egiten du...

Harkaitzak, ziriek eraginik, beren jatorrizko tokietatik mugitu ziren.

Harrimeta garbitu ondoren, kapitainak tokia zeharkatu zuen ibaialde batetik bestera, aztertze-ko, bidea aske zegoela ziurtatu nahirik.

Zulatzaileak uretatik irten ziren etsaien ibaialde garaiak babesturik. Etsaiak uhaldetik urrun samar zeuden, horregatik lekua lasai zegoen. Berehalakoan, haizearen eraginez, zulatzaileak jelatu egin ziren eta izotzez estali, baina behingoan berotu ziren eta lanak izerdierazi zien. Beren parak iltzatu zituzten uhaldeko aldapa latzean, eta erreten makur bat zulatzen hasi ziren, tankeak bertatik ibaitik aise irten ahal zitezen, etsaien bila arin joateko.

Jaka gosnatuetatik izotza desagertu zen eta zulatzaileen gorputzei lurrina jariotzen hasi zitzairen. Noizik behin, Smirnov kapitainak erretenaren aldapa neurtzen zuen, soberaz zulatu behar ez izateko eta tankeen motoreek gehie-

gizko esfortzurik egin behar ez zezaten. Hantxe, bere borrokalariei begira zegoen.

Morteroetatiko jaurtikigaiek eta metrailagai-lukadek zulatzaileen buruen gainetik hegaz egiten zuten ibai erdiko harrimetarantz, bertan-txe izotzean eta uretan joz.

“Zenbat etxe, zenbat gauza on eraiki ote du bere bizitzan Ivan Toloknok bakarrik?” —pentsatu zuen Smirnov kapitainak.

Eta bere aurrean lurra zulatzen ari zen Ivan Toloknori galdetu zion.

—Ez dut gogorutzen, erkide kapitaina —erantzun zuen Toloknok—. Bake garaian nire izerdiak berrogei alkondara ustelerazi zituen. Gudaldian, lau longainga eta bi jaka gosnatu ditut, zazpigarren jantzi-erantziak erabiltzen ari naiz, baina hezur guztiak osorik ditut eta gorputza ondo, amasartu egiten du.

“Eva Ivan Tolokno berau gaur bertan lurrera daiteke herio-zauriz!” —pentsatu zuen Smirnov.

Erreterenaren irteera amaitzear zutenean, kapitainak mezulariari agindu zion ibaiaz gora joan eta bertatik, bengala batez, tankeek bidea zabalik zutela eta infanteriarantz oztoporik ez zegoela adierazten zuen bengala jaurtiki zezan.

Alamaiarrak ere elkarrizketan hasi ziren zenbait koloretako bengalen bidez. Ivan Tolokno ortzeari begira zegoen, desagertze geldoko inarretan desagiten ziren bengalen ixilpeko txinpartek argiztaturik.

IV

Gauerdia ren ondoren dena ixildu zen. Aztertzaileek etsaiekin izandako lekoratze-borroka amaitu zen. Zulatzaileak ireki berri ziren erretenean etzan ziren atsedean hartzeko eta erdilotan egon ziren tankeak heldu arte. Kapitai-

nak borrokalariak iratzarri zituen une egokian eta tankeetara igoteko presta zitezen agindu zien.

Presatu gabe, Ivan Toloknok bere ekipoa ordenatu zuen eta adi egon zen gau ixilean: harrimetatik zebilen ibai-urlasterraren kantu monotonoaz aparte ez zen ezer entzuten.

Gero, Toloknok harri koxkorren kurrinka tanke-beldarren azpian, motoreen burrunbada eta ur urduriaren txistua aditu zituen; haina ez zituen ohartu makinak ibaira hurbiltzen, hain ixilpean mugitu ziren eta hain ondo erregulatu rik zituzten motoreak.

Tankeak erretenetik ahal geldiroen ^{18,11} ziren, zulatzaileak igon ahal zitezen, jadanik gurdien gorputzean zeuden infanteriako borrokalariekin bat eginez.

Eta tankeek oldarrez jo zuten bidetik, jauzi batez bezala, eta etsaienganantz abiatu ziren ilunpean.

Ivan Tolokno Smirnov kapitainaren tanke berberera igon zen. Leku bero bat aurkitu zuen blindaketan eta eskuak berotu zituen.

Etsaiek makinak detektatu zituzten eta urrutetik tiroka hasi ziren artilleriaz. Tankeek, inpaktoak ekiditeko, abiadura moteltzen zuten edo haizea bezain arin aurreratzen presatzen ziren, edo saihesteko maniobrak egiten zituzten, baina aurreratzeko ezarritako lerro nagusia gordezten zuten beti.

Ziztu bizian, motore tentsoak uluka, tankeak etxetxo ixil eta baztertuek osatutako herriska batetara sartu ziren. Borrokalariak, tankeen gainean, beren fusil automatikoez tiro egiteko prestatu ziren, ez zen inor ikusten baina, eta bakarrik irteeran zegoen azken etxolatik jalgi zen tirokada bat. Tanke batek, bere abioan, etxetxoa zapaldu zuen eta etsaiak barruan lurperatu zituen.

Herriska hartan alemaniarrik gelditzen bazen, infanteria heldu artean amas zezatela; gurdiek ezin zuten denbora galdu eta ez zen kome-

ni potentzia galtzea bidean topatutako edozein etsairen kausaz.

Alemaniarrek gero eta tiroketa bilduagoa egiten zuten beren kanoiez, eta Toloknok airea beroxeago zegoela edo senti zuen. Aurrerago, bere tankearen bidean, Toloknok toki nahasi eta ilun bat ikusi zuen, batzutan ortzean leher-tzen ziren puxka-jaurtigaiei dirdira berretuak argiztaturik, eta sutan zegoen herriska bat zela konturatu zen. Baina herriska horretan, haren eliza deuseztatuan, haren hilobi eta putzuetan erresistentziaren suak dir-dir egiten zuen, sasta-gai urdinen gisara.

Tolokno zeraman tankeak orain bere motoreko amorru guztiaz aurreratzen zuen eta kanoiaren suaz durundatzen zuen, bitartean gudariek, borrokaren bortxak eraginik, konturatu gabe oihu egiten zutelarik.

Agindu bat betez, borrokalariek tankeak utzi zituzten eta aurrera egin zuten, herriska inguratuz.

Smirnov kapitainak mendebaldera eraman zituen bere gizonak, herriska inguratu eta borrokagunea atzean utzi ondoren. Berton zula-tzaileek defentsa eta euspenerako gune berri bat eraiki behar zuten, jarraitzen zieten tankeek, tiratzaileek eta infanteria motorizatuak herriskako etsaiak blokeatzen eta ezereztatzen zituzten bitartean.

Smirnov berarekin joateko agindu zion Ivan Toloknori, laneremua ezartzeko asmoz.

Goizaldeko argitzalean neguko zelai errusiar bat hedatzen zen beraien aurrean, ataken markurgune ilunek estalirik.

Smirnov kapitainak amildegiko mazela irispidean izateko luebaki-lerroan irteera bat eraiki nahi zuen babeslekuaren ondoan, lehen luebakia amildegiko irtengunean bertan eginez. Baina Toloknok luebakiak pixkat aurrerago has-tea gomendatu zuen, zuhaiska txiki bat hazten zen zelaian, sasiak tropen bizkar egon zitezen: baliagarria izan zitekeen borrokalarientzat. Kapitai-

na ados egon zen kalkulu burutsu honekin.

Toloknok bigarren babeslekua atakako ahoan bertan eraikitzea pentsatu zuen, mendiskan bi atekaren arteko bazka guztiak bizkar edukitze-ko.

—Baina zer nahi duzu Tolokno? Abereak larratzera etorri al gara? Nekazariak al gara? —haserretu zen buruzagia.

—Badaezpada esan dut —onartu zuen Toloknok—. Ez gara nekazariak, soldaduak bai-zik, nolabait denetatik dugu oster...

—Tira, dei ezazu jendea! —esan zuen kapi-tainak.

Zulatzaileak lur-rean lan egiten hasi ziren: ohizko zeregina zen. Lur-urraketa gogorarazten zien eta borrokalariei arima lasaitzen zitzaie-n: lur-rean barruago eta beroago eta lasaiago.

Goizaldean borrokaldiaren kekkatuxea ze-go-en oraindik abangoardiako taldea iristen ez zelako, borrokaldiaren egitasmoa apurtuz. Zain-go-a indartzea erabaki zuen eta beste bost borro-kalari bidali zituen zaintokietara aurretiaz izen-datu zituen ez gain. Berauen artean Ivan Tolok-no zihoan. “Bidenabar atseden dadila”, erabaki zuen pelotoiburuak.

Toloknok para garbitu zuen elurrean, auto-matikoa hartu zuen besazpian, granadak orde-natu zituen gerrikoan eta eguzkiaren sartalde-rantz ibiltzeari ekin zion. Komandanteak nora-bidea eta distantzia adierazi zizkion eta laster Tolokno hurbileko mendixka atzean galdu zen.

Etsaiengana hurbiltzen zen, une horretan herriska errusiar batetan hiltzen ari ziren solda-duak laguntzera bazetozen ikusten lehena iza-teko. Tolokno pinu erre, hil, baten enbor bakar-tiraino heldu zen, eta hantxe gelditu zen eta bere inguruan begiratu zuen: dena garbia eta hutsik zegoen, baso gutxi dagoen edozein errusiar lautadatan bezala. Pinu hilaren oinarritik behe-raldia hasten zen urak zulatutako bitarte handi batetarantz, eta beste aldean lurra berriro altxa-tzen zen.

Zulatzaileak ixiltasun hartan erretzeko go-
goa senti zuen, lehenago aurrerantz begiratu
zuen aldiz. Ez zegoen haizerik, baina urrun
zerbaiten hotsa aditzen zen airean.

Bitarte atzetik gurutze zuridun tanke burrun-
batsu bat irten zen, eta pinu soil eta gizonaren-
ganantz abiatu zen.

Ivan Toloknok borrokagardia begiratu zuen
eta bere ezbeharrak sentitu zuen, lehenbizikoz
bere buruarekiko kupidak bihotzean jo zion.
Bere bizitza guztia lanean eman zuen eta porrot
eginda zegoen, baina orain, faszistak haren aurka
tiroka ari ziren beren kanoiez; orain madarika-
tuek langile bat hil nahi zuten, Ivanen oroitzape-
na bera betirako ahanzturan desager zedin, gizon
hau munduan bizi ez bailitzan.

—Ez! —esan zuen Ivan Toloknok—. Ez naiz
hilgo, ezin dezaket utz nahastea hemen, gu gabe
ezin dute bizi munduan.

Tanketik ametragailuaren tiroketaren dizdira
irten zen. Tolokno zuhaitz enborraren atzean
etzan zen eta bere fusil automatikoaz erantzun
zuen tankearen zirrikitu eta ikusguneen aurka.

Makina, aurrez aurre, zuhaitzerantz aitzinatu
zen eta zapaldu egin zuen. Pinuak kirrika egin
zuen bere sustraiekin batera eta gorputzeko
urdintasuna zatiturik zeukan zulatzailea harritu-
rik utzi zuen. Tolokno erortzen ari zen zuhaitze-
tik aldendu zen eta enborraren eta elurra lur
beltza atera arte murtxikatzen zuen tankearen
orugaren artean zegoela ikusi zuen.

Argitasuna ikusi zuen bere gainean: tanke-
aren orugen azpian zetzan gizona eta ebakitako
enborra ukitu gabe iragana zela esan nahi zuen
honek.

Astirik galdu gabe, Ivan Tolokno tankearen
atzetik abiatu zen lasterka eskuan granada bat
zeramala, ertz bati eutsi zion eta pixkatera leku
ziurrean zegoen, etsaien dorretxoaren gainean.

Tankeak ixilpean jarraitzen zuen, tiro egin
gabe, etorritako norabide beretik. Ivanentzat
hau ona zen eta bidea komenigarri zitzaion,

makina preso hartu edo, zulatzaile lankorren
aurka tiroka hasten itzultzeko bira eginez gero,
granadaz leherteraztea erabaki zuen. “Beraien
aztertzaile bat omen da, beharbada hor-hemen-
ka dabil edo beretarrak lagundu nahi ditu baka-
rrik. Tanke hau tiro egiteko eta zapaltzeko egin
zuten, baina gainean bere nagusia darama, berea
ez den zulatzaile bat”. Lasterrera, beste soldadu
gorri batzuk tanke gainera jauzi egin zuten,
ixilpean eta bapaten. Beharbada borrokalaria
jagoleetarikoak ziren edo beharbada aztertzaile-
ak. Alemaniarrek makina geldierazi zuten, gero
beretarrenganantz biratzen saiatu ziren, baina
Toloknok bere granadez leherterazteko tankea
geldieraztea erabaki zuenean alemaniarrek
aurreko norabidetik jo zuten berriro. Tolokno
lasaitu zen. “Ergela da, baina ulertzen du: bizi
nahi du”, pentsatu zuen.

Tanke eta tripulazioa trofeoak biltzeaz ar-
duratzen zen komandoari eman ondoren, bere
pelotoian buruzagiak agintarien eskerrona adie-
razi zion eta besarkatu egin zuen, bitartean
sukaldariak hurrengo zioela:

—Ez zinela itzuliko uste genuen!

—Ez —erantzun zuen Ivan Toloknok—,
zuekin egongo naiz beti, gorde iezadazu beti
janaria!



KONSTANTIN FEDIN



Neba-arreba

Itzulpena:

KARLOS SANTISTEBAN

Nina bere neba Vitia baino urtebete handiagoa zen baka-
rik, baina neska zenez, beraren ondoan bazirudien hamar
urteak gainditzen zituela. Ama laguntzen zuen etxeko zeregi-
netan, eta nagusiak janariaren mugaketaz, ogia erosteko txar-
telez, jendeiladez hitz egiten hasten zirenean, berak elkarriz-
ketan eskuhartzen zuen guztiz serio:

—Ama, ezin duzu alderatu bake garaiarekin —esaten zuen, emakume heldu batek bezala sakon arnasartuz.

Vitiak bere adineko lagunez pentsatzen zuen gehiago bere arrebaz baino. Bere barruan, Ninaren bizitza gorabeheraz beterik zegoela uste zuen, berak aldiz hegazkinen aurkako jaurtikigaien puxka sorta bat bildu zuen, alemaniar burdin gurutze bat zeukan —soldadu gorri baten oparia— eta baita ere bestelako gerra trofeoak, hala nola, aipatutako soldadu gorri bipilak etsaien gotorleku baten aurka egindako eraso ausartaren bitartean eskuratu zuen alemaniar bizar aihotzaren azal urrekara.

Haren arreba Ninak ahal zuen guztia egiten zuen, noski, baina Vitiaren ustez zeregin hauek neskatoei zegozkien, jantokiraino janariaren bila ibilaldia egitea izan ezik. Hala ere, Ninak bere nebaren laguntza behar zuen horretarako eta beti eramaten zuen bere ondoan: bakoitzak lapiko bana eramaten zuen.

Behin —neguko egun haizetsu bat zen— jantokitik etxerako bidean ari ziren. Plater bakarra eman zieten baina elikagaia zen.

—Begira —esan zuen Ninak, goilareaz garagarrezko ahia eragin ondoren—, lodia da. Askoz hobe da hau ursopa baten ondoren “ahia” marka duen beste zopa bat hartzea baino. Ez da egia?

—Eta zer da markaren zera hori? —galdetu zuen Vitiak.

—Ez duzu inoiz ezer ulertzen —erantzun zuen Ninak—. Zerbait esateagatik da.

Trapuetan bilduta zebiltzen, haizearen kontra makurturik, aurpegi txikiak, guztiz jasota zegoen eta taupaka batez inguratuta zeukaten soingainekoaren idunekoa ezkutaturik. Ninak ahia zeraman, bitartean Vitiak beste lapiko hutsa eta goilare bat zeramatza.

Ilunabarra agertzen hasia zen, baina haiek bazekiten etxera ilundu baino lehen itzultzeko astia izango zutela; ohizko bideari jarraiki zitzazkion Milionnaia kaletik, eta ondoren Marte-

ko Alorrean zehar abiatu ziren, Sadobaiaarantz elur mendixken artean zabaldutako bidezidor estu eta bihurgunetsu batetatik. Elurrez erabat estalia zegoen Iraultzaren Martirien oroitarriaren aurretik gurutzatzen ari zirenean, hautsño zuri izoztatuarekin batera, sirena baten zaratots sakona heldu zitzairen, lur barnetik jaulgiko bailitzan.

—Hara, hegazkin-deia —esan zuen Vitiak.

—Joan gaitezen lasterka —erantzun zuen Ninak, eta eskutik hartu zuen neba.

Lasterka joan ziren, are makurtuago, buruak soingainekoaren idunekoa sartuta. Goilareak tilin egiten zuen alaiki lapiko hutsean, kaskabilo batek bezala, eta Vitiak, haizebolada bortitz batetan sartuta, zalkazte arin baten gainean zihuan zaldiko azkarra zela imajinatu zuen.

Bapatean, hegazkin baten hotsa aditu zen eta, jarraian, goitik gainean erori behar balitzaie bezala hurbiltzen zen lehergailu baten txistu zorrotza entzun zen.

—Lurrera! —oihu egin zuen Ninak eta gogor tiratu zuen Vitiaren eskutik.

Ahozpe erori ziren elur gainean eta mugitzeke egon ziren segundu batez. Eztandaren ziztu zaratatsua gainetik igaro zitzairen eta ixilik iraun zuten zenbait liparrez, inolako mugimendurik egin gabe. Ninak burua altxa zuen eta zera esan:

—Gure etxean da.

—Ez —erantzun zion Vitiak— urrunago da, ziur.

Elurretan kizkurtu ziren berriz: beste eztanda batek burrunba egin zuen eremuan, beraien gainetik gurutzatu zuen toilki eta Nevarantz urrundu zen zinkulin batez.

—Aizu —proposatu zuen Ninak, goazen atakara, bertan zubiskaren azpian ezkutatuko gara.

Zelaia zeharkatu zuten lasterka, ibaiondoko makurgunetik irrist egin zuten eta zubiaren azpian jarri ziren, elurrak estalirik. Ilun zegoen,

haizeak pafa egiten zuen mehatxukor, baina hautsño izoztua heltzen ez zen zulo batetan ezkutatzea lortu zuten. Elkarri eutsi zioten eta mugitzeke gelditu ziren.

Orduantxe hasi zen bonbardaketa. Jaurti-gaiak bata bestearen ondotik erortzen ziren hirian. Distira arrosakarek Inzheniarni gaztelua-ren silueta iluna biltzen zuten, zubiskatik hurbiltzen eta urruntzen zela irudikatuz, gaztelua inguratzen zuten zuhaitzak beren kukula biluziez lurretik jalgi ondoren desagertzen zirela zirudiela, lur barrenean norbaitek itzulika jarri izan balitu bezala.

—Hori etxetik hurbil da —esan zuen Ninak ahopetik.

—Egia da —erantzun zuen Vitiak.

—Eta ama hiltzen badute?

Vitiak ez zuen ezer esan. Eskua zabaldu zuen lapikoetarantz eta indarrez elurpean sartu zituen, lehenbizi hutsik zegoena eta ondoren ahia zeukana. Bapatean jotze bortitz bat sentitu zen eta zubiak karranka eta erosta egin zuen, Vitiak, goilareak lapiko hutsaren barnean jauzi egitean egindako doinu urriak garria entzun zuen, gitarra baten hariarenaren antzekoa.

—Ez zara beldur? —galdetu zuen Ninak eta berriro esan zuen:

—Eta ama hiltzen badute...

—Aizu, Nina —esan zuen Vitiak, ahots apalez—, jan dezagun ahia...

—Eta ama zer?

—Berdin da, hilgo dutela badiozu...

Ixildu egin ziren. Eztandak gelditu ziren, haizea baretu zen eta lipar batez ixiltasun sakona izan zen.

—Eta ama hiltzen ez badute —ihardetsi zuen Ninak— eta guk ahia jan?

Vitiak ez zuen erantzun. Lehergailuak eztanda egiten hasi ziren berriro. Bat, bi, hiru... Gaztelu beltza agertu zen supituki, zubiskara hurbildu zen eta desagertu egin zen.

—Eta hiltzen badute? —esan zuen Vitiak, are

ahots trauskilagoaz—. Ahia izoztuko da. Zerez berotu behar dugu? Sugai gehiago iriotea baizik ez dugu egingo. Oraindik bigun dago... Jango dugu, Nina, eh?

Arrebak alditxo batez hausnartu zuen eta zera erantzun zuen:

—Ez, Vitia. Beharbada ez dute hilgo...

Bonbardaketa amaitu arte itxaron zuten el-karrizketa berrasi gabe; txakurka ibiltzen irten ziren zubiska azpitik, eta etxerantz abiatu ziren.

Etxeko atarian ama beraien bila joan zen arineketan, eta besarkatzen zituen bitartean, erdi itota, hitz ulertezin bat zizakatzen zuen, "en-txoak", "laztanak" edo holako zerbait...

Etxebarruan egon zirenean, ahia berotu zuen burdinezko sutondoan eta zati berdinetan banatu haurren artean.

—Eta zuk, ama? —galdetu zuen Ninak—. Zergatik ez duzu zeuretzat jarri?

—Nik jan egin dut, laztantxo, jan ezazue zuek —erantzun zuen amak. Bizkar eman zion mahaiari eta sutondoan lanean hasi zen.

Jaten amaitu zutenean, Vitia amari hurbildu zitzaion ixilpean eta mosu eman zion.

—Eskerrik asko —esan zion, ohizko aho-tsaz.

Ondoren gelako txokorik urrenen eta ilunenera aldendu zen eta, bertatik dei egin zuen:

—Nina, Nina, zatoz hona!

Arreba hurbildu zitzaion. Mutilak lepoa inguratu zion beso batez eta hurrengo xuxurlatu zion:

—Makur zaitez. Makurtzeko, gauza bat esan nahi dizut belarripera... Zera, mesedez..., ez iezaiozu kontu amari zubipean hitz egindakoa.

—Ahiarena? —galdetu zuen Ninak, xuxurla batez ere—. Leloa naizela uste al duzu? Ez nioke munduko ezergatik ere kontatuko...

POEMAK

5
POETA



AMAIA ITURBIDE

Atoz nire etxera

J.L. OTAMENDI

Lau poema

JOSE ERZIBENGOA

Bortietan

KARLOS SANTISTEBAN

Eider eijerra

JUAN RAMON MADARIAGA

Iguriaren trilogia eta bat gehiago



AMAIA

ITURBIDE

Atoz nire etxera

LAZTANTZEN edo esku artean minez goratzen dut kopa
 eta denbora izoztua edaten enbaxadore baten dotoreziaz.
 Koparen kristalak zauri leuneko
 bi begi hondoen irudia itzultzen dit.
 Zeruari zerbait galdetzen diot baina ez dit ezer erantzuten.
 Lurrak gauero limoi-urez garbitu beharreko moxorroa dirudi:
 barrea, batzutan eskarmentudun andrearena du,
 besteetan neskatilarena,
 begirada, baso otso samurrarena,
 ilunabarren intensitateaz nagitzen denetakoa,
 mintza, ezko iraunkorra,
 defentsarik gabe bizi izan denaren kolorez tindatua.
 Eta estali hauen artean gu biok,
 artista-birika inmensoena bezalako espazio baten barruan.
 Atoz nire etxera eta beitu
 bakardade zurian eraikitako horma hauek;
 gelako hormak, ene poemenak berak, lau aizeetara hedatuak dira
 goiz-lotsa eta arnas ahuleko lepoen aieruz eginak
 ilargi betean azala minberagotzen zaienetaoak.
 Neurri zehatzean hurbildu eta leihoa zabaltzen dut
 adoleszenzia garaiko diarioa zabaltzen den ikusmin arretatsuaz.
 Beste arrats-behera bat zintzilikatu zait sorbaldaren paretatik.

J.L.
OTAMENDI
Lau poema

I

Nola aukeratu geroa zure begientzat

zenbat krimen bildu dugun maindire zurietan
maitea itsasoa jakitera irits ez dadintzat ,
zuhaitzak ardiz mozorrotu ditugu
barkamenarentzat lekurik nere baranoan ez da

non gordeko dituzu eskuak biluzik zaudenean
ni ez nagoela etzazu ihes egin behintzat
oso daude hotzak portu gehienak
sasoi honetan kaiuek jotzeke okela gordin mareak

ezpain mistikoekin txirlilatutako egoitzak
neguaren esku beltzak umotu ezinean ari
burges ero baten poemak

II

den dena oroitu behar dut
denbora hezi
kartzeletako frontoietan isilminaren boteak hautsi
umea izanen zareneko espraiz venusak pintatu

huriak geroa atzendu
neguari hartzen dio aurre suak
odolak egiari

ezpain itzalak lez haizeak teilak ebaki
lehengo lepotik burua
oinazea hain zuhur

den dena oroitu behar du
geure hezurak testigu

III

sexuzko dorreak
baldin eta argizagi lez urtu badira uso lerdo bertutetsuak
baldin eta gerlarik irabazi badu etxepeko terroristak
baldin eta zure kulero umela oroit baleza tximeletak

sexuzko erpinak
odolak
dituenean
gorputz
izutuen
gainak
troka
arnaskorrek
odolki
zut
zurrinak
falta

sexuzko leihoak
non ikusten diren zelaiak biluzten neguaren hortzak
non desio gorenetatik txakurzuloetara amiltzen diren gotzonak
non pertsonak dituzten ahazten sukar ongileen erostak
(leihoak ez baizen sexuzko lehoiak)

IV

eta itsasoa
 egia esan
 gehiago axola zitzaidan orduan gizontto triste hura baino

gure baitari zerion odola
 borobil
 beldurra bezala
 eta arnasak goritzeraingo egiati

musika gabe utziko genituen hainbeste heriotze
 gauak minez itsu
 ahaztura ere ahantzi ezin dela
 izen abisalek
 aditz abisalek tintontzietan oroitu
 gupidarentzako gizonik ez

bai urrun dituztena euren hildakoak demokratek
 itsaso baten ostean
 urtaro baten ostean
 karraxi baten ostean
 garaipen baten ostean lurrik gabe

eta negu gau hotzetan
 arrainek
 itsas zulo pelirosak besarkatzen

JOSE
ERZIBENGOA
OTAEGI
Bortietan

AZAROAK 12an, goizaldean
egunsentiak egunari
argia eman dio.

Laino beltzak itsasalderat joanik
haize epelaren usain udatiarrak
gezurrezkoa dirudi,
basoetako hosto horailak
eskegita batzu
bideetako zidorrak estaltzen bestetzu
heriotzaren gidari
oihal zabalean elkar bildurik
agian bidaiariak etzan daitezen,
ibili'ondoko nekaldiaren egoitza...

Burutapenak gauzatuz doaz
aspaldidanik,
Orreagako amildegirat so
Erro, Mezkiritz, Zubiri, Adi...
Mendi gailurrean
inguruetako artzainen bortietan
belak, karraka beltza,
solaskide maltzurak...

Euskaldun zaharren oihartzuna
zutik, gogor, ozenki, goraki...
gorputz dardartietan
liluraturik osotasunean...
Muinoen mazeletan
pinu berde ilunetan, zetaka beltza,
ikuspegia margotuz...
artzainen etxolei
ardien barrutiei
zaldien zaletxeei kea darielarik...

Aezkoako errekaondoetan
 amuarrain saltarien erritmu zalua
 dakusat sor eta lor
 Ortziaren lekukotasuna
 goi urdinean dudalarik...
 gerrariak
 zaldien irrintzinak
 gudari erorien garraisi hilezkorak
 nonahi,
 ortzemugetako argi gorriskaren
 nonahi,
 ortzemugetako argi gorriskaren
 kerizpean diraute
 ardiek "beeka" dirauten bitartean
 eliz dorreko begiradaren magalean
 bakean, bazketan, bazkatzen,
 burumakur, uzkur...
 joaliak harat eta honat
 negarti, deika, samurki dantzuskit...

Ez, ez da alferrikakoa izango
 berrogei euskaldun
 hondraduen bilkura profetikoa.

Aunitz egun iragak dira lanpeturik
 nekaturik
 etsiturik...
 zigortuak, hildakuak
 Nafarroako erresumaren lurraldeetan
 elkartuak, bikainduak,
 denen endeleguak baturik
 gerora abiaturik
 kopetak, ukondoak
 izerditan blai apainduak
 euskararen premiaz jabetuak,
 solasean, amodioan...
 trebetasunean bilduak,
 luzarorako sofrikarioaren egoitza
 apailatzen
 eraikitzen...
 honetan bat bait datoz
 gizon-emakume ororen jokaldi
 arriskutsuak...

—Herrera, Puerto...—
 lur honek sortutako seme kuttunen
 lantu eta negarrak dantzuskit
 arerioak ernetutako
 giroan
 etxeetan
 jokuetan...
 harrerageletako borreroen esku zitalak
 maite ditudanen masailetan
 markaturik...
 malkoak dakuskit...

Aurize eta Urrobiko ibarrean
 laino eta pindarrak...
 eguzkiak irten egin du.

Garralda zaharra, berria...
 gazte gogortuen iturri berria
 egiaz guria,
 hamaika aldiz aditua
 gozatua
 baina ez akitua
 inoiz ez bezalako eginkizunetan
 murgildua
 ardien artilez eraikitako beroa
 misterioz dastatua...

Ez, ez da alferrikakoa izango
 Azaroko San Martinen hurrengo
 eguneko arratsaldean
 paregabeko ordu luzeetan, zorionez,
 maltzurkeriaz urrunduz
 denen arteko humorea tartean delarik
 freskotasunean
 gozatzeko izan dudana parada...

Zainetatik eta kirioetatik darit
 Urrobik errekan daraman
 ur freskoa, gardena...
 geraezinezko kemena
 sentipen osoaren
 isladapen betea...
 aitonen semea...

Berriro, berriro ere zuekin
izengabeko artzainokin
joanen naiz biltzerat
euskal harrespilaren zirkulura
dagokidan harriñoa ezartzera
borobiltasunean
irekidura handiagotzera...

Ezin uka
bortietako besarkadak
zigilatu didan
urrats minbera.

KARLOS SANTISTEBAN

EIDER EIJERRA

PINPILINPAUXA
 pinpirin ederra
 ene bihotzeko pinpilin-panpala
 zu zara guztiz ponpoxa,
 laztan xamurrez ferekatzen zaitut
 pilpira beroz kulunkatu;
 pinpilun-punpulun goaz irritsu
 pil-pilka barre eginez,
 ekilorea
 zilarrezko ilargi
 izar ñir-ñirtsu
 goi argi;
 txalo-txaloka jostatzen gara
 txitean-pitean zoriontsu,
 txopi-txopika, txutxu-mutxuka
 xeratsu eta alaitsu;
 kutun-kutuna
 zurrukutuna
 ama-aitaren zirrara,
 irribarreaz ordaintzen duzu
 negar zoroko gaubela;
 Eider eijerra
 tximeleta hegan
 txilipurdika ametsa,
 ttuku-ttuku
 ttotto-ttorika
 alegeratzen
 tristezia oro.

MUNDUAREN LOREA

MUNDUAREN lorea ximeltzen ari da
 hostoz hosto
 petaloz petalo,
 udaberri jantzia galdu eta
 negu gorriak biluztu dio arima,
 hotzikarez bete unaturiko ornoak.
 Poetaren garaia finitu da,
 mundua mugierazten duen taupada bihozketu da
 ezustez,
 itsaso bat
 isuri da zigorrez betea
 kupidagabe,
 hobenduriaren begi izutuetan,
 zirt-zart ankerrez
 sakailatu ditu onuste soroak otoz.
 Munduaren loreari
 izain batek xurgatu dio klorofila,
 hiltzear dago elikatu zuen abestia,
 hutsarte larrosaz beteko balitz ere
 eihartuta dago lorategien eihera,
 ehortzia buztin betikorrez.

EZ DUT ESANGO

Ez dut esango ez
maitasun basatia nire hitzetan bustia ez dagoenik
ezta nire hortzak zorrotzak ez direnik
marfilezko haginkadez
desiratzen zaitudanean.

Ez dut esango ez
naturkontrakoa ez naizenik
neguantza bere esku glaziarrez
ate joka dagoela
larruts zugar barneratzen naizenean.

Ez dut esango ez
zorakuta ez nagoenik,
baina ezin bazaitut maitatu
nahiago zaitut gorrotatu
ankerki astintzen zaitudanean.

ZUTAZ JAKITEA

ZUTAZ jakitea
 basoko bidezidorretatik alegereki galtzea da,
 arratsalde berankorreko itzalaz jantzi
 eta otordu standarizatuak orrazi jakitunez
 biluztea,
 erantzunik gabeko berun-amildegia zamatuz
 galdera-geziek erasotua izatea;
 zutaz jakitea
 bizitzaren alegoriez tutik ez jakitea da,
 eztarritik oinpuntetaraino besarkatuz
 larrua aizto zorrotzez laztantzea,
 olatu geldigaitzen bultzaz
 odol nekatuan murgiltzea;
 zutaz jakitea
 adimena legamiaz haztea da,
 tropikaldeko ihintzaz kantu egarritsuak freskatzea,
 ispiluetako irudiez mailu puxkaezinak burutzea eta
 ispiluak puxkatuz
 ezintasun-puzzleak osatzea;
 zutaz jakitea
 nitaz jakitea
 bezain zaila da.

BIZI BEDI!

Bizi bedi jaia!
Bizi bedi plazerra!
Borrokatzera zoazten gladiadoreok:
Garai ala hil!

Anfiteatroa beterik dago
dir-dir burni isladak
Zoazte agudo!
Patua hareatzan datza
bizi bedi balentria!
Isur dadila odola!

Bizi bedi jaia!
Bizi bedi plazerra!
Borrokatzera zoazten gladiadoreok!
Garai ala hil!

JUAN RAMON MADARIAGA

Iguriaren trilogia eta bat gehiago

Iguria naiz

IGURIA naiz,
gauak izartegiari begiratzera
behartzen duen haietarik,
hotz krudelak lo egitera
uzten ez duen haietarik.
Iguria naiz,
ilargiari ondiko minenak
kondatzen dizkion haietarik,
erredolari emaztea bailitzan
eleztatzen dion haietarik.
Iguria naiz,
eta etsaien etortzea igurikatzen dut.
Iguria naiz,
eta gaueko sakaila igurikatzen dut.
Iguria naiz,
eta batzutan, etsi-etsian, igurikatzen dut
heriotza.

Erregea eho behar nuen

ERREGEA eho behar nuen gauez,
halaz, ene brokelaren gibelean izkutatu nintzen,
iguriak ene begien erlantzak ikus ez zitzen.
Boboi en kantua ihakindatu nuen gero,
gauari fida zekion,
baina halaz guztiz, zelatan segitu zuen
iguri fidelak.
Loak hartuko zuelakoan nengoen
eta hotzak makur eta etzanarazi,
baina halaz guztiz, xut segitu zuen
iguri fidelak.
Argizagia bete eta zuritu zen izartegian,
eta hark eresi xarmant bat eskaini zion,
baina halaz guztiz, zurt segitu zuen
iguri fidelak.
Gau hartan erregea ez nuen eho,
oinaze handia senditu bainuen
iguri balenta azkonaz
ehotzean.

Dorrea

DORREAK irme zirauen goiztiri horretan
 baina hutsik.
 Ekia murra bailitzan esnatzen zen.
 Itxesaren susmoa bihotzean zeukalarik
 arrajin zen gaueko eidolaren ebaslea, erahilea,
 ezinago triste,
 ezinago etsiturik
 ezinago bano.
 Talaiaaren iguria eho zuen
 bihotzeko azantza inarrosiz betikotz,
 baina zein ere izterbegia zen,
 apiril horretan dorre hartako iguria egin zen
 eta besteak bezala
 haiduru dago,
 heltubada, heriotzaren ere.

Iguri guziek

IGURI guziek diraute
 hodeiertzari biziki estekaturik,
 ekaitzen gain edaten eta pizten,
 mengo honezaz eresiak sortzen,
 errauts bihurturik hil direno,
 iguripenaren esperoan hil direno,
 haiekin batera hil gareno.

POEMA

2

POETA



PAUL
VALERY


Le cimetière marin

Itzultzailea:
MIGUEL ANGEL UNANUA

CHARLES
BAUDELAIRE

L'homme et la mer

Itzultzailea:
IOKIN ZAITEGI



PAUL VALÉRY

Itzultzailea:

Migel Angel
Unanua

LE CIMETIÈRE MARIN

*Ce toit tranquille, où marchent des colombes,
Entre les pins palpite, entre les tombes;
Midi le juste y compose de feux
La mer, la mer, toujours recommencée!
O récompense après une pensée
Qu'un long regard sur le calme des dieux!*

*Quel pur travail de fins éclairs consume
Maint diamant d'imperceptible écume,
Et quelle paix semble se concevoir!
Quand sur l'abîme un soleil se repose,
Ouvrages purs d'une éternelle cause,
Le Temps scintille et le Songe est savoir.*

*Stable trésor, temple simple à Minerve,
Masse de calme, et visible réserve,
Eau sourcilleuse, Œil qui gardes en toi
Tant de sommeil sous un voile de flamme,
O mon silence!... Édifice dans l'âme,
Mais comble d'or aux mille tuiles, Toit!*

*Temple du Temps, qu'un seul soupir résume,
A ce point pur je monte et m'accoutume,
Tout entouré de mon regard marin;
Et comme aux dieux mon offrande suprême,
La scintillation seréne sème
Sur l'altitude un dédain souverain.*

*Comme le fruit se fond en jouissance,
Comme en délice il change son absence
Dans une bouche où sa forme se meurt,
Je hume ici ma future fumée,
Et le ciel chante à l'âme consumée
Le changement des rives en rumeur.*

ITSAS HILERRIA

SABAI lasai hori, usok zehar,
 Pinu hilobi tartetan dar dar,
 Eguerdiak doi izekitzean
 Itsasoa, beti berritzear...
 Oi oldozpen ondorengo hondar
 Jainkoen bakea ikustean!

Zein tximist lan hutsaz irentsi
 Honen kresal diamant ugari,
 Et'hau pakea dena erdiets!
 Leizez gora ekia igeri,
 Betierekotasun euskarri
 Diz diz Aroak, jakintza Amets.

Altxor iraunkor, Minerveri hor,
 Atsedean orre, bistako alor,
 Urak ñir ñir; zeugaz gorderik, ai,
 Zenbat lo su izaretan, Begi,
 Eta ixila!... Ariman tegi:
 Urrezkoa gailurrean, Sabai!

Denbora Toki: hats batek daki,
 Une huts hontan igota nago ni,
 Itsas begiradaz oro bildua;
 Eta dohain gorentzat jainkoei
 Izarniadura nareak erein
 Ohi du goian arbuioa.

Amaria urtzen den lez, geza,
 Gozoa bihurtzen bere eza,
 Ahoan kaizua xehatuaz...
 Arnas zait neure hurren keadarra,
 Zeruan leloa gogo hondarra:
 Uhinotsa izpazterrak paguan.

*Beau ciel, vrai ciel, regarde-moi qui change!
Après tant d'orgueil, après tant d'étrange
Oisiveté, mais pleine de pouvoir,
Je m'abandonne à ce brillant espace,
Sur les maisons des morts mon ombre passe
Qui m'apprivoise à son frêle mouvoir.*

*L'âme exposée aux torches du solstice,
Je te soutiens, admirable justice
De la lumière aux armes sans pitié!
Je te rends pure à ta place première:
Regarde-toi!... Mais rendre la lumière
Suppose d'ombre une morne moitié.*

*O pour mot seul, à moi seul, en moi-même,
Auprès d'un cœur, aux sources du poème,
Entre le vide et l'événement pur,
J'attends l'écho de ma grandeur interne,
Amère, sombre et sonore cterne,
Sonnant dans l'âme un creux toujours futur!*

*Sais-tu, fausse captive des feuillages,
Golfe mangeur de ces maigres grillages,
Sur mes yeux clos, secrets éblouissants,
Quel corps me traîne à sa fin paresseuse,
Quel front l'attire à cette terre osseuse?
Une étincelle y pense à mes absents.*

*Fermé, sacré, plein d'un feu sans matière.
Fragment terrestre offert à la lumière,
Ce lieu me plaît, dominé de flambeaux,
Composé d'or, de pierre et d'arbres sombres,
Où tant de marbre est tremblant sur tant d'ombres;
La mer fidèle y dort sur mes tombeaux!*

Zeru on, zuhur; nakuszu aldatzen,
 Hainbat harrokeriz zurtu ondoren
 Unaturik, baina ahalmen betez;
 Zabale erlantz honetan uzten naiz,
 Itzala naiz hilen etheen gain:
 Harat honat bigun nabilkite.

Ekain gainaz gogoaz jarria
 Eusten zaitut, doitasun agiria,
 Gudaroste argiz hornitua!
 Oinarrira zaitudan itzulua:
 Ikus zaitel... Iraulia argia
 Erdia itzala da bahitua.

Enetzat, nire, nigan bakarrik,
 Bihotzondoan —olerti iturri—
 Eza ta jazo hutsaren tarten,
 Barnean erditu oihartzun zai,
 Patin garratz, ilun bai alarai,
 Ariman gerorakoak uzten.

Al dakik, horbel katigu aizun,
 Sare lasetako ahul jatun,
 —Betazaletan zadorrak ditut—
 Zein soina harrastakatzen naizen,
 Hezur zorura kopeta makurtzen?
 Inarra nire zirenak buruz...

Itxia, deun, gai barik suz josia,
 Argiari eskeini lur zatia,
 Atsegin zait una, zuzipean,
 Urrez, harriz, zuhaitzez eralgia,
 Haitzurdin ikara itzal azpian;
 Itsas leialak lo hobi gainea.

*Cbienne splendide, écarte l'idolâtre!
 Quand solitaire au sourire de pâtre,
 Je pais longtemps, moutons mystérieux,
 Le blanc troupeau de mes tranquilles tombes,
 Éloignes-en les prudentes colombes,
 Les songes vains, les anges curieux!*

*Ici venu, l'avenir est paresse.
 L'insecte net gratte la sécheresse;
 Tout est brûlé, défait, reçu dans l'air
 A je ne sais quelle sévère essence...
 La vie est vaste, étant ivre d'absence,
 Et l'amertume est douce, et l'esprit clair.*

*Les morts cachés sont bien dans cette terre
 Qui les réchauffe et sèche leur mystère.
 Midi là-haut, Midi sans mouvement
 En soi se pense et convient à soi-même...
 Tête complète et parfait diadème,
 Je suis en toi le secret changement.*

*Tu n'as que moi pour contenir tes craintes!
 Mes repentirs, mes doutes, mes contraintes
 Sont le défaut de ton grand diamant...
 Mais dans leur nuit toute lourde de marbres,
 Un peuple vague aux racines des arbres
 A pris déjà ton parti lentement.*

*Ils ont fondu dans une absence épaisse,
 L'argile rouge a bu la blanche espèce,
 Le don de vivre a passé dans les fleurs!
 Où sont des morts les phrases familières,
 L'art personnel, les âmes singulières?
 La larve file où se formaient des pleurs.*

Zakur eder, idolatra bota!
 Artzain irrifarraz naiz eta
 Nere hobi saldo xuri narea
 Larretzen —mysteri ahariak—
 Uxa itzazu uso zogiak,
 Amets antzuak, gotzon ikusberak.

Hona jinik geroa nagi da.
 Euli xahuak agortza hazka.
 Errauts da oro, goiaz ihalgia
 Auskalo zein izaeratarata...
 Bizitza zabal, ezari jota,
 Samina ezti, t'arnasa garbia.

Dauden gorderik hilak lurpean
 Zadorrak lehortzen epelean.
 Eguerdi goitarra atsedenez
 Adi da, ados berberarekin...
 Garaun borobil, deadema fin,
 Zugar naiz aldaketa ostena.

Eusten naukazu zure beldurra!
 Ene damuak, zalantzak, herstura,
 Akats zure bitxitasunarentzat!...
 Marmorez irozo gabaz osterata,
 Zuhaitzen zuztarretan aingura,
 Zugar erabaki da herri bat.

Eza lodian dira gesaldu.
 Buztin gorriak hezia edan du,
 Bizi doea loreek dute!
 Non hildakoen esaldi ezagun,
 Zeinezko antze, gogo bakandun?
 Harra malko marraskan irule.

*Les cris aigus des filles chatouillées,
 Les yeux, les dents, les paupières mouillées,
 Le sein charmant qui joue avec le feu,
 Le sang qui brille aux lèvres qui se rendent,
 Les derniers dons, les doigts qui les défendent,
 Tout va sous terre et rentre dans le jeu!*

*Et vous, grande âme, espérez-vous un songe
 Qui n'aura plus ces couleurs de mensonge
 Qu'aux yeux de chair l'onde et l'or font ici?
 Chanterez-vous quand serez vaporeuse?
 Allez! Tout fuit! Ma présence est poreuse,
 La sainte impatience meurt aussi!*

*Maigre immortalité noire et dorée,
 Consolatrice affreusement laurée,
 Qui de la mort fais un sein maternel,
 Le beau mensonge et la pieuse ruse!
 Qui ne connaît, et qui ne les refuse,
 Ce crâne vide et ce rire éternel!*

*Pères profonds, têtes inhabitées,
 Qui sous le poids de tant de pelletées,
 Êtes la terre et confondez nos pas,
 Le vrai rongeur, le ver irréfutable
 N'est point pour vous qui dormez sous la table,
 Il vit de vie, il ne me quitte pas!*

*Amour, peut-être, ou de moi-même haine?
 Sa dent secrète est de moi si prochaine
 Que tous les noms lui peuvent convenir!
 Qu'importe! Il voit, il veut, il songe, il touche!
 Ma chair lui plaît, et jusque sur ma couche,
 A ce vivant je vis d'appartenir!*

Neskats kilikatuen oihu bizi,
 Betazal heze, hortz eta begi,
 Suaz jostatzen den sabel arrai,
 Unatu ezpainen odol dirdai,
 Azken emanak,erhi babes zai:
 Lurpera oro, jokuak darrai!

Eta zu, arima zar, amets zai
 —Haragi begitan urre, uhain
 Gezur kolorge badenik— zaude?
 Lurrun izanik ere abesten?
 Zoaz, oro lez! Arol naiz hemen,
 Hilda ezinegon deuna ere!

Hilezintasun beltz eta hori,
 Izu erramu kontsolagarri,
 Heriotza amalur eginik:
 Gezurra eder, maina urrikalt!
 Nork ez ezagun eta ihesi
 Kazkezur huts irri horretatik!

Guraso sakon, buru soildade,
 Burtzinada azpian zarete
 Lurra, gure urratsak nahasten;
 Egia, luharra uko bage,
 Zurpean lo zaudetenontzat ez,
 Biziogaz bizi den, ez nau uzten!

Amodio edo neronen gorroto?
 Bere hortz ostena alboan dago
 Izen oro egokitzeraino!
 Eta? Hark ikusi, nahi, uki, lo!
 Ene haragia laket zaio
 Ohean, bizi honi natxekio!

*Zénon! Cruel Zénon! Zénon d'Élée!
 M'as-tu percé de cette flèche ailée
 Qui vibre, vole, et qui ne vole pas!
 Le son m'enfante et la flèche me tue!
 Ah! le soleil... Quelle ombre de tortue
 Pour l'âme, Achille immobile à grands pas!*

*Non, non!... Debout! Dans l'ère successive!
 Brisez, mon corps, cette forme pensive!
 Buvez, mon sein, la naissance du vent!
 Une fraîcheur, de la mer exhalée,
 Me rend mon âme... O puissance salée!
 Courons à l'onde en rejaillir vivant!*

*Oui! Grande mer de délires douée,
 Peau de panthère et chlamyde trouée
 De mille et mille idoles du soleil,
 Hydre absolue, ivre de ta chair bleue,
 Qui te remords l'éttncelante queue
 Dans un tumulte au silence pareil,*

*Le vent se lève!... Il faut tenter de vivre!
 L'air immense ouvre et referme mon livre,
 La vague en poudre ose jaillir de rocs!
 Envolez-vous, pages tout éblouies!
 Rompez, vagues! Rompez d'eaux réjouies
 Ce toit tranquille où picoraient des focs!*

Zenon anker, Zenon Elatar!
 Geziak dardaraz hegan zehar
 Zula nau, eta ezin du hegan!
 Doinuak erne'ta geziak aka!
 Ah! Eguzkia... Itzala dortoka,
 Akhileo zangoka geldi, gogogan!

Ez, ez!... Zutik! Aldian premua!
 Eten, gorputz, adimen zantzua!
 Dastatu, sabel, aide jaiotza!
 Hotzikara, itsasotik agitua,
 Ene gogoa da... Indar gazitua!
 Goazen, olatuak bizkor gaitzan!

Bai! Herioztako itsasotzar,
 Pantera azal ta klamide ari,
 Majinat iguzki iruditan,
 Erabateko ursuge, blutar,
 Isetsa hozkatzen zaren gar,
 Ixiltasun halako aldarrian.

Haizea gora!... Bizi gaitezen!
 Aldagoia liburua i'ki ta ixten,
 Uhin hautsa prest troskaren aitzian!
 Hega, orri liluratsu, arin!
 Leher, uhin!... Urez pozez apur dadin
 Latin oihalak mokoka sabaia!

CHARLES
BAUDELAIRE

Itzultzailea:

Iokin Zaitegi

L'HOMME ET LA MER

*HOMME libre, toujours tu chértras la mer!
La mer est ton miroir; tu contemples ton âme
Dans le déroulement infini de sa lame,
Et ton esprit n'est pas un gouffre moins amer.*

*Tu te plais à plonger au sein de ton image;
Tu l'embrasses des yeux et des bras, et ton cœur
Se distrait quelquefois de sa propre rumeur
Au bruit de cette plainte indomptable et sauvage.*

*Vous êtes tous les deux ténébreux et discrets:
Homme, nul n'a sondé le fond de tes abîmes,
O mer, nul ne connaît tes richesses intimes,
Tant vous êtes jaloux de garder vos secrets!*

*Et cependant voilà des siècles innombrables
Que vous vous combattez sans pitié ni remord,
Tellement vous aimez le carnage et la mort,
O lutteurs éternels, ô frères implacables!*

GIZONA TA ITXASOA

ITXASOA beti-beti maiteko duk,
gizon azke orrek! Itxaso zabala
ire izpillua du; azkenik ez oi dun
uiñen gora-beran erorren gogoa
ikusten duk; eta eure biotz ori
itxasoa bezain osin garratza duk.

Atsegin zaik ire irudin barruan
murgil egitea; besakartzen bai-duk
besoz eta begiz, ta eure biotza
bere otsaz ere aztu egiten duk,
orru ezi-gaitz ta basatien otsak,
itxas zabalaren otsak entzutean.

Biok itzaltsu ta gurbillak zerate!
Gizon ori! eure amillen ondoa
ez dik ikusi iñork! Iñork, itxaso ori,
ez dik ezagutu erorren barruko
aberastasuna. Orren arduratsu
zerate eskutuak barnean zaitzeko.

Ala ere, jara! zenbatu eziñak
dira alkar burrukan ari oi zeraten
urteak, erruki ta samiñik bage!
Burruka gorriak, eriotz ankerra
orrenbeste maite dituzuz, betiko
gudalari ta anai elkartu eziñok!

1927, Oña (España)

GALEUZCA 1990
XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURAZ
Ihardunaldiak azaroan



1990. AZAROAREN 12tik 16ra DONOSTIAN
XX. MENDEKO LITERATURAZ



GALEUZCA 1990

XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURAZ

lhardunaldiak azaroan



Datorren udazkenean Galeuzcaren 7. Edizioa izango da Mallorcan edo Menorcan (puntu hau Abuztua baino lehen zehaztea espero da), eta gaiak aukeratu eta bestelako antolamenduak aurreratzeko Barzelonan bildu ziren hiru Elkarteetako ordezkariak Ekainaren 8an.

Egitarau osoa katalanek zehaztu bezain prorito igorriko dizuegu, nolanahi ere, lerro hauen bidez txostenak zertaz joango diren eta beste hainbat zehaztasunen jakinaren gainean jarri nahi zaitugu.

TXOSTENAK:


- Hiru gai hauek proposatzen dira:

Kultur eredu arrotzen aurrean literatur sormena erreflesio bide bezala. (Ikus-entzugailuen eragina); (Komunikabideetan nagusi den eredu anglosaxionarrari nola kontra egin?)

• Historia narraziogai. (Historia aztertzea geure bereizitasunak gordetzeko lagungarri?)

• Zertarako poesia gizarte teknifikatuan?

Txostenak 15 bat orrialdekoak izan beharko dute. Onartzen dira ere komunikazio laburrak, 10 minutukoak, orrialde bat laburpen gisa Irailaren 20rako bidaliez gero. Eta txostena egiteko aukera bazkide guztiei luzatzen zaie, erantzuna Uztailaren 15rako eman beharko delarik.



1990. AZAROAREN 12tik 16ra DONOSTIAN XX. MENDEKO LITERATURAZ				
Eguna	Ord.	Epea	Gaia	Hizlaria
12		1900-1931	Mende Hasiera	
	10 12 16 18 20		Literatur Ikasketak Narratibaren Sorrera Jean Etcheperaren obra Ahozko Literatura <i>Mahai-Ingurua</i>	J. Haritschelhar A. Toledo P. Xarriton J.M. Lekuona
13		1931-1936	Errepublika Garaia	
	10 12 16 18 20		Lizardi Orixe Lauaxeta A.M. Labaien <i>Mahai-Ingurua</i>	J.K. Igerabide P. Iztueta J. Kortazar P. Urkizu
14		1936-1956	Erbestea	
	10 12 16 18 20		Ikusp. Orokorra J. Zaitegi Mirande Monzon <i>Mahai-Ingurua</i>	M. Ugalde J.M. Velez de Mendizabal E. Gil Bera K. Izagirre
15		1956-1977	Bide Berriak	
	10 12 16 18 20		Aresti Mitxelena Literat. Bizkaian Saioa <i>Mahai-Ingurua</i>	A. Arkotxa E. Perez de Gaztelu S. Onaindia J. Azurmendi
16		1977-1990	Gaurko Literatura	
	10 12 16 18 20		Nere obraz Nere obraz Nere obraz Nere obraz <i>Mahai-Ingurua</i>	B. Gandiaga B. Atxaga I. Borda J.M. Irigoien

Hegats

LITERATUR ADIZKARIA. 1 ZENBAKIA. ABENDUA. 1989

1

A U R K I B I D E A

SAIOAK

IRAKI ALDEKOA

- Joseba Sarrionandiaren poesia:
Itxasoa gartzelatuta 5
LUIS MARI MUJICA
Euskal kritika literarioaren inguruan . 11

LIBURU KOMENTARIOAK

PATRI URKIZU

- Jon Juaristi: *Literatura vasca* (Taurus,
1987) 19
AMAIA ITURBIDE
Hiru poema liburu 25
PATZIKU PERURENA
Irudimenaren laberintoa Hutsik
daukagu oraindik 29

ELKAR-HIZKETA

- ANA TOLEDO:** 33

NARRAZIOAK

OMAR NABARRO

- Geu gagoz testigu 41
JUAN LUIS ZABALA
Ez du amaierarik 49
XABIER MENDIGUREN
Larrutik 53

ITZULPENAK

XOSE LUIS MENDEZ FERRIN

- Percival 65
Itzultzailea: Andres Urrutia
STEPHEN VINCENT BENÉT
Super Flumina Babilonis 71
Itzultzailea: Joseba Sarrionandia

POEMAK

IÑIGO ARANBARRI

- Piamontekoak 83
KARLOS SANTISTEBAN
Maitasun elorria 85
ARANTXA URRETAIZKAIA
Ortzadarra autopistan 88
FELIPE JUARISTI
Sweet surrender errendizioa 90
JOXE ERZIBENGOA
Heiagora 93
JOSE LUIS OTAMENDI
Lau poema 97
AMAIA ITURBIDE
Kantu Liraina 101

ITZULPENAK

EDGAR ALLAN POE

- Ulalume 104
Itzultzailea: Migel Anjel Unanua

WALT WHITMAN

- Ene buruaren kantua 110
Itzultzailea: Maite Gonzalez Esnal

BOLETINA. AZKEN BERRIAK

- 2º Congreso de Escritores en Lingua
Galega 115
Nazioarteko Literatur Topaketak
Narraziogintza & Kritika 116
Liburuaren Europako Batzarrea 116
Galeuska Santiagon 117

SARIAK

- Literatur Lehiaketa zerrenda 119
Gazteentzako Literatur lehiaketak 121

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 2. ZENBAKIA. MAIATZA. 1990

2

A U R K I B I D E A

JOSEBA ARREGI

Sarrera hitzak 5

PAOLA TRAVERSO (ITALIA)

Metodo freudiarra italiar literatur
kritikan 7

Itzultzailea: X. Mendiguren

VICENZO CONSOLO (ITALIA)

Italiar elaberrietako hizkuntza 15

Itzultzailea: K. Biguri

DANILO MANERA (ITALIA)

Italiako gaurko literatur bizitzaren
zenbait zertzelada 20

Itzultzailea: k. Biguri

JUTTA HEINRICH (ALEMANIA)

Marginaliaren antzutasuna 24

Itzultzailea: M. Gonzalez

ANGELA PIETRZIK (ALEMANIA)

Hamburgoko literatur posta:
Zerorrek idatzi zeure poema 29

Itzultzailea: J. Usabiaga

JARKKO LAINE (FINLANDIA)

Fikzioa herriaren ispilu
ala oroitzapena? 36

Itzultzailea: M. Gonzalez

INGMAR SVEDBERG (FINLANDIA)

Literatur suediarria Finlandian 40

Itzultzailea: M. Gonzalez

TSJÉBBE HETTINGA/WILCO BERGA (FRISIA)

Gaurko Narraziogintza Frisian 43

Itzultzailea: M. Gonzalez

JOHN GUSTAVSEN (NORUEGA)

Laponiar literatura lehen eta orain 47

Itzultzailea: K. Nabarro

AIVO LOHMUS (ESTONIA)

Postmodernismoa, mundua eta
estoniar literatura. Ohar batzuk 51

Itzultzailea: K. Nabarro

SEAMAS MAC ANNAIDH (IRLANDA)

Irlanderazko literatura: iragana eta
oraina 57

Itzultzailea: M. Gonzalez

FRANCISCO SALINAS (GALIZIA)

Testua eta testuingurua egungo
Galiziaren narrazio esparruan 65

Itzultzailea: B. Montorio

MARTA NADAL (KATALUNIA)

Kataluniako narraziogintza:
hamarkada baten balantzea 74

Itzultzailea: Josu Zabaleta

VICENÇ VILLATORO (KATALUNIA)

Idazlea "balitz bezalako" kulturen 80

Itzultzailea: J. Zabaleta

J. M. LASAGABASTER (EUSKAL HERRIA)

De Arranondo a Obaba,
pasando por Madrid 85

TXOMIN PEILLEN (EUSKAL HERRIA)

Eleberriaren oraingo
Euskal Hizkuntza eztabaidak 93

ANDU LERTXUNDI (EUSKAL HERRIA)

Nire Obraz 99

Hegats 3

1990ko urrian Gráficas Lizarran inprimatu zen.
Argitalpena 800 alekoa da



Irudiak:

GIOVANNI BATTISTA
PIRANESI

1720 - 1778

Vedute di Roma

Della magnificenza ed architettura de'romani
Descrizione e disegno dell'emisario del Lago Albano
Antichità d'Albano e di Castel Gandolfo
Carceri d'invenzione